

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2016-09-23
EGUBAKOITZA
697. ZENBAKIA
16. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

Aizkorriko babeslekua auzolanean txukunduko dute, domekan | 10

Kirolariengan zaleek eragin handia dutela baieztatu dute profesionalak | 28



OÑATIKO ETA ARETXABALETAKO SANMIGELAK
Ekitaldiak, protagonistak eta beste | Erdian gehigarria



Euskaltzaleen Eguna egingo dute Elgetan, Goibekoren eskutik | 26



EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2016



AZKEN MEZUAK

Bost alderdi nagusietako hautagaiek kanpainaren gai nagusiak partekatu dituzte | 4

Julen Bollain –Elkarrekin Podemos–, Joseba Egibar –EAJ–, Pello Urizar –EH Bildu–, Eneko Andueza –PSE-EE– eta Juana Bengoetxea –PP–. | JAGOBA DOMINGO

Apotzagan behera egingo dute 80 pilotuk, goitibeheran, Eskoriatzan | 29

SINADURAK

	IÑIGO MURGIENDO 8
	8 AMAIA TXINTXURRETA
	ITSASO ERRETOLATZA 12
	16 MAIALEN MADARIAGA
	AINHOA NEGUERUELA 20
	24 AITZOLITURBE
	ANDERE ARRIOLABENGOA 25
	40 IDOIA ETXEBERRIA

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 8 |
HERRIAK 10 | KIROLA 28 | KULTURA 31
ZURE RAGARKIAK 34 | ZORION AGURRAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 |
ESKELAK 37 | NON-ZER 38



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Edu Muruamendiaraz dantzariari elkarrizketa
- 'Paziente bizia' Osakidetzaen programa

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

HAUTESKUNDE GAUA

GOIENA TELEBISTA | IRAILAK 25, DOMEKA, 19:45

- **Zuzeneko kontakizuna:** herrietatik bertatik berriemaileekin.
- **Emaitzen analisisa:** Elena Laka eta Mikel Lezamizekin.
- **Balorazioa:** ordezkari politikoekin.

Txomin Madinak eta Larraitx Zeberioek aurkeztua



EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2016

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena



Julen Bollain, Juana Bengoetxea, Joseba Egibar, Txomin Madina (aurkezlea), Pello Urizar eta Eneko Andueza mahai-inguruaren une baten. | JAGOBA DOMINGO

Kanpainaren gai nagusiak jorratu dituzte hautagaiek

- ▶ Bost alderdi nagusietako hautagaiak, mahai-inguruan, Goienan
- ▶ Eusko Legebiltzarrera eraman nahi dituzten politikak azaldu dituzte

JOSU BILBAO | ARRASATE

Domekan, irailak 25, herritarrek euren botoa emateko aukera izango dute Eusko Legebiltzarrera osatuko duten legebiltzarkide berriak hautatzeko. Goienak mahai-inguru egin du alderdi nagusietako bost hautagairekin.

Industriak gero eta pisu txikiagoa du euskal ekonomian. Enpresa esanguratsuak ixten dabilta. Gertuan: Fagor etxetresnak, Candy, Arcelor Zumarragan, Bergaran ere larri. Ze politika zehatz daukazue ekonomia eta enplegua sustatzeko?

Pello Urizar: Industria politika sustatzeko berritasuna eta berrikuntza ezinbestekoak dira. Ikerketa, garapen eta berrikuntzan

inbertitu behar dugu, eta guk 800 milioiko diru funtsa aurreikusten dugu horretarako. Formazioa beti hobetu beharreko gauza bat da, baina egun dugun arazo nagusia lan erreforma da. Gainera, 266.000 pertsona erretiratuko dira hurrengo urteetan eta postu horiek ordezkatuko dituztenak miseria gorrian etorriko dira. Eskualdez eskualde bai, baina plangintza orekatua egin behar dugu.

Joseba Egibar: Argi dago gure ekonomiaren motorretako bat industria dela. Garai bateko pisurik ez du, baina gure ekonomiak hazkunde bidea hartzen badu horrek orekatua eta sendoa izan behar du. Ez gaur egun sortzen

diren enplegu gehienek duten prekarietatearekin. Berrikuntza, ikerketa eta gai guztiek bultzada behar dute. Bestalde, gizarte babes politika guztiak ere bultzatu behar dira. Gizarte orekatua eraiki behar dugu. Hazkunde ekonomikoak industriaren eskutik, eta baita beste sektoreen aldetik ere. **Julen Bollain:** Industriari eta ekonomiari orokorrean garrantzia ematen diogu. Ikerketan eta berrikuntzan gehiago egin behar dugu. Inbertsioan, %1,94tik %3ra pasatu nahi dugu. Trantsizio energetiko bat ere behar dugu. Energia efizientzian bultzada bat eman behar dugu. Kalitateko enpleguak sortu nahi ditugu, eta

hori sektore ezberdinetan egin behar dugu. Merkatu globalean lehiatu nahi dugu, baina kalitatearekin, ez soilik prezioarekin. **Eneko Andueza:** Bakoitzak formula ezberdinak ditu, baina ados jar gaitzke industriaren garrantzian. Baita gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasuna soldatetan, hor dezente dugu egiteko. Eskualde askok krisia gogor jaso dute. Eskualde horiei garrantzia ematea ezinbestekoa da eta plan bereziak martxan jarri behar dira. Nazioarteko bilakatzeari, ikerketari... garrantzia ematea ondo dago, baina eskualdeko plan horiei garrantzia eman behar diegu.

Juana Bengoetxea: Dugun arazorik handiena mundua azkar aldatzen doala da. Epe luzera begiratzea bi urtera begiratzea da. Baita industriaren bizitzan ere. Formazioan jarri behar dugu benetan gure indarra. Edozein enplegarako jende oso formatua behar dugu. Dugun drama da jendeak ez duela oso prestakuntza ona. Politikariek enplegua sortzen bakarrik laguntzen dugu. Gure iritziz, oso garrantzitsua da trabak kentzea. Ez du behar izan zaila enpresa batendako haztea. **Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa dira aurreratuenak gizarte politikan. Batzuek, hala ere, atzera egin dugula uste dute eta beste batzuk kritiko dira diru-sarrerak bermatzeko errentak (RGI) etorkinak erakartzen dituelako. Zer uste duzue?**

P.U.: Batzuetan ematen du erkidego hau oasi batean dagoela, pobreziatik kanpo, dena ondo doala... Pobrezia erreala herrialde honetan ere badago. Haur eta nerabeen kasuan, pobrezia errearen kasuak bikoizten ari dira. Beraientzako proiektu konkretu bat egin behar dugu. Zerga politikak aldatzeko aukera ere bada. Diru gehiago lortzeko aukera bada. Erkidego honek zorra kudeatzeko gaitasun ekonomikoa

ESANAK

"Erabakitze eskubidea errealitatera pasatzea planteatzen dugu adostutako bide-orri batekin"

PELLO URIZAR | EH BILDU

"Ekonomiaren hazkundeak orekatua eta sendoa izan beharko du, prekarietaterik gabe"

JOSEBA EGIBAR | EAJ

"Erabakitze eskubideak hor egon behar du, ez bakarrik lurraldeena, baizik eta ekonomikoa..."

JULEN BOLLAIN | ELKARREKIN PODEMOS

"Krisia gogorren jaso duten eskualdeetan plan bereziak martxan jartzea ezinbestekoa da"

ENEKO ANDUEZA | PSE-EE

"Egonkortasuna nahi dugu; gauzak etorkizunari begira lantzea, ez iraganari begira jartzea"

JUANA BENGOETXEA | PP



Mahaikideak, begirada baten



PELLO URIZAR
EH BILDU

EH Bilduko Gipuzkoako zerrendetan bigarren joango da Pello Urizar (Arrasate, 1968). Elektronika eta Informatika Ingeniaritza ikasketak egin ditu. 1996tik 1998ra Gazte Abertzaleetako idazkari nagusia izan zen. Gipuzkoako Lurralde Batzorde Eragileko kide izan zen 2000tik 2009ra bitartean, eta 2007ko hauteskundeetan zinegotzia izan zen bere herrian, Arrasaten. 1995tik 1997ra bitartean ere bete zuen kargua Arrasateko Udalean. Hamargarren legegintzaldian (2012ko abendua) legebiltzarkide izan da Eusko Legebiltzarrean. Gainera, Eusko Alkartasuneko presidentea da 2009a ezkerero.



JOSEBA EGIBAR
EAJ

Gipuzkoako zerrendaburu izango da Joseba Egibar jeltzalea (Andoain, 1959). Lanbidez, Herri Administrazioako funtzionarioa da, eszedentzia egoeran. 16 urte zituela afiliatu zen Eusko Alderdi Jeltzalean eta EGI n eta ordutik aktiboki ibili da politikan. 27 urte zituela aukeratu zuten GBBko presidente. Eusko Jauriaritzako Gipuzkoako Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Kulturako ordezkaritza izan zen 1985-1989 legealdian. Gaur egun, Gipuzko Buru Batzarreko presidentea, EBBko kidea da, eta 2012-2016 legealdian Eusko Alderdi Jeltzalearen bozeramailea izan da Eusko Legebiltzarrean.



JULEN BOLLAIN
ELKARREKIN PODEMOS

Elkarrekin Podemos alderditik Gipuzkoako zerrendan bigarren doa Julen Bollain, (Eibar, 1990). 26 urteko eibartarrak bi urte daromatza alderdi morean, eta jada Podemos-Ahal Dugu Eibarko idazkari nagusia izateaz gain, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziaduna da. Urtebete Belgikan ikasi zuen eibartarrak Facultes Universitaires Saint-Louis (Brusela) unibertsitatean. Gainera, nazioarteko kudeaketan eta nazioarteko harremanetan masterra burutu zuen Ingalaterran (Oxford). Gaur egun, baldintzarik gabeko errenta basikoaren inguruan doktoretza egiten ari da EHU.



ENEKO ANDUEZA
PSE-EE

PSE-EEko Gipuzkoako zerrendan bigarren joango da Eneko Andueza (Eibar, 1979). Politika Zientzietan eta Administrazioan lizentziaduna da (EHU). 17 urte zituela afiliatu zen Alderdi Sozialistara (Euskadiko Ezkerraren Gazteak, 31 urte bete zituen arte), eta egun, Gipuzkoako Batzar Nagusietan Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldeko bozeramailea da, Eibarko PSEko idazkari nagusia izateaz gain. 2008tik 2016ko martxora arte, Eibarko Udalean zinegotzi izan zen, eta alkateorde kargua ere izan zuen. Ordiziako Udalean zinegotzi izan zen, bertako alderdikide batzuen tokia betetzeko asmoz.



JUANA BENGOETXEA
PP

PPko Gipuzkoako zerrendetan bigarren tokian azalduko da Juana Bengoetxea irundarra (Bilbo, 1955), Borja Sempere atzetik. Dallasko Arlington Unibertsitatean (Texas) Historia eta Filosofia ikasketak burutu zituen. Politikagintzan egin duen ibilbideari dagokionez, 1999tik hona Irungo Udaleko zinegotzia da, eta 2005 eta 2007. urteen artean Kirol arduraduna izan zen, udal berean. 2009tik hona, gainera, Alderdi Popularreko bozeramailea da Irungo Udalean. Urte asko politikan eman arren, lehenengo aldiz aurkeztuko da Juana Bengoetxea Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetara.

badu. Aurrekontuak bi atal ditu, gastuak eta sarrerak, eta sarrera berriak lortu behar ditugu.

J.E.: Herria eraiki nahi dugu, baina ez nolana. Gizarte orekatua. Gastu soziala pertsonengan inbertitzen ari gara. Europarekin alderatuz, 6 estatu ditugu aurretik, gizarte ezberdintasun taula neurtzen duen horretan. Osatuta dugun sistema hori denboran mantentzea nahi badugu, ez dezaugun zorrarekin finantzatu. Errekurtso propioak ere sortu behar ditugu. Sistemak porrot egiten badu, hurrengo belaunaldiak ez du aukerarik izango.

J.Bo.: Babes soziala handitu behar da. Neurri zehatzak ditugu, pertsonetara joan nahi dugu eta ez familietara. Gestio hauek Lanbideetik ateratzea nahi dugu. Gaur egun RGIA jaso ahal duten %25ek ez dute jasotzen. Horregatik, individualizatu egin behar da. Beste organismo bat behar dugu horretarako. Gainera, Europar presio fiskala %39,5ekoa da eta Euskadin %31koa. Hor ere ibilbidea dugu. Gehien dutenek gehiago ordaintzeko, hain zuzen ere.

E.A.: RGIA eta Lanbideren papeira eskutik doaz. Lanbide langileen munduan edo enpleguaren munduan sartzeko bide bat izan behar du. Guretako sistema moldatu eta pixka bat berri behar da. Batzuetan, aitona-amonek euren pentsioekin familia osoa babesten dute. Iragan legealdian ekimenak aurkeztu ditugu, pobrezia energetikoari aurre egiteko, adibidez. Arazo berri horiei aurre egiteko malgutasuna behar dugu.

J.Be.: Pobrezia energetikorako dira larrialdiko laguntzak, adibidez. Lanbide lana aurkitzeko da. Zer lan aurkitu behar du alargun batek? Horrek Lanbideetik kanpo egon behar du. Lanbiden lana bilatu behar dute, baina osagarri bat eskatzeko ez dira denak Lanbiden nahastuta egon behar. Lan-

bide saturatuta dago, gainera.

Sozialistek diote euskaraz ez dakitena baztertua daudela Euskal Autonomia Erkidegoan euskal administrazioa heltzeko aukerei dagokionez. Hala uste duzue?

P.U.: Euskaraz, batzuetan, zerbait folklorikoa izan behar duela ematen du. Euskara administrazioaren lan munduan ehuneko ehunetan izan behar dugu. Euskaraz lan eta zerbitzu hizkuntza izatea nahi badugu, maila berean jarri behar dugu. Gaztelera ez dakienak ez du lekurik inon, adibidez. Garantia osoz izan behar du langileak gaitasuna ez bakarrik mostrodorean dagoenarekin hitz egiteko, baizik eta txosten bat jasotzeko...

J.E.: Urduritasunaren ondorio izan da PSEren bideo hori, nitxo baten bila. Niretako, mingarria da. Profil batzuk gorantz eta beste batzuk beherantz egokitu behar dira, hori denok diogu. Baina Idoia Mendiak adibidea jarri du. Esan du ea nola eskatuko ahal zaion hirugarren profila forentse bati. Madrilerak kirurgialaririk onena badoa eta gaztelera ez badaki ez du lekurik izango. Euskaldunon hizkuntza propioa euskara da.

J.Bo.: Azken urte hauetan hizkuntza politika alderdien arteko borroka izan da. Hizkuntza edo euskara eskubidea euskal gizarte osoarena da. Euskararen erabilera bultzatu nahi dugu. Administrazioa joanez gero, edonork erantzuna gaztelera eta euskaraz jasotzea nahi dugu. Nagusiei euskara ikasteko diru trabak kentzea nahi dugu. Pertsona batek ezin du trabarik eduki euskara ikasteko.

E.A.: Kasu batzuetan baietz uste dugu, eta hori berrikustea proposatzen dugu. Ez gara euskararen kontrakoak, ezta gutxiago ere. Bermatu egin nahi dugu, babesa eman nahi diogu. Baina administrazioa sartzeko profil

batzuk gehiegizkoak direla uste dugu. Postu batzuetako eskatzen den profila gehiegizkoa da. Horrek badu zentzurik? Hori berrikustea txarra al da?

J.Be.: Nire ustez, guk bi hizkuntza ditugu, euskara eta gaztelera. Biak dira propioak. Jendeak eskubidea du edozein hizkuntzatan hitz egiteko. Administrazioan, beti esan dugu jendea edozein hizkuntzatan atenditu behar dela. Hala ere, EGA ateratzea zaila da. Eskatzen ditugun profilak nola-koak diren begiratu behar dugu. Euskara maitatzea sustatzeko ezin dugu hizkuntza inposatu.

Inkestek asmatzen badute, Eusko Legebiltzarreko hiru alderdi nagusiak, EAJ, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos, erabakitzearen aldekoak izango dira Legebiltzar berrian. Horrek ze aldaketa ekar ditzake?

P.U.: Erabakitze eskubidea errealitatez pasatzea planteatzen dugu. Iraganeko egoera gogor batzuk bizi izan ditugu. Behin biolentzia gaindituta proiektu politiko guztiak legitimoak izango zirela entzun nuen nik. Demokrazian oinarrituta dagoen eskubide bat errealitate bilakatu nahi dugu. Bide-orri bat planteatu, herri akordio baten bidez. Testu artikulatu bat lortu, herritarrek hori berresteko aukera izan behar dute eta kontsulta egingo genuke.



Jakin badakigu Madrilen erantzuna zein izango den. Aurretik lotua, eta gizartearekin berretsia izan behar du.

J.E.: Estatus politiko hori gauzatze bidean autogobernua egokitu behar dugu. Barnean proiektu horrek politika publiko guztien ardura behar du. Jakina, abiapuntua erabakitze eskubidea da. Espainiako gobernuak ez du hitz egin nahi horri buruz. Gerta daiteke hara joatea eta gero hemen gelditzea edota urrutirago joatea. Aldebikotasuna behar da.

J.Bo.: Akordio sozial berri bat lortu behar dugu guztien artean. Kanadar ereduaren oinarrituta, adibidez. Gardentasun lege bat egin zuten, eta proiektu politiko guztiek bide legala izan behar dutela, eta demokraziaren gailur bakarra jendea dela. Erabakitze eskubidea hor egon behar da, ez bakarrik lurraldeena, baizik eta ekonomikoa... Alderdi guztiekin adostu nahi dugu guk.

E.A.: Espainian dugun arazoa potoloa dela uste dugu. Arazo horri aurre egiteko adostasun zabalak behar ditugu. Eredu zaharkitua dugu, eta Konstituzioa zahartuta dago. Konstituzioa moldatzea dugu, beraz. Sakabanaketara heldu aurretik, adostasun batera heltzea nahiago dut. EH Bilduk eskaintzen duena, adibidez, legez kanpo dago. Borondatea ez da bakarrik alde bateko gauza, baizik eta denon arteko gauza bat lortzea.

J.Be.: Abertzaleak zarete eta uleretzen zaituztet. Hau Espainia ez balitz moduan ibiltzen zarete, eta gu espainiarrak gara. Euskaldunak, espainiarrak, europarrak eta munduko hiritarrak gara. Independentziarekin bakardadera joango gara. Hori izango da helburua.

EAJk gutxiengoan gobernatu du azkeneko bost urteotan sozialisten

laguntzarekin. Aurreikusten duzue hitzarmen hori berrestea hauteskunde ostean? Eta Otegi egindako eskaintza EAJrekin eta Elkarrekin Podemosekin hitzartzeko?

P.U.: Guk argi dugu. Eskaintza zabal bat egin diegu EAJri eta Podemosi, legealdi honetan aurrerapausoak eman behar direla uste dugulako. Akordio zabal bezala aurrera egiteko. Gehiengo sendo bat behar dugu, burujabetza aurrera egiteko, benetako bake eta bizikidetzara lortzeko, murrizketei aurre egiteko...

J.E.: Hiru zutabe nagusi jarriko ditugu mahaian: enplegua, gizarte babes sistema hitzartzea eta herri honen estatu politiko berria. Horien inguruko sintonia eta identifikazioa badago jarriko gara ados. Kanpaina egiten diren proposamenak ez dira normalean hain serioak izaten. Konkrezioetara jaisten garenean ikusiko dugu.

J.Bo.: Gure koalizioaren barnean demokratikoak gara eta edozein paktu eginez gero koalizioaren barruan dauden guztiek bozkatuko lukete. Otegi egindako proposamena nahiko harrigarria egiten zaigu. Akordio bat erabakitze eskubidean soilik oinarrituta egitea... Nahiko harrigarria egiten zaigu paktu hori orain mahai gainean jartzea.

E.A.: Guk ez dugu izan gobernuarekin eta oposizioarekin akordioetara heltzeko arazorik. Guztiekin jesartzeko, eta programaren arabera adostasunetara heltzeko aukera izango dugu.

J.Be.: Enplegua da gure lehen tasuna, eta enpleguari buruz hitz egin nahi dutenekin hitz egingo dugu. Guretzat, oso zaila da gobernu bat mantentzea Kataluniako egoera baten bezala bukatu nahi dutenekin. Egonkortasuna nahi dugu, gauzak etorkizunari begira jartzea, ez iraganari begira jartzea.

50.400 debagoiendar daude deituta etzi botoa ematera

EAE n 3.000 pertsona baino gehiago ibiliko dira boto-zenbaketa biltzeko eta hedatzeko lantaldean

JOKIN BEREZIARTUA | DEBAGOIENA
Azken urte eta erdian laugarren aldiz, erakunde publiko bateko ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Orain-

goan, Eusko Legebiltzarra osatuko duten 75 legebiltzarkideak aukeratzeko emango da botoa etzi, hilak 25, eta horretara daude deituta 1.778.776 herritar. Debagoieneko kasuan (Aramaio

barne), 50.400 herritar izango dira domekan botoa emateko eskubidea izango dutenak.

Emaitzen bilketa eta hedapena
Hauteskunde egun batek dakarren lanaren adierazle, Segurtasun Sailak 3.000 pertsona baino gehiagoko taldea gertu du Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako boto-zenbaketa biltzeko eta hedatzeko. Emaitzak Aurkezteko Zentro Ofizialak egingo ditu publiko datuak, Gasteizen dagoen Lehendakartzaren egoitzatik; hala ere, zenbatutako botoen ehunekoa

adierazgarria denean eta hiru lurralde ofizialetan orekatua denean emango zaio hasiera datuen hedapen publikoari. Estefania Beltran de Heredia Segurtasun sailburua arduratuko da zenbatu diren lehen botoen datuak eskaintzeaz. Une horretatik aurrera, boto-zenbaketa eta botoen eta eserleku-banaketaaren informazioa zabalik egingo da eta etengabe eguneratuko da emaitzen %100era iritsi arte. Sistemak "bermerik handiena" eskaintzen du emaitzen berri modu arin eta fidagarrian jakinarazteko.

Goienak, uneoroko jarraipena
Goizean goizetik *Goiena.eus*-ek uneoroko jarraipena egingo dio hauteskunde egunari eta Goiena telebistan saio berezia egingo da 19:45ean hasita, analista politikoekin eta alderdi politiko ezberdinetako ordezkarien balorazioekin. Kanpainaren azken astean, alderdi politiko ezberdinetako ordezkariak azken egunak aprobetxatu dituzte euren programak herritarrei azaldu eta euren botoa eskatzeko. Jarraian daude eskualdean egon diren ekitaldi horietako batzuen kronikak.

Otegi: "Independentismoaren gorakada dator hauteskundeotan"

EH Bilduren, EAJren eta Elkarrekin Podemosen arteko itun estrategikoa eskatu du

J.B. | BERGARA
EH Bilduren Bergarako mitinean Arnaldo Otegi lehendakariak hauteskunde osterako bi soluzio "argi" daudela esan zuen: "Bata da EH Bilduren, EAJren eta Elkarrekin Podemosen arteko itun estrategikoa bat, langabeziari eta erbesteratze ekonomikoari aurre egiteko, politika sozial aurrerakoiak bultzatzeko eta hiru herrialde hauek murrizketa sozia-

lik gabekoak izateko. Bigarren aukera, berriz, bizikleta estatikoan jarraitzea da. Gauzak ez konpontzea, hau da, EAJrena, PSE-EE-rena eta PPrena".

Hauteskunde hauetan independentismoaren gorakada datorrela esan zuen, unionisten porrotarekin batera. Horrez gain, EAJ-ri ohartarazi zion herriak baduela eskubidea botoa ematera joan aurretik jakiteko zein gehien-

goren alde egingo duten jeltzaleek: "Exijentzia demokratikoa bat da hori lehenik jakitea". Elkarrekin Podemosi, berriz, esan zien gezurrik ez esateko: "Estatuarekin erreferendum paktatu bat posible dela esaten duenak badaki gezurretan ari dela. Eta hau ez dugu inori aurre egiteko asmoz esaten, baizik eta uste dugulako, nazio bat eraiki nahi bada, diagnostikoak ongi egin behar direla".



Arnaldo Otegi berbetan, Bergarako mitinean. | ENENKO AZURMENDI

Bestalde, Rebeka Ubera legebiltzarkideak konpromisoa berretsi zuen, Debagoieneko ospitalearen "egoera kezkarria" dela-eta,

kalitatezko osasun arretaren alde lan egiteko. Gainera, koalizioak kanpainako agur mitina egin zuen atzo Seber Altube plazan.

Elkarrekin Podemosek bat egin du Ordainduren auziarekin



Elkarrekin Podemos eta Ordainduko ordezkariak. | MAIDER ARREGI

XABI GOROSTIDI | ARRASATE
Elkarrekin Podemos koalizioa Ordaindu eta Eskuratu plataformetako eragileekin batu zen asteazkenean, Arrasaten.

Bertan, alderdi moreko ordezkariak Ordainduk Mondragon Taldearen daukan auzia Eusko Legebiltzarrerara eramateko konpromisoa hartu zuten. "Konpromisoa daukagu Ordainduk azaldu digun arazoa gizarteari zabalteko eta jakinarazteko. Gaia aurrez ondo hausnartu eta landu ostean, Parlamentuan gai honekiko mozio bat aurkezteko konpromisoa daukagu", azaldu zuen Amaia Arkotxa Gipuzkoako zerrendako laugarren hautagaiak.

Ordaindu plataformako bozeramaile Mikel Olabe pozik azaldu zen lortutako akordioarekin eta hauteskundeak amaitzean gainontzeko alderdiekin elkartuko direla adierazi zuen.

Rafaela Romero: "Jendearen kezka entzun eta horiek konpontzeko lan egingo dugu"

X.G. | ARRASATE
Asteazken arratsaldean Rafaela Romero eta beste alderdikide batzuk Arrasateko San Andres auzoan izan ziren arrosak banatzen eta alderdi sozialistaren helburuak helarazten. "Bada garaia lehen aldiz ema-

kumezko lehendakari bat izateko, eta konfiantza osoa daukat Idoia Mendiarengan", adierazi zuen Romerok. Atzo ere arrosak banatzen eta Alderdi Sozialistaren programaren berri ematen ibili ziren Bergaran, San Martin plazan eta Matxiategin.



Rafaela Romero, San Andres auzoan arrosak banatzen. | MAITE TXINTXURRETA

elejalde
COLCHONERÍA
VITORIA - GASTEIZ
Etor zaitez!

Parkeak, sehaskak,
ume-kotxeak...
Merkatuko marka
nagusien bermearekin.


%50 eko
deskontua **FLEX** koltxoietan!



Asteleheneetik ostiralera: **10:00-13:30** / **16:30-20:00**
Zapatuetan: **10:00-13:30** (zapatu arratsaldeetan itxita)
www.colchonerieelejalde.com

UMETXOAREN HAMABOSTALDIA
Irailaren 30etik aurrera

%20 rainoko
deskontuak!



Domingo Beltran 33 Tel.: 945 242 297 Benito Ginea 1 Tel.: 945 287 667 Panama 7 Tel.: 945 267 314 Florida 43 Tel.: 945 279 085 Donostia 64 (Lakua) Tel.: 945 179 912

Olatz Sanz | Argitu akademiako irakaslea

"Ikasleei etxean ere laguntzeko teknologia berriak erabiltzen ditugu"

Ingelesa, euskara eta gaztelera erakusteaz gainera, Lehen Hezkuntzatik Batxilergora bitarteko edozein irakasgaitako errefortzu eskolak, ikasteko teknikak eta beste erakusten dituzte Bergarako Argitu akademian

Olatz Sanz (Bergara, 1990) Argitu akademiako irakaslea da; bi karreraditu: Haur Hezkuntzako diplomaturara eta Lehen Hezkuntzako gradua ingeleseko espezialitatean. Eta zortzi urteko eskarmentua irakasle lanetan: zortzi eskola partikularrik ematen eta bi ingeleseko hainbat akademiatan, umeei, gazteei zein helduei ingelese irakasten. 2014an Argitu akademia zabaldu zuen eta iazko ikasturtetik buru-belarri dihardu bertan irakasle.

Zer ikas daiteke Argitu akademian? Ingelesa, euskara eta gaztelania. Ez dago adin mugarik, haur, gazte zein helduendako. Adibidez, bi urteko umeei eman izan diet eskolak. Bestalde, laguntza eskolak ere ematen dira. Denetik, Lehen Hezkuntzatik hasi eta Batxilergora arte, edozein irakasgai. Gizarte Zientzietako Batxilergoa ere ematen da. Zientzietarako, berriz, ez dago ikasle askorik eta ez dugu irakaslerik, baina, beharra sortuko balitz, hartuko genuke irakaslea.

Horrez gainera, zela ikasi ere erakusten duzue, ezta?

Bai, nahi duguna da ikaslea autonomoa izatea. Horretarako, ikasketa teknikak, zela antolatu materiala, apunteak zela hartu, azterketetarako zela ikasi... erakusten dugu. Antzeman nuen hutsunea zegoela; teoria asko erakusten dela, baina zela antolatu, zela ikasi... ez dela erakusten. Eta etortzen ziren ikasle gehienen artean arazo handiena horixe zela, orokorrean. Horrenbestez, horretan ere lagundu egiten dugu. Ikasketa teknikarik izan ezean, batzuk erakutsi eta gero bakoitzak bere erara moldatzen ditu. Eta ikusita norberaren beharrak edo erraztasunak, ezaugarri horien arabera bideratzen ditugu tek-



Olatz Sanz, Argitu akademian.

nikak; adibidez, norbait ona bada marrazten, orri bat idatzi beharrean, akaso marrazki batekin hobeto ikasiko du, eta hori bideratzen dugu. Bestalde, ikasleren batek hiperaktibitatea, dislexia, arreta-defizita... izanez gero, euren zailtasun horri laguntzeko teknikak ere erakusten ditugu.

Deigarria da Argitu akademian teknologia berriei ematen zaien garrantzia.

Bai. Batetik, ikasleak ezin dira egunero, orduro, etorri akademiara. Beraz, beharrezko ikusten nuen laguntza ematea akademian ez daudenean ere. Eta horretarako sortu genuen *wiki* bat; bertan daude bideo tutorialak, apun-

"Erakusten dugu, baita ere, zela ikasi, zela antolatu..."

teak, ariketak... eta materiala eguneratzen goaz. Adibidez, 3. DBHko ikasleak baldin baditugu eta *wiki*-an ez badugu aurten lantzen dabilzan materiaren bat, ba hori gehitu egiten da.

Whatsapp ere erabiltzen duzu...

Oso tresna garrantzitsua da. Pentsa, ikasleak etxean lanak egiten daude eta zalantzaren bat sortzen zaie, ez dakite zela egin etxeko-lan hori, eta askotan, aitzakia horrekin, ez dute egiten. Ba hori egin beharrean, Whatsappetik bidal daiteke zalantza eta nik erantzun egiten diet. Horrekin batera, bloga ere badut. Eta hor hainbat informazio sartzten dut: hezkuntzako berriren bat edo hezkuntzarekin lotutako aplikazio interesgarriren bat mugikorrean jartzeko... Garrantzitsua da teknologia berriak erabiltzea, gaur egungo ikasle guztiak teknologia berrietan dabilzalako. Eta gure helburu nagusia da duten baliabide guztiakin eurak autonomo izatea,

zeren eta teknologia berriak eduki badituzte, baina horiek ez baldin badakite erabiltzen... web orriak aurkitzen, aplikazioak, edo Power Point bat erabili barik beste zer erabili ahal den... erakusten diet.

Akademian bertan zela egiten duzue lan?

Talde txikitik, ikasle guztiei beharrezko denbora eskaintzeko. 5-6 laguneko taldeak dira, asko jota. Eta taldean egon arren, bakoitzaren beharren arabera prestatzen dira eskolak. Pertsonalizatuak dira, bakoitzak behar desberdinak dituelako.

Bestalde, ikasleen ikastetxeko irakasleekin ere harremanetan egoten zarete, ezta?

"Ikasleak autonomoak izatea nahi dugu"

Bai, gehienetan ondo etortzen da komunikatzea eskolako irakasleekin, jakiteko ikastetxean zer ematen dabilzan, ikaslea zer moduz doan... partekatzeko. Ondo etortzen da irakasleekin batera lan egitea, besterik ez bada ere kontrako gauzak ez egiteko.

Zein da zuen ordutegia?

Ikasleen beharren arabera. Gainera, opor sasoiaren eta eskaeraren arabera, errefortzu zerbitzuak edo eskola intentsiboak ere eskaintzen ditugu. Bestalde, bagabilta aztertzen aukera irakasgai jakin bat emateko, Leinn ikasten dabilzan ikasle batzuen proiektutik abiatuta: ahozko aurkezpenak zela egin. Niri unibertsitatean irakatsi zidaten hori, eta uste dut oso garrantzitsua dela eta, berez, gabezia handia dagoela zentzu horretan. Harremanetan gabiltza Leinn-eko Koren izeneko ikasleen proiektua martxan jartzeko hemen.

Laster ate irekiak egingo dituzue, ezta?

Bai, datorren astean ate irekiak egingo ditugu, akademia eta haren eskaintza bertatik bertara ezagutu gura duen edozeinendako. Oraindik zehaztu gabe daude; hala ere, blogean zein Facebooken emango da horren berri.


Besterik nahi baduzu gaineratu...

Ba, esan nahiko nuke ingelesaren kasuan ez naizela notak ematearen aldekoa -beste irakasgaietan ez da notarik ematen-. Ez zait baliagarria pentsatzen notak ematea, eta horren ordez, egiten duguna da ikasleak bideoan grabatu, modu horretan ikusteko eta erakusteko zer ikasi duten, zein garapen izan duten... zertan ibili garan akademian. Eta ahalegintzen garela eskolak erakargarri egiten; hala, ahal den neurrian jolasekin, bideokin, muralak sortzen, proiektuka... lan egiten dugu.



IKASLEEN AUTONOMIA HELBURU

- ★ Ingelesa, euskara eta gaztelania
- ★ Ikasleen teknikak eta antolaketa
- ★ Laguntza eskolak



Arruriaga kalea 1, behea ★ Bergara ★ 688 66 55 13 ★ argituakademia@gmail.com

Bergaran izango den Kilometroak 2016ko egitaraua aurkeztu dute

Ikastolen jai handia urriaren 2an ospatuko da berrogeigarrenez

IMANOL BELOKI | BERGARA

Urriaren 2an ikastolen jaiaren 40. edizioa egingo da Bergaran. Jaiaren nondik norako guztiak azaldu dituzte Donostiako Ikastolen Etxean emandako prentsurrekoan. "Guztia prest dago Kilometroak 2016 arrakastatsua egiteko. 1.500 boluntariotik gora ibiliko dira lanean egun handian. Bost kilometroko zirkuitu urbanoa antolatu dute, bost gunetan banatuta, eta erabat irisgarria izango dena. Eta beste zirkuitu alternatibo bat ere bai, Bergara goitik ezagutzeko aukera emango duena", adierazi zuen Ekaitz Aranberrik, Kilometroak 2016ko koordinatzaileak.

Hiru sarrera izango ditu zirkuituak: bi muturretan, Labegaraian eta Matxiategin, eta beste bat autobus geltokian. "Guneak bost izango dira, herrigunean banatuta: ikastola, Espoloia, Labegaraia, Matxiategi eta Azoka. Berezia da Espoloi ondoko Arriuriaga parkea. Haurrekin egingako parte hartze prozesu baten bitartez, Blai-Blai prozesuaren bitartez, haurrek eurek diseinatu dute gunea".


Bost guneak janzteko, gainera, egitarau zabala eta askotarikoa prestatu dute antolatzaileek. Haur, gazte eta helduentzako, koadrilan nahiz familian gozatzeko eta egun hori errespetuz, aniztasunez eta berdintasunez disfrutatzea dei egin diete ikastolazale eta euskaltzale guztiei. Ikuskizun batzordeko kide Maite Fernandezek hau adierazi du: "Musikak hartzen du egitarauaren alderik handiena, baina dantzak eta bestelako adierazpen

artistikoak eta kirol erakustaldiak ere badaude. Musikari dagokionez: Sorkun, Anari, Anje Duhalde, Doctor Deseo (azken honek euskaraz den errepertorioa eskainiko du lehen aldiz) Matxiategin (4. gunean). Gaztetxoentzako, berriz: Emon, Ze Esatek!, Skaitean, Fan&Go, Oihan Vega...".

Horrez gain, Erronka ere jokatuko dute Gipuzkoako 24 ikastolako ordezkariak eta finala 17:00etan jokatuko da Labegaraian (3. gunean).



Kilometroak 2016ko aurkezpena. | KILOMETROAK



Juan Mari Zulaika, liburuarekin. | ENEKO AZURMENDI

'Bizitza bi aurrez aurre' liburuaren aurkezpena egin dute

Erregimen ezberdinen errepresioak jasan zituzten frantziskotar biren bizipenak batzen ditu lan honek

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

Bizitza bi aurrez aurre. Izenburu horixe du bi teologo frantziskotarren bizipenak batzen dituen liburuak. Juan Mari Zulaika idazle zarautzarrak aurkeztu du eta bera da protagonistetako bat, Miguel Angel Loredok kubatarrekin batera. Bien gorabeherak kontatzen ditu liburuak.

Arantzazun ezagutu zuten elkar. Hala ere, haien bizitzak aldentu egin ziren, eta, aldentzeaz batera, istorio berdintsua bizi izan zuten biek, antagonikoak ziren bi erregimenen errepresioak jasan zituzten eta.

Loredori dagokionez, Fidel Castroren erregimen komunistak atxilotu zuen, gizon bat bahitzea

leporatuta. "15 urteko kartzela agindu zioten eta ia 10 bete zituen. Kartzelan sartu aurretik, 40 edo 60 egun igaro zituen torturatuta", zehaztu du Zulaikak.

Idazlearen esanetan, izen eta ospe handia zeukan Loredok Kuban eta estatuari ez zitzaion hori gustatzen. "Gainera, jende asko erakartzen zuen; gazteria, batez ere. Liturgia berria eraman zuen. Izan ere, hemendik oso ondo prestatuta joan zen, ikusmira berriarekin. Horregatik, uste dut Elizari hegoak ebaki nahi izan zizkiola bertako erregimenak", azpimarratu du.

Espainiako Estatuan, berriz, Francoren errepresioa nagusitu zen urte haietan. Zulaika bera Zamorako Konkordatu Espetxean egon zen preso, hainbat alditan: "Frankismoaren azken 15 urteetan erresistentzia indartzen joan zen. Ez bakarrik kalean edota langile mugimenduan. Elizak berak ere enfrentamendu gogorrak izan zituen estatuarekin".

Nazioarteko laguntza

Biek ala biek Nazio Batuen Erakundera eta Genevako Giza Eskubideen Komisioarengana jo behar izan dute, bata Kubako preso politikoen bozeramaile eta bestea, berriz, Francoren krimenen salatzaille, Argentinaren kereilaren bitartez.

Salgai

Arantzazun, Arrasateko Eroskin eta Ttukun dendan egongo da, 10 eurotan.

'Primeran pasa, pasa gabe!'

Bestalde, *Primeran pasa, pasa gabe!* leloa erabiliko dute Aranzadi Ikastolakoek, alkoholodun edarien neurrizko kontsumo arduratsua bultzatu guran; hori babesteko, herriko ostalarietara batera kanpaina landu dute, alkoholodunen banaketa arduratsua gainean. Eta beste lelo bat ere erabiliko dute: *Jaiak aske bizi eta gozatu*. Aitziber Lopez de Aretxaga Kilometroak 2016ko arduradunaren esanetan: "Gurean ere eraso sexistak edo kontsumo larregiko arriskutsuak saihesten laguntzeko hainbat prebentzio lan egiten gabilta urteetan...".

Zerbitzu publikoak indartu

Bertratzeko zerbitzu publikoak erabiltzeko gomendatu dute antolatzaileek, gogora ekarriaz, lineako autobus zerbitzuak indartu egingo dituztela egun hori begira; eta iragarri dute, bestalde, AMPO enpresari esker, bizikleta aparkalekuak jarriko dituztela, modu horretan, bidegorri sarea baliatuta, inguruko herritarrei bizikletaz joateko aukera emateko. Gogora ekarri dute, baita ere, urriaren 2ko jaia bi urteurren esanguratsuren baitan ospatuko dutela. Batetik, Aranzadi ikastolaren 45. urteurrenean, eta bestetik, Gipuzkoako Ikastolen Jaiaren 40. edizioan. Azken hori baliatuta, gainera, jaiaren hausnarketa abiarazi dutela, jaia berrasmateza helburu duena. Egitarau osoa goiena.eus-en ikusgai.

Gripearen kanpaina indartzeko saio informatiboa

I.B | OÑATI

Urtero moduan, laster jarriko du martxan Eusko Jaurlaritzaren osasun departamentuak gripearen kontrako txertaketa-kanpaina. Aurrez indartu eta herritarrek dituzten zalantzak argitzeko asmoz, saio informatibo bat antolatu du Oñatiko osasun zentroak, irailaren 27rako, martitzenean, Oñatin.

Gripearen aurkako txertaketa saioa 17:00etan hasiko da Oñatiko kultura etxean, eta hizlaria Oihana Ezkurra Oñatiko osasun zentroko medikua izango da. Batez ere, 65 urtetik gorako nagusiei, Biri-ketako Gaixotasun Butxatzaile Kronikoa (BGBK) bezalako patologia kronikoa dutenei, kardiopatei, diabetikoei eta 65 urtetik beherako gaixotasun immunodeprimituei zuzenduta dago kanpaina.

Gripe ez kutsatzeko eta ondorioak saihesteko osasun neurri onena txertoa hartzea dela adieraziko dute. Osasun zentroak kanpaina indartuko du kolektibo honen parte diren herritar gehienei iristeko.

Errepresioa jasan zutenak omenduko dituzte astelehenean

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

Irailaren 26an, astelehena, 80 urte beteko dira Arrasate faxisten esku gelditu zenetik. Horren harira, garai hartan errepresioa jasan zuten debagoiendarrak omenduko dituzte egunean bertan, lore eskaintza eta kontzentrazioa eginda. Laubide plazako monolitoaren aurrean izango da hori, 19:00etan.

EH Bilduk egindako agerraldian esan zuenez, "1936ko irailaren 21etik 26ra bitarteko kolpe militar-faxistaren ondorioak ikaragarriak izan ziren Debagoiengan. Pertsona zibilak, emakumeak, abadeak eta gudarri milizianoak fusilatuta egin zituzten eta asko desagertuta

daude oraindik". Era berean, hauxe azpimarratu zuten: "Frankismoa eta euren oinordekoak estaltzen saiatu diren errealtateari buruzko egia azalertzeko jarraituko dugu eta errepresioaren ondorioz gertatu diren biktima guztiek jasan duten kaltea erreparatzeko eta dagoen aitorza gauzatzeko, eta justiziako trataera eman arte jarraituko dugu lanean".

Sasidemokrazia

Bestalde, hauxe ekarri zuten gogora: "Franco hiltzeak ez zuen ekarri berak ezarritako sistema politikoaren desagertzea". Eta "sasidemokrazia" batean bizi garelako gaineratu zuten.



Martitzenean Arrasaten egin zuten agerraldia. | MIREIA BIKUÑA

EAEko 38 udal euskaltegiak ordezkariek Bergaran daude gaur, curriculum bateratua aztertzen

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Datozen ikasturteetarako lan ildo nagusia finkatzea, udal euskaltegi guztiei norabide berean lan egiteko aukera emango diena. Halaber, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Mar-ko Bateratuarekin bat etorriko da". Helburu hori abiapuntu, aurreko ikasturtean Arrasateko eta Getxoko udal euskaltegiak irakasleek landutako curriculumaz aztertuko dute gaur, barikua, Euskal Autonomia Erkidegotik bertaratuko diren 38 udal euskaltegiak ordezkariek, Bergaran.

Curriculumaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira: "Euskaraz egitea da helburu nagusia, ez ikastea; ekintza

komunikatiboan oinarritutako prozesua da, egoera errealean; gizartearen beharretara egokitutakoa; erabiltzailea protagonista duena eta besteak beste, ikasleen autonomia sustatuko duena" (...) Azken 20 urteetako aldaketa nagusia horixe da, euskararen erabilerara bideratuko dela", azpimarratu du Kar- mele Agirregabiriak, Leintz udal euskaltegiko zuzendariak.

Urte askoan batera lanean

Elkarlanean oinarritutako langintzaren emaitza da hori guztia; eta Agirregabiriak adierazitako moduan, "Debagoieneko udal euskaltegiak urte askoan" dabilta elkarlanean eta hala segituko dute.



Iñigo Uzin hitzaldia ospakizun ekitaldiaren baitan. | XABI GOROSTIDI

Alecop kooperatiba: 50 urtez ikasleei lan-esparruan murgiltzen laguntzen

- ▶ Arrasateko taldeak ospakizun ekitaldia egin du
- ▶ Sortu zenetik 13.000 ikasle pasa dira bertatik

X.G./M.T. | ARRASATE

Sortu zenetik mendi erdi pasa dela ospatzeko ekitaldi berezia egin zuten eguaztenean Arrasateko Alecop kooperatibako kideek. Bertan izan ziren Iñigo Uzin, Mondragon Korporazioko zuzendaria eta Angel Toña, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua, besteak beste. Atzera begiratua egiteaz gain, etorkizunerako erronkak izan zituzten hizpide Garaia Berrikuntza Gunean burutu zuten ekitaldian.

Alecop kooperatibak ikasleei lana eta ikasketak uztartzeko aukera ematen die. Jose Maria Arizmendiarririk berak sortu zuen duela 50 urte. Bere helburua gazteei lan-esparruan sartzeko lehen aukera bat ematea izan zen, eta lana eta ikasketak uztartzeko aukera ematen die ikasleei. 60ko hamarkadatik gaur egunera arte, 13.000 pertsona baino gehiago pasa dira bertatik.

Alecopen lana eta ikasketak aldi berean jorratzeko errealitate izaten jarraitzen du. 150 enpresarekin dihardu elkarlanean; horietako 120 kooperatibak dira, eta urtero 250 ikasle pasatzen dira bertatik. Ikasleok arlo desberdinetan lan egiten dute.

Gaur egungo jarduna

Hala ere, gaur egungo Alecopen jarduna sorrerakoa baino askoz zabalagoa da. Formakuntza zerbitzuak, aurrefabrikatutako instalazio elektrikoeko ekoizpena, ekipamendu didaktikoaren diseinua

eta ekoizpena eta Mondragon Educacion Internacionalen bitartez atzerriko hezkuntza zentroen kudeaketa dira egun kooperatibak dituen negozio esparruak.

Hain zuzen, azkenengo urteotan hizkuntzan eta formakuntzan "zentratu" direla aipatu du Kepa Bergarak, gaur egun Alecopeko presidentea denak: "Hori izango da, gure ustez, linea bat non Alecopen ekarpen handiak egin ditza-keen eta lan asko egin ahal izango duen", adierazi du Kepa Bergara zuzendariak.

13.000 pertsona

Kopuru mardula, duda barik, eta, hain zuzen, pertsona horiengan jarri nahi izan du fokua Kepa Bergarak: "13.000 pertsona bazkideak izan direnak, ikasi dutenak zer den kooperatiba batean lan egitea; hori gero enpresek eskertu egiten digute".

Ekitaldi jendetsua

Garaia Berrikuntza Gunean egin- dako ospakizun ekitaldiari Alecopeko presidentea Kepa Bergarak eman zion hasiera, eta ondoren, Angel Toña Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak jarraitu zion. Jarraian, Alecopen ibilbidea erreparatu zuten ikus-entzunezko hunkigarri bat proiektatuz, eta, hura amaitzean, Huhezin doktorea den Eugenio Astigarragak *Ikasteko lan egin - Ikasi lan egin egiteko* diskurtsoa eskaini zuen.

Ekitaldia amaitzeko, Iñigo Uzin Mondragon Korporazioko

presidentea hartu zuen hitza, eta Alecopen izaera kooperatibo eredugarria nabarmendu zuen: "Nik uste dut Alecopen papera oso garrantzitsua dela. Alde batetik, ikasleei lan mundua ezagutzen ahalbidetuz, eta bestetik, balio kooperatiboak eza- gutzeko modu bat da. Zentzu horretan, oso garrantzitsua da guretzat. Alecopek ikasketen eta lan-esparruaren arteko tar- tea txikitzen du, eta gazteek lan-esparruan beraie ibilbidea hasteko aukera oso inportantea da". Horixe adierazi zuen Uzi- nek.

Garaia Berrikuntza Gune- ko aretoan jende ugari batu zen 50. urteurrena ospatzeko. Han izan ziren gaur egungo ikasleak, lehe- nago izandakoak edota Alecope- kin elkarlanean dabiltzan enpre- setako ordezkariek.



Debagoieneko udal euskaltegiak zuzendariak, Arrasaten. | GOIENA

Zabalik da Mintzapraktika egitasmoan izena emateko epea

U.M. | DEBAGOIENA

2016-2017 ikasturteko Mintzapraktika egitasmoak zabaltu du izenematea. Hala dei egin diete, "Euskal Herriko euskaltzale guztiei astean ordu betez beste pertsona batekin elkartu eta euskaraz aritzeko agendan tartetxo bat egiteko. Izan ere, urteetako esperientziak erakutsi du askok egunerokotasunean euskaraz bizitzeko saltoa eman dutela, bidelagun izan dituzten mintzalagunei esker", adierazi dute Euskaltzaleen Topagunetik.

Sei udalerritan

Debagoienari dagokionez, Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Elgetan, Eskoriatzan eta Oñatin daude mintzapraktika taldeak. Parte hartzeko baldintza bakar- rrek dira euskaraz komunika- tzeko gai izatea eta astean ordu- betez elkartzeko konpromisoa hartzea.

Izena emateko, berriz, tokian tokiko euskara elkarteetara, euskaltegiak edo udaletara jo daiteke; baita ere www.mintzalaguna.eus helbidera.

Forjaren gaineko jardunaldia egingo dute Miguel Altuna ikastetxean

Forjaren industriako problema- tika amankomunen analisia izenburua duen jardunaldia egingo dute irailaren 28an, eguaztana, Bergarako Miguel Altuna ikastetxean. Forja prozesuei lotutako problematika, simulazio numerikoarekin eta erremintekin nola akatsak ezabatu eta ekoiztu, erreminten iraupena, elastikotasun maila altua duten altzairuen erreperazio elastikoak eta beste aztertuko dute bertan.

Proiektu berritzaileen erakusketak zabaltu ditu ateak Arrasaten

Mondragon Unibertsitateko gazteen proiektuen panelak, prototipoak eta ikus-entzunez- ko erreportajeak erakusgai daude Garaian, irailaren 27ra arte. Kimu Berri ekintzailetasuna sustatzeko ekimena da erakusketaren antolatzailea. 50 proiektu daude ikusgai. Arrasate- tik Eskoriatzara -Ibarraun- dira- eramango dute erakus- keta irailaren 28an, eta handik Oñatiko Enpresagintza fakul- tatera, urriaren 10ean.



-Zaharberritzeak
-Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa
-Ilogailuen proiektuak
-Barne dekorazioa
-Jarduera lizentziak

tel: 677 31 20 57
email: amaiigartua@gmail.com
www.aiarkitektura.wordpress.com
Oñati

ZABALIK

INIGO MURGIIONDO
goiena.eus/komunitatea/



Jolastuko gara?

A dos bazaude, har ezazu lapitza eta papertxo bat. Oso erraza izango da, ez izan zalantzarik. Minutu bat edo gutxiago besterik ez dizut kenduko. Ea bada, gertu? Ekin! Hasteko, eta beroketa modura, hiru kirolariren izen-abizenak idatzi. Izendatuak dituzu? Ederki. Segi ezazu hurrengo pausora. Oraingoan, hiru idazle zerrendatu beharko dituzu. Horretan ari zaren bitartean –eta entretenigarri izan dakizun, jolasak ludikotasuna tasun duenez–, txistukatu edo abestu idazlearen ostean lerratuko dituzun hiru abeslarien kantaren bat edo batzuk; hedonismoaren alde.

Gustura ari zara? Pozten naiz hala bada. Jolasa amaitzeko azken ariketa. Zerrendatu dituzun izen-abizenak gizonenak diren bakoitzean, zero zenbakia jarri beharko diozu aldamenean; eta emakumezkoak badira, berriz, bata. Ariketatxoa egindakoan, batu itzazu zenbakiok.

Izan duzun emaitza ezin izango dut ezagutu, ziur asko, baina zuk badakizu: hori da garrantzitsuena. Bederatzira asko hurbildu bazara, edo bete-betean jo baduzu, ariketa honen beharrik ez zeneukan, akaso. Izan ere, generoaren eraikuntzari buruzko gogoetak edota hausnarketak egina izango zara, eta ikuspegi eta jarrera kritikoak izango dituzu egunerokoan ikusten, entzuten eta igartzen dituzun jarreraren aurrean.

Baina ez bada horrela izan, eta uste baduzu kasualitate hutsa dela –horrek ez daukala garrantzirik, transzendenziazirik, arrazoiarik, eta abar–, pentsa ezazu orain pasa den udan zenbat pertsonak sufritu dituzten sexu erasoak. Horietatik guztietatik bederatzira gizonenak kontatzera iristen bazara, ni galtzaile.

Ni bakarrik aterako banintz galtzaile, gaitz erdi. Ez da, baina, horrela; izan ere, jendartea da, orokorrean, galtzailea: guzti-guztiok, hain zuzen. Horregatik, hurrengo batean horrelako ariketaren bat egiteko grina, nahia edo beharra duzunean, jantz itzazu betaurreko moreak jolasten hasi aurretik.

USTEAK USTE


AMAI TXINTXURRETA | atxintxurreta@goiena.eus

Txikitako oroitzapenak

Gogoratzen dut umea nintzanean nola Bergarara joan nintzen parte hartu behar nuen lehenengo Haur Dantzarien Eguna. Urduri nengoen, baina primeran akordatzen naiz bazkaltzeko nire lagun Maddi eta biok etxean hartu gintuen familia, perikitoa eta guzti zuten! Esperientzia oso politak bizi izan genituen euskal dantzei esker. Orain, orduko ikasle ugari irakasle lanetan dabilta eta pozgarria da domekan Oñatin 650 ume dantzari zein pozik elkartu ziren ikustea. Beste 150 lagun ibili ziren arduradun eta laguntzaile lanetan. Zorionak hori posible egin zenuten guztioi, euskal dantzak gure kulturaren parte izan daitezen lanean jarraitzen duzuen guztioi!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Ondasunak

Anjel Lertxundi
<https://goo.gl/QiTrmn>

Norberak norberarentzat osatutako historia bat, entziklopedia bat, hiztegi bat...

Schopenhauer ez zegoen ados filosofiako historiekin eta bere apeta intelektualekin araberako bat idatzi zuen.

Alberto Savinio idazlea oso zegoen nahigabetuta bere garaiko entziklopediekin, eta bat beretzat idatzi zuen, bere burua ordenatzeko.

Ambrose Biercek mundua zorrotz eta gupidagabe definitu zuen hiztegi bat zuen amets: *Deabruaren hiztegia* idatzi zuen, euskaraz dago.

Fernando Trueba zinegileak bere arte hobeto ulertu nahi, eta zineaz zekiena finkatu zuen idatziz: *Zinearen nire hiztegia* deitu zion.

Bere ondasun ekonomiko berri ematen hasi da hainbat politikari.

Batere gaizki ez ondasun intelektual pertsonalen berri emango balute ere beren neurriko ahaleginean.

Idatziz.

Nork bere idearioa argituz –ez alderdiko morroi batek maneatuta!– demokrazia, askatasuna, justizia, zerbitzuko lana bezalako kontzeptuez.

Berek ez lukete damurik, guk ere ez galerarik.

Gernika, dekoratu bat

Joxe Aranzabal
<https://goo.gl/j1NhD6>

Aurrekoan *Gernika* filma ikusi nuen, Koldo Serraren azken lana. Sentipen gazi-gozoekin irten nintzen Arriola zinema jendez betetik, Elorrioren.

Sentipen gaziak gehiago zirenez gozoak baino, haiekin hasiko naiz:

Gidoia eskasa iruditu zitzaidan: maitasun-triangelu bat komisario politiko errusiar bat, neska zentsore euskaldun bat eta kazetari estatubatuar baten artean, hirurak Eusko Jaurlaritzaren bulegoetan bueltaka.

Gernika dekoratu hutsa begitandu zitzaidan, aitzakia bat maitasun istorioaren askaera hantxe gerta zedin.

Drama lortze aldera seguruenik, gidoigileek izugarri bihurritu dute historia. Eusko Jaurlaritzaren komunikazio bulegoak ematen zuen Partidu komunistaren komisaldegia politikoa, han zentsore komunistek agintzen baitzuten, ez jeltzaleek edo sozialistek. 2. George Steer kazetari hegoafrikarra, Gernikako bonbardaketaren berri nazioartera zabaldu zuen lehena, erabat desitxuratua agertzen da; filmean gehiago ematen du Ernest Hemingway, Steer bera baino.

Frankismoaren erantzukizuna oso diluitua ageri zaigu. Pelikulako gaiztoak alemanak ziren, eta, batez ere, errusiarrak, zeinek sekulako izugarrikeriak egiten baitzituzten Bizkaian Stalinen izenean.

Bikoizketa. Ahots guztiak estudioetara ziren, erabat artifizialak. Nik geroz eta gutxiago eramaten ditut horrelakoak, iruditzen baitzait kalte handia egiten diotela pelikulari.

Eta gozotik zer? Bada gauza bakarria bonbardaketa zerutik ikusten denean, ikusgarria da, teknikoki ondo lortua. Besterik ez.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Ubane Madera

Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Oxel Arrieta.

Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Zortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

publi@goiena.eus

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.eus

Legu Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 18.850 ale

Difusioa: 18.507 ale

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK / HANDIK ETA HEMENDIK

Eskerrik asko,
Bergara!**Maite Agirre Iribar**

(Bergarako Udaleko Ondare, Kultura eta Jaietako zinegotzia)
Bergara

17 urte daramatzat San Martin bezperako nagusien danborradan irteten eta esan beharra daukat aurtengoa sinestezina izan dela, erabat emoziozkoa.

Parte-hartzea ikaragarria izan da, pasa den urtean baino 7 talde berri gehiago izan ditugu! Eguraldia, berriz, benetan txarra izan zen, baina horrek ez gintuen beldurtu eta denak han atera ginen, bandaren doinuekin eta euripean. Harro sentitzen naiz herriak izan duen erantzuna ikusita! Mila-mila esker hau posible egin duzuen guztioi: Lokatza, Birguerias eta Yankiwibat, Barrikak, Pizzeriakoak, San Lokal, Gazteak (Maidarren taldea), Zuloa, Gazteak (Amaiaren taldekoak), Urdinak, Lierniren taldeko gazteak, Aritzeta, San Joxepe, Danbarrara, KMK 2016, Artatse, Manexen lagun taldea, Lasai Toki, Rosaren barrika taldea, Valenen talde osoa eta

Bergarako Udal Musika Banda eta, nola ez, ikusten eta animatzen egon zineten guztiei eskerrrik asko! Zuek barik ezin izango genuen horrelako danborrada izan! Datorren urtean berriz elkar ikusiko dugu, espero giro hobearrekin. Gora San Martin jaiak!

Arantzazuko
harrobia**Jon Ugarte, Idoia Bollar, Joxe Ruiz eta Haizea Agirre**

(Oñatiko Naturzaliak taldearen izenean)
Oñati

Berriro agertu zaigu aspaldiko mamua: Arantzazuko harrobia handitzeko asmoa dago. Gaia ahaztuta zegoela uste genuen, azken urteetan harrobiaren martxa moteldu egin baita, baina batzuk ez daude lo.

Oraindik ezin izan dugu proiektua ikusi, baina harrobia Kortakogain (Atxuri) aldera zabaldu nahi dute, egungo azalera bikoiztuz eta Aloña-ziarra mendiari zati eder bat janez. Aloña-ziarra herri mendia da, hau da, oñatiarren mendia. Harrobia, berriz, proiektu pribatua.

Harrobiak beharrezkoak dira, baina, noski, kokalekuak ongi aukeratu behar dira. Eta ez dirudi Arantzazu ingurua horretarako tokirik aproposena denik. Harrobiak hainbat lanpostu mantentzen ditu, baina ingurumenean hainbat kalte eragiten ditu: eragin paisajistiko nabarmena, zarata, hautsa... eta bere zabalkundeak babestutako habitatan eta faunarengan eragingo luke.

Arantzazuko auzotarrak orain dela urte gutxi argi eta garbi agertu ziren harrobiaren aurka. Oraingoan ere ez badugu ahotsa altxatzen, harrobia handituko dute.

Bergarak musikari
fobia al dio?**Alayn Carazo**

Bergara

Duela ia 20 urte, *Made in Japan* izeneko musika album batekin topo egin nuen. Bertan *sol, la#, do* jotzen zuen distorsionatutako gitarra batekin ordura arte bizi ez nuen sentsazio ikaragarri bat sortu zidan. Abesti hori *Smoke on the water* da. Une hartatik gaur

egunera arte musika izan da nire *hobbie* nagusia eta nire bizitzako motorra. Kontzertu onak eta oso txarrak bizitzea tokatu zait, baina denetatik gordetzen dut nire burmuinean tokitxo bat.

Azkenengoa, The Riff Truckers Gernikako talde rockeroa ikustea tokatzen zen, sanmartinetako zapatuan txosnagunean. Asea jotzen zebilen, txosnagunea leporaino, herriko talde hasiberriarentzat intsulina txute bat. Hau bukatu, *Boga* bat eskatu eta aurreko ilaretara nire txokoa hartzera murgildu nintzen. Kontzertu indartsua, teknikoki oso fina eta *show* ikaragarriaz gozatu genuen lagun artean, baina... alboetara begiratu eta *deja vu* bat bizi izan nuen. Hutsune handiak, eta beti juntatzen garen lau eroak ikustean, orduan planteatu nuen... benetan rocka hilezkorra al da? Ez dago ezta kuriositerik txosnetatik pasatzeko talde honi aukera bat emateko?

Bergarar guztien etxeetan sartu eta Nirvana, Ramones eta tankera horretako kamisetak dituzten pertsonak bilduko banitu, Munibe plaza lehertu egingo genuke.

Noizbait nitaz
oroitzen ez
bazara...**Josune Azurmendi Telleria**

<https://goo.gl/xKXedc>

Zure sustraiak ditut nire barnean, haiei esker jaio nintzen, haiek eusten naute. [...]

Ez dakit zer egingo nukeen zure etxean sartzean zure usaina antzemango ez banu, zure betiko usain berezi hori. [...]

Ez dakit zer egingo nukeen zure aurpegiko zimurrek emandako aholku gehiagorik jasoko ez banu, munduan gerra piztuta ere zuk ematen didazun babesik izango ez banu. [...]


Ez dakit zer egingo nukeen nire otorduetako platera inork toperaino betetzeko nahirik izango ez balu, moduan begiratuko ez banindu, altxor baten pare ikusten dudana pertsona batek begiratu eta ezagutuko ez banindu.

Ez dakit zer egingo nukeen Alzheimerra izango balu.

Ez dakit zer egingo nukeen, baina noizbait nitaz oroitzen ez bazara gogoratu asko maite zaitudala. Eskerrrik asko guztiagatik.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Oñatiaren 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

Debagoieneko
GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzailak, sukaldeak.

- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

**EXCAVACIONES Y CONTRATAS
ARRASATE SL**

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa

- Berogailuak eta petrolio-produktuak

- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak

- Berokuntza eta gasa

- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza

- Ureztatze sistemak

- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

HERRIAK

Aizkorriko babeslekua erabilgarri mantentzeko auzolana domekan

- ▶ Goizeko zazpitan abiatuta, gunea txukuntzeko eta margotzeko igoko dira mendira
- ▶ Mendian korrika ibiltzen diren debagoiendar batzuek sortu da ekimena

MAITE TXINTXURRETA | OÑATI

Aizkorri mendi kuttuna da euskaldunendako, eta asko dira lan-tzean behin bertaraino igotzea gustuko duten debagoiendarak. Debagoiendar horien artean daude bertako babeslekua txukuntzeko auzolana antolatu duten mendiko korrikalariak.

Sare sozialetan eskegitako argazki batekin hasi zen guztia, eta beraiek espero baino gehiago zabaldu da. Argazkian ikusten zen gaur egun nola dagoen babeslekua barrutik, zikinkeriaz eta ahuntzen gorotzez beteta. "Dena dago zikin, arropak aldatzeko tokirik ere ez dago", azaldu du David Davilak, ekimenaren bultzatzaileetako batek.

Domekan, gora

Hori dela eta, domekan, hilak 25, babeslekua garbitzera igotzeko irteera antolatu dute, eta herritarrei dei egin diete parte hartu dezaten. 07:00etan elkartuko dira Arantzazun, Sindika inguruan, eta handik gorantz abiatuko dira. Materiala Urbiaraino autoz igoko dute, horretarako baimena lortu dute eta, baina handik gora eskuz eraman beharko dituzte palak, pintura poteak eta beharrezko gauza guztiak.

Norbaitek materiala lagatzen edota material hori eskuratzen diruz lagundu nahi badu ere, laguntza hori "ongietorria" izango dela adierazi du Jose Mari Anduaga bergararrak.

Auzolanera joateko edo beste-lako ekarpenen bat egiteko aizkorribizirik@hotmail.com-era idatzi

daiteke. 20 pertsona baino gehiago apuntatu dira dagoeneko. Oraingoan, gehienbat "garbitu eta margotu" egingo dutela azaldu dute. Horrez gain, baina, atearen kanpoaldean animaliak barrura ez pasatzeko dagoen burdinazko saretaren azpialdea hustu eta ondo jarriko dute, ahuntzak ez daitezen sartu.

Ate berri baten beharra

Babeslekuko atea egoera txarrean dago, "bere lekutik aterata". Hain zuzen, atea zabalik egoteak eragiten du ahuntzak bertara sartzea eta barrualdea zikintzea. Hori dela eta, atea aldatzeko beharra ikusten dute auzolanaren antolatzaileek.

Dagoeneko egin dute berba Zegamako Udalarekin, eta beraien laguntza eskaini diete arlo honetan. Dena den, hori beste egun batean egin beharko dute. Oñatiko Udalarekin ere jarri dira kontaktuan eta "laguntzeko asmoa" erakutsi diete.



Jose Mari Anduaga, Gaizka de Miguel, Andoni Fernandez eta David Davila, ekimenaren bultzatzaileak. | MAITE TXINTXURRETA



Atea apurtuta. | GAIZKA DE MIGUEL



Ahuntz gorotzez beteta. | GAIZKA DE MIGUEL



Aizkorriko babeslekua kanpoaldetik. | GAIZKA DE MIGUEL

Renault CAPTUR eta Renault KADJAR
Crossover Gama

Crossover Gama (Renault Kadjar eta Renault Captur): kontsumo mistoa (l/100km) 3,6 eta 5,8 bitartean. CO2-aren isurria (g/km) 95 eta 131 bitartean.

AUTOBERRI San Andres, 8. Tel. 943 71 24 72. ARRASATE - MONDRAGÓN



Bilboko Wallart Mural Painting enpresak egindako bost zirriborroak. | ARGAZKIAK: ARRASATEKO UDALA

Horma-irudi berrirako bost zirriboroen artean gustukoena erabakitzeke ordua

Gipuzkoa etorbideko murala aukeratzeko botoa eman daiteke domekara arte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Goiko bost proposamen horien artean aukeratu beharko dute arrasatearrek Gipuzkoa etorbideko mural berria. Botoa ema-

teko aukera dago BAZen bihar arte, irailak 24. Aldiz, Udalaren webgunean domekara arte, hilak 25, eman ahalko da botoa (www.arrasate.eus). Webgune horretan

aukera bakoitzaren gaineko xehetasunak ere aurki daitezke. Obra, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordeak proposatuta, Tokiko Gobernu Batzarrak maiatzaren

19an onartu zuen lanak Bilboko Wallart Mural Painting enpresari esleitzea, 15.125 eurotan (BEZa barne). Bilboko enpresa "aditua" da lan horietan. "Herriko artistekin kolaboratu nahi genuen, baina, hormaren egoera oso txarra denez, erabaki genuen konponbide integrala ematea; konpontzea aurretik eta edertzea ondoren", adierazi zuen lanak esleitu zirenean OZMA batzordeko buru Oscar Garciak.

Herriko muralisten lana

Albistea publiko egin eta gutxira, herriko muralista talde bat Udalarekin jarri zen harremanetan. "Lanak kanpoko enpresa batek egingo zituela enteratu ginenean Udalara jo genuen horma horretarako genituen proposamen batzuekin. Lanak esleituta zedula erantzun ziguten eta horma horretako irudi berria enpresa horrek egingo zuela. Hala ere, esan ziguten hurrengo proiektuetarako gurekin kontaktuko dutela", adierazi dio GOIENari muralista taldeko kide batek.

Era berean, Arrasateko EH Bilduko zinegotziek ere faltan igarri dituzte herriko muralisten proposamenak: "Badute curriculum, esperientzia eta eskubidea euren diseinuak kontuan hartzeko. Ederra litzateke enpresaren proposamenez gain herriko artisten proposamenak egotea BAZen, horma horretarako zerbait lantzen hasiak ziren eta. Oraingo prozesuan ezin bada, ea hurrengorako posible den".

Itxaropena eta Biteri plazak: parkeak biziberritzen

J.B. | ARRASATE

Biteriko haur parkea eta Uri-barriko Itxaropena plazakoa eraberritzeko proposamenak ikusgai daude Kulturateko klaustroan, irailaren 28ra arte. Guztira 65 proposamen jaso ditu Udalak; horietatik 60 dira 14 urteko umeek egindakoak eta bost helduenak.

Erakusketaren aurretik ideia lehiaketa abiatu zuen Udalak eta uztailean bitartean jaso ziren proposamen guztiak. Erakusketara amaitzen denean, berriz, hamar lagunez osatutako epaimahaiak aukeratu dituzte irabazleak. Udal teknikariak, zinegotziak, Herri Eskolako, Arizmendi Ikastolako eta Institutuko ordezkariak eta zozketa bidez hautatutako zenbait herritar egongo dira mahai horretan. Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: bideragarritasuna, faktore ekonomikoak zein teknikoak eta sorkuntza. Bigarren fase baten, batzorde tekniko batek hobekuntzak egingo ditu, betiere herritarren proposamenetatik abiatuta. Udalak eskerrak eman dizkie parte hartu dutenei.



INAUGURAZIOKO HARRERAGATIK
ESKERRIK ASKO!

[100]
eguzkitako betaurrekoen
zozketako irabazleei

datozen egunotan deituko diegu,
oparia jasotzera etor daitezten.

* zozketa gure bulego zentraletan egin da.

2 mō betaurreko
graduatu
erreflexuen aurkako
leiarrekin

97€

gama altuko
2 mō betaurreko
progresibo

197€

50 urte arrasatearren ikusmena zainduz

www.multioplicasgipuzkoa.com



Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95 • ARRASATE

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan

NIRE USTEZ

ITSASO
ERRETOLATZAHalabeharrez
ala beharrez

Gurpil aulkian doan emakumeari euri tantak hastearekin batera trabatu zaio gurpila. Zebra-bidea gurutzatzen amaitzeko, espaloira saltoa egitea bakarrik falta zaio. Agertu da mutikoa eta laguntza eskaini dio. Aterperaino bultzatu duenean, andreak nola esker-tu ez dakiela, hunkituta ordaintan txanpon bat agindu dio. Ez dela ezer esan eta jaso duen oparia handiagoa dela badakiela, etxeratu da irribarretsua mutikoa.

Beste batean, aitona zaharra lurrean, eta lagun bi ikusi ditu hura altxatzeko ezinean. Etorri berriaren indarra eta sasoia nahikoa izan da tentetzea lorpen bihurtzeko. Agurtzerakoan, belaunak dantzan, harriduraz torpe behatu duten gizona ezin bakarrik utzi eta etxeraino lagundu dute. Aitonak, gazteokin harro, eskua poltsikora eraman duenean, ez dela beharrezkoa erantzun eta pozarren itzuli dira lehengo bidetik. Bada bi pertsonengan ezintasunak, umiltasuna irakasgai izan dutenaren printza bat. Eta era berean, ondo eginaren zoriontasuna gazteengan.

Hurengoan, aldiz, lurrean aurkituko du mugikor bat gazteak, eta aldean eraman, biharamunean BAZen uzteko asmoz. Etxean dagoela, berehala lehenengo deia erantzun eta adostu du jabearekin trilogia halako lekuan. Azkar bertaratu da mutila etxetik, eta han aurkituko du, heldua bai baina ez ezindua. Baina, borondatezko esker on bat espero duenean, "a, eskerrik asko" xume batekin biratu da aparailuari so.

Ez du ulertu... tamalez ongia galduz, heldutasunera bidea egiten diharduela.

Joxefe Diaz de Tuesta | Arrasateko Udaleko Euskara teknikaria

"Astelehenean ez da inor egongo nire orde, egoera kezkarria da"

- ▶ Azken laneguna du gaur; kezkatuta dago, bere plaza ez omen delako beteko
- ▶ Euskara "gutxietsita" egotetik "lanerako tresna" izatera pasatu dela dio

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

1980ean sartu zen Joxefe Diaz de Tuesta (Gasteiz, 1953) Arrasateko udaletxean. Itzultzaile lanetan hasi zen eta Euskara teknikari aritu da lanean gaur arte. Gaur, egubakoitza, izango da haren azken laneguna.

Gogotsu zaude etapa berrirako?

Bai. Ez daukat asmo ikaragarriak. Ez naiz Txinara joango bizikletan edo ez naiz Japoniara argazkiak ateratzera joango. Argazkilaritzako proiektuekin jarraituko dut, etxetik gertu. Gauza txikiak.

Nola hasi zinen Udalean lanean?

Enpresa-ikasketak egin nituen eta garai hartan banuen aukera lanerako. Baina garbi nuen euskararen munduan nahi nuela lan egin. Batetik, aukera izan nuen AEKn hasteko, eta, bestetik, orduan irten zen Udalean itzultzaile postua. Hainbat urtez bi lanak tartekatu nituen. Euskararen munduan amaitu nuen nik nahi izan nuelako; gustura mugitzen naiz, ingikizun sozialaren, kulturalaren eta politikoaren balio erantsi horrek asko bete izan nau.



Diaz de Tuesta, Herriko Plazan, asteon. | JOKIN BEREZIARTUA

Ba al duzu bereziki nabarmenduko zenukeen oroitzenik?

Euskaratik bizi zitekeenik ez zuen inork pentsatzen. Akordatzen naiz udalbatzak itzultzaile plaza ateratzea onartu zuela oso bilkuran, zinegotzi baten ekimenez. Onartu zen, baina beste zinegotzi batek proposatu zuen lehenago galdetzea ea norbait prest egongo zen lan hori kobratu gabe egiteko. Beste zinegotziak erantzun zion administrari, arki-

tekto edo abokatu bat behar zenean ere berdina egingo zela. Biak ziren, teoriarik, alderdi abertzaleetako zinegotziak. Euskara gutxietsita zegoen. Bestalde, gobernu batzordera gai bat euskara hutsean eramatea iraultza izan zen. 25 urteren ostean, gaien %60 euskara hutsean lantzen dira.

Eta lorpeni dagokienez?

Arrasate Press martxan jarri izana. AED izan zen bultzatzailea, baina proiektua garatu zuen tal-

dean Udaleko bi teknikari geunden. Garai hartako korporazio asko inplikatu zen; hasieratik bagenekien proiektu estrategikoa zela, Arrasaten ondo irtetzen bazen zabaldu zitekeela. Eta halaxe izan zen. Sei hilabete baino gehiago iraungo zuenik ez genuen espero... Oso pozgarria da talde horretan parte hartu izana. Bestetik, euskara lanerako tresna moduan onartu da udaletxe barruan –orokorrean langileek lehenago barneratu zuten zinegotziek baino– eta hori ere lorpen handia da.

Kaleko erabilera nola ikusten duzu? Sentsazio gazi-gozoa. Gazia, dakitenek dakitenekin egiten ez dutelako. Eta ez naiz gazteek bakarrik ari; penagarria da. Baina egia da, aldi berean, duela 28 urtetik gaur egunera kaleko erabilera bikoiztu baino gehiago egin dela. Pozgarriena da euskaraz gehien egiten dutenak haurrak eta gazteak direla gaur egun. Baina, noski, oraindik lan handia dago egiteko.

Zer gertatuko da zure plazarekin?

Ez dakit Udalak zer egingo duen, zuzenean inork ez dit-eta ezer esan. Baina handik eta hemendik hainbat informazio iritsi zait, oso fidagarriak, agerian jartzen dutenak Udalak nire lanpostua betetzeko asmorik ez duela. Astelehenean ez da inor egongo nire partez, eta zerbitzua kili-kolo geldituko da; egoera kezkarria da. Eskerrak eman nahi dizkiet ardura erakutsi duten lankideei eta herritarrei; eta eskerrik asko animoengatik ere.

213.000 euro herriko 13 kale asfaltatzeko, orain arteko inbertsiorik potoloena

J.B. | ARRASATE

Udalak agintaldiko bigarren asfaltatze-plana sinatu du. 13 kale asfaltatuko dira –14.600 metro koadro–, bi fasetan. Lehen fasean, Nafarroa etorbidea, Araba etorbidea, San Andres, Maiatzaren Lehena plazako biribilgunea, Elkano kalea, Santa Teresa kalea, J.M. Eguren Plaza, Jose Luis Iñarra kalea eta Gipuzkoa etorbidea; bigarren

fasean, Markulete industrialdea, Araba etorbidea eta Elkano Kalea (kiroldegi ondoan). Orain arteko aurrekontu handieneko plana izango da; 213.000 eurotan adjudikatu zaizkio lanak Asfaltia SL enpresari. Errepideko zuloak eta bestelako hondatzeak osatuko eta konponduko dira. Lanek hilabete iraungo dutela espero dute, betiere, eguraldiak laguntzen badu.

OHARRAK

1951N JAIOTAKOAK

Urriaren 22an egingo dute ospakizuna. Aurten Burgosera joango

dira eta Medina del Pomarren egingo dute bazkaria. Izena emateko 70 euroko ordainketa egin beharko da honako kontu korronte zenbakian, izen-abizenak jarrita kontzeptu moduan: 3035 0001 53 0011163477 (Laboral Kutxa). Azken eguna: urriaren 16a.

1959AN JAIOTAKOAK

Urriaren 22an elkartuko dira Ferrerías kaleko Arotz plazan (11:00). Talde argazkia eta luntxa Goikobalun egingo dituzte eta ondoren autobusean joango dira bazkaltzera Santa Ana hotelera. Izena eman behar da urriaren 14a baino lehen; 60 euroko ordainketa egin behar da: 3035 0055 13 0551058101 (Laboral Kutxa). Kontzeptu moduan izen-abizenak jarri behar dira.

Europako gazte kooperatibisten jardunaldiak urriaren 4tik 6ra

J.B. | ARRASATE

Europako esperientzia kooperatiboak gazteen ikuspuntutik elkartrukatzeko. Horixe da *Europako Gazte Kooperatibisten Sarea* izeneko jardunaldien funtsa, orain arte kontinente zaharretako txoko ezberdinetan egin dena: "Ospatu dituzte Bolonian, Parisen, Bruselan... Boloniakoan egon ginenean planteatu genuen Arrasaten egitea hurrengo bilerara. Izan ere, gure herriak kooperatibarekin duen lotura oso sendoa da eta gazte kooperatiboez ari gara berbetan. Beraz, guretzako oso positiboa da horrelako ekitaldi bat hemen egitea", deritza Maria Ubarretxena alkateak. Urriaren 4tik 6ra etorriko dira 18 herrialde ezberdinetako 45

bat gazte, 25 eta 38 urte artekoak. Jardunaldiak Arrasatera ekartzeko ahalegin berezia egin dute TZBZ kooperatibakoek: "Hasieratik asko inplikatu ginen ekimen honetan. Arrasateko esperientzia kooperatiboak sekulako eragina izan du Euskal Herri osoan... Eta XXI. mendera ere egokitzen jakin duen eredu hau eredu hau Europa osora zabaldu gura dugu", dio TZBZ (Ta Ze Ba Ez) kooperatibako bazkide Joanes Rosok.

Udala auzoko Ingurumen Eskola izango dute lanerako gune; lanera datozelako, proiektuak eta esperientziak elkartrukatzera. Izan ere, batera egon izan direnean, asko ikasi dute elkarrekin.



Roso, Ubarretxena eta Agirre jardunaldien aurkezpenean. | J.B.

Zabaldu berria!

Chic
ESTILISTAK



Promozio baliagarria, jaiegun bezperetan eta abenduaren 20tik 31era izan ezik.

PROMOZIO BEREZIA

Astelehena: Gizonek eta umeek %10eko deskontua (moztea)
Astearte: Orraztea eta tratamendua 20 €€
Asteazkena: Metxak eta orraztea: 43 €
Osteguna: Ile-sustraiaren kolorea + orraztea 30 €€
Ostirala: Moztea eta orraztea 30 €€

65 urtetik gorakoentzako
%10eko deskontua

25 urterik beharokoentzako
%10eko deskontua

Astelehenetik asteazkenera: 09:30 – 16:00

Ostegunetan eta ostiraletan: 09:30 – 19:00 | Zapatuetan: 09:00 – 13:00

Tel.: 943 04 10 07 | Antso Abarka 6 | Zigarrola | Arrasate

Adur hertz klinika | Arrasate

"20 urte baino gehiagoko esperientzia dugu"

Bezeroaren beharretara egokitzen saiatzen gara beti Arrasateko Adur hertz klinikan eta astean birritan eguerdietan ere lan egiten dugu; martitzen eta eguenetan 10:00etatik 20:00etara dago zabalik

Arrasateko Adur hertz klinikak 20 urte baino gehiago daramatza zerbitzua eskaintzen.

Aitzindariak izan dira ahoko inplanteak jartzen, eta bezeroen beharretara jarraitzen dute, teknologia berria lagun.

20 urte baino gehiago bezeroen zerbitzura.

Bai, horrela da. Duela 20 urte baino gehiago hasi ginen lanean eta orduko bezero askok gurekin batera jarraitzen dute oraindik.

Gustura dauden seinale.

Beti saiatu gara euren beharretara egokitzen. Teknologia berriak eta teknika ezberdinak erabili izan ditugu urte haueetan guztietan, beti bezeroen eskaerak eta beharrak beteazaren alde egin dugu lan.

Eguerdietan ere egiten duzue lan.

Astean bi eguenetan, martitzenean eta eguenetan, 09:00etatik 20:00etara egiten dugu lan, etenik gabe. Komertzioetan ez ezik lan-tegietan diharduten bezero askok galdetu digute eguerdian etortzeko aukerari buruz, eta astean birritan egun osoz dago zabalik Adur. Hemendik kanpo bizi diren askok hemengo zerbitzuak erabiltzen dituzte eta horiek ere erabiltzen dute gure zerbitzua.

Arrasateko mugak gaintzen ditu zuen zerbitzuak.

Arrasatekoak ez ezik, inguruko herrietakoak ere etortzen dira gure hertz klinikara, bai-



Adur hertz klinikako espezialisten lantaldea.

na baita Debagoien kanpotik ere. Adibidez, Eibartik eta Zarautzik datozenak ere badau-

"Punturik gabeko kirurgia egiten dugu inplanteekin"

de gure bezeroen artean.

Umeak ere badaude zuen bezeroen artean?

Bai, bai. PADI deritzon zerbitzua ere eskaintzen dugu eta 7 eta 15 urte bitarteko ume eta gaztetxo asko etortzen dira. Askorendako, horixe izaten da dentistarekin izaten duten lehen

hartu-emanak. Umeekin lan egiten duen dentista bat dago lantaldean eta goxo hartzen ditu

"Umeendako PADI zerbitzua ere eskaintzen dugu"

bezero gazteenak.

Zenbat zarete guztira?

Ia hamar laguneko taldea gaudu Adur-en, denak espezialistak. Ikastaroak egiten ditugu, sarri, nork bere arloko berritasunak ezagutzeko.

Ahoko inplanteak jartzen aitzindariak izan zarete.

Eta jarraitzen dugu inplanteak jartzen. Arlo honetan egon diren aurrerapenak gertutik ezagutzen ditugu. Egun, adibidez, punturik gabeko kirurgia erabiliz jartzen ditugu inplanteak.

Punturik gabeko kirurgia?

Bai. Egia da teknika hori ezin dela bezero guztiarekin erabili, baina posible da. Horregatik, ondo aztertzen dugu gure datorren herritarra eta berari hobekien datorzion teknika erabiltzen dugu bere ahoko osasuna hobetzeko.

Mutuekin ere egiten duzue lan?

Batekin baino gehiagorekin. Horretan ere esperientzia handia dugu, zerbitzua zabaldu eta gutxira hasi ginen eta. Bestalde, ordaintzeko erraztasunak eskaintzen ditugu, bizi dugun egoera ekonomikoa kontuan izanda. Bezero guztien eskura daude ordaintzeko erraztasunak.

Arrasaten ez ezik, Donostian ere badago Adur hertz klinika, ezta?

Bai, hala da, Donostian ere badugu beste zentro bat. Arrasaten bezala, bezeroen beharretara egokitzen gara, ordu-tegi malgua eskainita.



INPLANTOLOGIA ETA AHO KIRURGIA

3Dko diagnostikoa
Gidaturiko Kirurgia
Hezur birsorkuntza

ENDODONTZIA

PERIODONTZIA



HORTZ PROTESIAK

Finkoak (hertz eta inplanteetan)
Erauzgarriak

ODONTOLOGIA ESTETIKOA

Aho eta aurpegiko azterketa
Hertz zuritzea
Carillas

Adur
Clínica Dental



ORTODONTZIA

Masailezur eta baraileko ortopedia
Ortodontzia miofuntzionala
Aparatologia finkoa (estetikoa eta metalikoa)
Kirurgia eta ortodontzia teknika konbinatuak

PADI ZERBITZUA

Astlehena eta asteazkena: 10:00-14:00 / 16:00-20:00 · Asteartea eta osteguna: 10:00-20:00 · Ostirala: 10:00-14:00 / 15:00-19:00

Arrasate Pasealekua 13-15 · Arrasate (Gipuzkoa)
Tel.: 943 79 95 60 · Eposta.: arrasate@clinicadentaladur.com



Martitzenean Kulturaten egindako prentsaurrekoan batu zirenak. | 1B

Goikobaluko erronomia berrikuntzaz beteta dator

Laugarren urtez jarraian ospatuko da Goikobaluren balio historikoa errekuiperatzeko jai

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Zuztarrak Errotuz elkarteak hamahiru elkarte kulturalen auzolanaren eta Udalaren laguntzarekin batera antolatutako Goikobaluko erronomia irailaren 24an, zapatuan, ospatuko da.

Egunerako prestatu duten egitarau zabalaren barruan, hainbat berrikuntza izango dira herritarrek bertaratu daitezten: Goikobalura ibilbide gidatu historikoa Ane Garai hizlariaren azalpenekin, doke partidak, sokatira txapelketa... besteak beste. "Erromeria honen bitartez, Goi-

kobaluren balio historikoa errekuiperatu nahi dugu, eta aisialdi leku eta balio paisajistiko ikuspuntutik herritarrei berreskuratzeko da gure asmoa", adierazi zuen martitzenean prentsaurrekoan Balen Tramonek, Zuztarrak Elkartzuz Taldeko kideak.

Eguraldia txarra bada...

"Eguraldi txarra egiten badu, Gazteluondoko frontoian, toldo batzuk jarriz, emango diogu irtenbidea egunari, baina eguraldi iragarpenak ona egingo duela dio; ea horrela den".

EGITARAU

11:00: Goikobalura ibilbide didaktikoa Arotz plazatik.

11:00etatik aurrera: Umeentzako jolasak, talo postuak, doke txapelketa eta taberna egongo da.

12:00: Herriko Plazatik Goikobalura igotzeko bildu eta kalejiran igoko dira.

12:40 Ttakun, Arrasateko bertso eskola, Lore Gazteak, Arrostitz, Trikitixa Eskola, Udalaxpe, Albokariak...

14:45 Bazkaria *Hik eruen, Hik jan!*

15:45 Kanta herrikoiak.

16:00: Dantzak Patxi Monterorekin.

16:45 Sokatira txapelketa. Izena emateko: Irati, Taupa, Osorik eta Jai Zalen.

17:15 Dantzaldia: Eneritz, Leire eta Jontxurekin.

18:45: Goikobalutik jaitsiera Herriko Plazara.

Eguneko 50 erabiltzaile gehiago aurtengo udako kanpainan

X.G. | ARRASATE

Arrasateko Udaleko Kirol Zerbitzuak udako kanpainaren balorazio "oso positiboa" egin du. Poztasuna erabatekoa da datuak aztertu eta iazkoekin alderatuz gero. Udako kanpainak iraun duen 91 egunetan zehar 55.621 erabiltzaile pasa dira kirol instalazioetatik. Eguneko batez bestekoa 695 lagunekoa izan da, iazko batez bestekoa baino 50 gehiago.

2.120 lagun egun bakarrean

Aurtengo emaitza onek errekor bat ezarri dute. Uztailaren 19an 2.120 lagun pasa ziren kirol instalazioetatik, iazko egun onenean baino 300 gehiago.

Momentu puntaletako edukiera maximoa ere egun hartan izan zen. Aldi berean, 1.400 pertsona elkartu ziren, eta edukiera maximoa 1.500ekoa da. Aipatu beharrekoa da bost egunetan 1.500 erabiltzailetik gora izan direla, eta irailean zazpi aldiz gainditu da 1.000 pertsonako langa.

2,65 artatu eguneko

Hainbeste erabiltzaile izanda, normala da artatuak izatea. Guztira 242 artatu egon dira; eguneko batez bestekoa 2,65 da. Kirol Zerbitzutik esan dutenez: "Nahi baino artatu gehiago badira ere, zifra nahiko onak direla esan genezake".

Arrasate-Gesalibar taxibus zerbitzua autobusak ordezkatu du

2001. urtetik Arrasate-Gesalibar-Arrasate zerbitzua taxi zehatz baten bitartez egin izan da. Indarrean dagoen kontratua 2013ko irailaren 24an berritu zuen Udalaren osoko bilkurak eta 2016ko urriaren 1ean amaitzen da. Taxibusaren ibilbide berean ibiltzen da Arabako Aldundiaren Arriaga Autobusak enpresaren zerbitzua. Lanegunetan bederatzi zerbitzu eskaintzen ditu eta zapatu, domeka eta jaiegunetan, aldiz, bost. Beraz, Udalak taxibus zerbitzua ez berritzea erabaki du, ibilbide bera bi zerbitzu ezberdinek ez egiteko.

Urriaren hasiko dira Udal Bibliotekaren Literatur Solasaldiak

Urtero moduan, Literatur Solasaldiak antolatu ditu Arrasateko Udal Bibliotekak. Urriaren hasita, hilean behin bilduko dira parte-hartzaileak Kulturaten, 18:15etatik 20:15etara, aurrez irakurritako liburu bat lantzeko.

Ikasturte honetako lehen saioa urriaren 19an izango da, eta bertan, Toni Morrison-en *Maitea* liburua landuko da. Hurrengo saioa, berriz, Jon Miranderen *Haur besotakoa* izango da azaroaren 30ean, eta Adur Larrearen *Gabriel Aresti biografikoa* abenduaren 15ean izango da azkena.



Pasa den urteko taldeen aurkezpena. | IMANOL SORIANO

Ointxe!-ko taldeen kromo bilduma aterako dute

50. urteurrena ospatzeko ekintzetako bat da

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

2017an 50 urte beteko ditu Ointxe! saskibaloitza taldeak eta urteurren berezia ospatzen hasteko ekimen berritzaile bat abiatu dute: kluba osatzen duten 22 taldeetako 260 jokalariren argazkiak osatutako

kromo bilduma aterako dute. Espero dute urte amaierarako salgai jartzea material guztia.

Kromo paketeak salgai egongo dira honako saltoki hauetan: Arrasaten, Musakola auzoko estankotan, Ion eta Tiburon estan-

koetan, Irri Barri, Kukurutxo, Gozotegi, Sumendi eta Estrella zein Juliver tabernetan; Aretxabalean, berriz, Arkupe eta Urkulu gozoki-dendetan. Albura doan eskuratu ahalko da, eta pakete bakoitzak euro bakarreko prezioa izango du; bakoitzak sei edo zazpi kromo izango ditu.

Gurasoen ekimena

Zenbait jokalariren gurasoen artean sortutako ideia da honako hau, aitzindaria Gipuzkoako saskibaloitza taldeen artean -badago kasu bat Lurraldeko futbol talde batean-, eta klub zuri-moreko Zuzendaritza Batzordearen oniritzia izan duena. Argazkiak egin eta maketazio lanen ardura Galiako enpresa batena izango da; irail amaieran etorriko dira Arrasatera argazki saioak egitera, eta urte amaierarako material guztia saltzeko gertu egotea aurreikusiten dute.

Eskerrak babesleei

Ointxe! Saskibaloitza Elkarteak eskerak eman nahi izan dizkie ekimena babestu duten guztiei, "egitasmo honi babesba eta hauspoa emateagatik".



GOIENA

Birzikleta azoka arrakastatsua

Arrasateko Mugikortasun Astearen barruan hainbat ekintza izan dira herrian, baina horietatik arrakastatsuenak Birzikleta Azoka izan da. Aurreko zapatuan, hilak 17, Udal azokan hainbat material batu zen eta herritar asko gerturatu zen bertara. Batez ere, gaztetxoendako bizikletak saldu zituzten asko, goizeko lehen orduan, baina nagusien artean batek baino gehiagok eraman zuen mauka polita etxera.

Mugikortasun egokiago baten norabidean

Ibilgailurik gabeko eremu handiagoa aldarrikatu dute umeei Autorik Gabeko Egunaren ospakizunetan

J.I. | BERGARA

Bidekurutzeta kalean, bide erdian, umeak jarrita marrazkiak egiten eta margotzen; handik gertu, San Martin plazan, motor hots bakarra puzgarriak aireztatzen sargailuena; eta herrian barrena, ikastetxerik ikastetxe, ume eta bizikleta tropel handi bat –hiru ikastetxeetako 250 neska-mutiko– errepedearen jabe.

Horiek izan ziren herrian Autorik Gabeko Eguna aurreneko aldiz ospatzeko atzo –eguna– egindakoak –goizekoak, arratsalderako beste ekimen batzuk ere bazeuden antolatuta–. Eta, eguerdi aurretuan, batean eta bestean ibilitakoek plazan egin zuten bat, egunerako prestatutako manifestua entzuteko.

Sei ikaslek –ikastetxe bakoitzetik bi– izan zuten idatzia irakurtzeko ardura: "Gaur arazorik gabe jolastuko gara, plazan, Bidekurutzetan eta Barrenkalean. Baina guk nahiko genuke gaurko moduan egunero jolastea, eta ez bakarrik Barrenkalean, plazan



Eguen goizean egindako bizikleta txangoa. | JULEN IRIONDO

eta Bidekurutzetan, baizik eta herri guztian. Jolasten garenean, autoak beti traban egoten dira, eta gu beti autoak zaintzen ibili behar gara; ez gaude ados. Guk nahi duguna da Bergaran askoz auto gutxiago egotea; gure desplazamendu guztiak autoz egin beharrean, bizikletaz, oinez edo patinetean egitera gonbidatzen zaituztegu", adierazi zuten neska-mutikoek.

Ikasleen ekimenez egin da, hain justu, aurten lehenengo aldiz, Autorik Gabeko Eguna, eurek Eskolako Agenda 21ean proposatuta; eta Udalak aintzat hartu zuen eskaria. Elena Lete alkateak ohiturak aldatzera gonbidatu zituen herritarrek: "Helduon kezka handi bat da apar-katzeko leku gutxi daudela. Baina Bergara oso herri egokia da oinez eta bizikletaz ibiltzeko".

Eraso sexista bat izan dela salatu dute jaietan, Martxanerek deituta

J.I. | BERGARA

Deialdiaren oinarrian herritar baten testigantza zegoen; Martxanerek azaldu zuten, "gizon batek emakume bati egin zion erasoaren lekuko" izan zen herritar hori egubakoitz goizaldean, San Pedro kalean: "Emakumea berbaz eta fisikoki erasotua" izan zela gaineratu zuten. Lekukoak Udaltzaingoa-ri ere kontatu zion ikusitakoa.

Oxirondon egin zuten bilkura zapatuan *Jaixa ez da aitza-kixa, errespetau nere nahixa!* leloarekin. Herritarren erantzuna "jendetsua" izan zela eta gustura geratu ziren deitzaileak.

Udalaren mezua

Bilkura baino lehen, egubakoitz iluntzean Udalak mezua zabaldu zuen sare sozial bidez: "Azken orduetan zabalduko eraso sexistaren zurrumurruek inguruan lasaitasuna eta prudentzia eskatu nahi da. Salaketarik ez izan arren, Ertzaintzarekin ari gara gertakizuna aztertzen", zioen Udalak. "Eraso matxistak eta horien salaketak" zalantzan jartzea egotzi zioten Martxanerek Udalari.

Gaiaren gainean galdetuta, Elena Lete alkateak adierazi du eraso sexista guztien kontra daudela, "noski", baina erakunde bezala "oinarri bat" behar

dutela eurek; horregatik, bere lana "segurtasun erakunde guztiekin" harremanetan jartzea izan zela, gertatutakoagatik salaketarik ba ote zegoen jakiteko. Ertzaintzatik adierazi dute ez dela salaketarik izan; hala ere, "ikerketaren prebentiboa" zabaldu zuten –epaitegiko kameran irudiak ere eskatu zituzten ikerketarako–. Baina, "oraingoz", frogarik aurkitu ez dutela jakinarazi dute. Alkateak azaldu du Udalak horrela jokatu duela halakoetarako protokoloa erabat zehaztu gabe dagoelako oraindik; zirriborroa badutela, eragileekin kontrastatuko dutela laster, eta bertan zehaztuko dela aurrerantzean oraingoaren moduko kasuetan nola jokatu.



Zapatuko bilkura. | IMANOL SORIANO

GURE BEZEROEN EROSOTASUNA HOBETZEN JARRAITZEN DUGU.



RPS: 40/14

Orthophos SL 3D
(TAC 3D Digitala)

HASIERATIK BUKAERA ARTE TRATAMENDU OSO-OSOA GURE KONTSULTAN EGITEKO AUKERA DUZU.



Erradiografia sistema berriena!
Patologian, implantologian eta ortodontzian aplikagarria!

HARRI ZURI
HORTZ KLINIKA

Ibargarai 21, behea - BERGARA
Tel.: 943 25 34 34 - 664 47 05 72

Astelehenetik ostiralera:
09:00 - 13:00 / 14:00 - 20:00
Zapatuetan:
Aurrez deituta



Aste bukaeran urgentiaren bat baduzu, deitu lasai mugikorrera!

Punta-puntako teknologia erabiltzen dugu

Medizina erregeneratzailea lantzen dugu (PRDF plasma), zikatrizazio hobea lortzeko eta hobeto osatzeko

Kromoterapia eta Shiatsu erlaxatze teknikak erabiltzen ditugu, lasai senti zaitezten

Aisialdi eskaintza oparoa ikasturte berrirako

Martxan daude Oxirondoko, Osintxuko eta Angiozarko ludotekak eta Xabalote gaztelekua

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Ludotekak, Xabalote gaztelekua eta udaleku irekiak. Horiek dira Udalak ume eta gaztetxoentzako eskaintzen dituen zerbitzuak, eta Jardun Euskara Elkartekudeatzen ditu hirurak.

Bergaran hiru ludoteka daude: Oxirondo azokakoa, Osintxukoa eta Angiozarkoa. Orain arte lehenengo biak soilik kudeatzen zituen Jardunek, baina aurten Angiozarkoa ere beraien esku geratuko da, lehiaketa publikoan esleitu baitiote.

Ludotekan izena emateko 60 euroko urteko kuota ordaindu behar da. Dena den, irailean zehar "proba egiteko" aukera izango da, apuntatu nahi duten edo ez erabakitzeke. Asteazkenean zehar arratsaldean izaten da zabalik, eta 3-12 urte bitartekoei zuzenduta dago.

Gaztelekua

Xabalote gaztelekua, berriz, 12 eta 17 urte bitarteko gaztetxoek erabiltzen dute, eta doako zerbitzua da, izena eman behar den arren. Urtean zehar denetarikoa



Aisialdi eskaintzaren antolatzaileak eta hezitzaileak, aurkezpenean. | M.T.

ekintzak antolatzen dituzte. "Sukaldaritzak, esaterako, arrakasta handia izaten du", azaldu du Saioa Garitanok, Jarduneko aisialdi koordinatzaileak.

Euskara oinarri

Garitanok aipatu du aisialdi arloan zenbait oinarri edo balio mantentzen dituztela. Tartean, noski, euskararen sustapena: "Lanketa

berezia egiten dugu hezitzaileekin batera gazteen hizkuntza ohituetan eragiten saiatzeko".

Horrekin batera, ludikotasuna, ume eta gazteen elkarren arteko harremanak bultzatzea edota inklusibotasuna ere aipatu ditu. Helburu horiek lantzeko, ume eta gazteei entzun eta beraien beharretara egokitzen ahalegintzen dira.



Arduradunak Aroztegiko erakusketan. | KILOMETROAK 2016

Itxura ederra izango du frontoiak 'Garden' ikusteko

Sarreraren herena geratzen zen eguen eguerdian

KOMUNITATEA GOIENA
KILOMETROAK 2016 | BERGARA

Abiada handian saldu dira asteazkenean zehar bihar gauean frontoian izango den Alos Quartet taldearen *Garden* ikuskizunerako sarrerak. Eguen eguerdirako 600dik gora salduta zeuden. Pikupe Produktzioak-en egoitzan eta webgunean eros daitezke, 15 eurotan. Sarrearik balego, bihar 21:00etatik egongo da irekita leihatila.

22:30ean hasiko den ikuskizuneari Eñaut Elorrietak, Oreka TX-k eta Aukeran dantza taldeak ere hartuko dute parte.

'Kilometroak bidea' Aroztegin

Ikusgai dago -urriaren 2ra arte- Kilometroak festaren 40. urteko ibilbidea -argazki, irudi, lelo eta egunkarietan agertutako albiste bidez- jasotzen duen erakusketa.

Gipuzkoako Ikastolen Elkartea Kilometroak jaia berrasmartzeko egiten ari den hausnarke-ta prozesuan kokatzen da erakusketa, aurreko zapatuan egin zen *World kafe*-a bezala: herrialdeko 24 ikastoletako ordezkariak gain, Kilometroak jaiak izan dituen koordinatzaileak ere izan ziren bertan.

Nutrizio ikastaroa eta antzerki eta bertso eskolak

JULEN IRIONDO | BERGARA

Jardunek antolatuta, Mireia Alberdi dietistak emango du nutrizio ikastaroa, irailaren 27an eta 29an eta urriaren 4an eta 6an, 19:00etatik 20:00etara Irizar jauregian. Ikastarorako lekuak mugatuak izango dira; izena emateko, Jarduneko bazkideek 12 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 15.

Bestalde, ikasturte berriko bi eskolatan ere izena eman daiteke dagoeneko. Batetik, bertso eskolan: astelehenean izango da hau, 18:15etik 19:15era, eta Nerea Madariaga ariko da irakasle. Bestetik, antzerki eskola, Zurrumuru taldearekin: ordu berean izango da, baina egubakoitzetan. Kasu honetan, Jarduneko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte hilean, eta 12 gainerakoek. Amaia Arriaran izango da irakaslea, eta, antzerkiarekin batera, zirkua eta, oro har, ahozko eta gorputz adierazpena landuko dituzte umeek. Jolasa izango da eskolaren oinarria.

Hauetan guztietan parte hartzeko izena Jardunen eman behar da.

San Migel jaiak gaur abiatuko dira Angiozarren

M.T. | BERGARA

Gaur hasita, San Migel jaiak ospatuko dituzte Angiozarren. Asteburuan zehar eta datorren egunean, San Migel eguna, denetarikoa ekintzak egongo dira. 19:00etan San Migelen jaitsiera izango da, eta jarraian, ikurrin dantza eta patata-tortilla lehiaketa. Gauean, pilota partiduak eta zuzeneko musika izango dira. 22:30etik 08:00ak arte taxi zerbitzu berezia antolatu du Udalak. Bidaia bakoitza: 10 euro.

Jaietako egitaraua www.goiena.eus-en dago ikusgai.

Herrixa Dantzan

Bihar, zapatua, 18:30ean dantzaldia izango Patxi Monterok gidatuta. Haur eta gurasoen jolasekin hasiko dira, eta ondoren helduendako zuzendutako saioa ere izango da.

Oihulari Klown

Domekan, berriz, 18:00etan Oihulari Klownen eskutik *Trostan* emanaldia izango da plazan. Hurrei eta familiei zuzendutako ikuskizuna da. Virginia Imazek zuzendu du eta Karmelo Muñoz eta Toni Iglesias dira aktoreak.

Senideen topaketa egingo dute zapatuan Mizpirualde egoitzan

Bihar, zapatua, topaketa saio bat egingo dute Mizpirualde egoitzan. Bertako egoiliar, langile eta senideez gain, Bergara, Antzuola eta Elgetako herritarrek gonbidatu dituzte egoitzakoek. 17:00etan hasiko da ekitaldia, eta bi ordu inguru iraungo du. Horren baitan, Altsasu elkarteak omenduko dute, eta musika eta luntxa izango dira.

Telesforo Aranzadi eta pentsioak hizpide UNEDen solasaldietan

Bergarako UNEDen 40. urtemuga dela-eta antolatutako enbarruan, pentsio publikoen etorkizunaz jardungo du hurrengo egunean Iñaki Madariagak. Urriaren 4an, berriz, Telesforo Aranzadiri buruzko mahai-ingurua egingo dute Alberto Santanak, Felix Leturiak eta Mikel Agirrek. Biak izango dira irekiak eta 19:00etan UNEDen.

Hizkuntzak ikasten dihardutenek taldean praktikatzeko aukera

M.T. | BERGARA

Hizkuntzak ikasten dabilen herritarrendako mintzapraktika taldeak bultzatuko ditu Udalak. Taldeok autonomoak izango dira, ez da zuzentzaile edo bideratzaile izango. Herritarrei ikasten ari diren hizkuntza praktikatzeko aukera ematea da egitasmo honen helburua.

Taldeak asteazkenean bilduko dira, eta saio bakoitzean hurrengo asteko eztabaidarako arduradun bat izendatuko dute. Honek landu beharreko gaia aukeratu eta prestatuko du.

Izen ematea

Apuntatzeko epea urriaren 17ra arte izango da, eta udaletxeko

kultura edo hezkuntza zerbitzuetan, 943779159 telefonoan edo narbaiza@bergara.eus helbidean egin daiteke, norberak zein hizkuntza landu nahi duen eta zer ordutegi nahiago duen adierazita.

Aurkezpena urriaren 19an

Taldeak aurkezpen bilera urriaren 19an izango da, 18:00etan udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Taldekideek bertan erabakiko dute non elkartu nahi duten aurrerantz.

NIRE USTEZ

MAIALEN
MADARIAGA



Parte-jartzea

Herriko jaien aitzakiak egutegiak atzeratu ohi dizkigun arren, ongi etorri guztioi kurtso berrira. Ongi etorri zuen eserlekuetara.

Askori iritsi zaio lan lekuetan esertzeko garaia. Eseri besterik ez dira egingo batzuk, eta gainerakoak, martxan jarri, zutitu. Zoritxarrez, non eseria izango ez duenik egongo da aurten ere.

Lanez kanpoko ordutegietan, ordea, beti egoten dira aulki hutsak. Izan ere, gure herri honetan beti dago zer eginga, eta hauetan, edonon esertzeko aukera izan ohi dugu. Gonbidatuta gaudete guztiok.

Eta gonbidatuak garen unetik, geuk erabakiko dugu noiz sartu eta noiz irten, baita zenbateraino ere. Aldea baitago zerbaiten aldeko antolaketan ariztetik, zerbaiten alde hitz egiten jardutera. Desberdinak baitira parte-hartzea eta parte-jartzea.

Kausa edo helburu guztiek behar dute bietatik. Baina esango nuke lehenengoak direla preziatuenak. Hauek, parte jarri eta hartu, biak egiten baitituzte. Susmoa daukat, ordea, ez ote diren gutiziaz bihurtu, garestitu.

Parte-jartzaileak, berriz, gonbidatu misterioitsuak izan daitezke batzuetan, sartu eta eseri besterik egiten ez direlako. Ez baitakizu nonbait eseri nahi dutelako soilik ote dauden hor.

Bateko edo besteko, eserialdi eder bat opa dizuet guztioi. Ongi etorri kurtso berrira!

"Desberdinak baitira parte-hartzea eta parte-jartzea"

Kulturak hartuko du kalea, eta oraingoan asteburu osoan, gainera

Bisita gidatuak, musika eta abesbatzak, kantu jira, tailerrak eta dantza ikuskizuna izango dira, besteak beste, 'Kultura kalera' ekimenaren barruan

JULEN IRIONDO | BERGARA

Gaur arratsaldeko Moises Azpia-zuren oroimenezko dantza txapelketaren ondotik (Ikus 31. orria),

kulturaz jantziko dira kaleak domeka iluntzera bitartean –iaz egun bakarra izan zen–. Biharko lehen ekintza Jauregi etxeko erlie-

bearen gainekoa izango da, eta herriko ondareari buruzkoak ezagutzeko beste aukera bat izango da arratsaldean: bisita gidatua.

Musikaren txanda izango da ondoren. Orkestra Sinfonikoaren Metal taldea 18:30ean plazan, eta jarraian San Joxepe eta Aritzeta abesbatzak, Bergarako Orfeoia, Orfeoi Gaztea eta Alai taldea; talde bakoitzak bina kantu abestuko ditu. Bukaeran, Bergarako ereserkia kantatuko dute Orkestrako kideen laguntzaz. Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzenduko du saioa. Eguraldi txarra egingo balu, Santa Marina parrokiaren izango litzateke emanaldia. Hau bukatuta, kantu jira herrikoia izango da Bergarako kaleetan.

Domeka goizean ere izango dira bisita gidatua eta musika, eta eguerdian hasita tailerrak egingo dituzte plazan: Taila elkar-



Jauregi etxeko erliebea. | BERGARAKO UDALA

Jauregi, Mudejar erako adibide goren

Migrazioak eta kultura ondarea gaitzat hartuta antolatutako Europako Ondare Jardunaldien barruan, Bergaran izango da Gipuzkoako ekintzetako bat, Jauregi etxeko erliebeari buruzkoa, alegia. Jesus Muñiz Petralandak –Euskal Herriko Behe-Erdi Aroko artean aditua– hitzaldia egingo du aurrena, eta bisita egingo dute gero, azaldukoak bertatik bertara ikusteko. Mudejar erako artearen Euskal Herriko kalitate handieneko adibidea da Jauregi. etxea.

KULTURA KALERA

ZAPATUA, 24

11:00 Arte inportatua: Jauregi etxeko erliebea. Hitzaldia –udaletxean– eta bisita, Jesus Muñiz Petralandarekin.

17:00 Bisita gidatua, plazatik. Izena emateko: 943 76 90 03.

18:30 Orkestra Sinfonikoaren Metal taldea, plazan.

19:00 Abesbatzen kontzertua, plazan. Ondoren, kantu jira.

DOMEKA, 25

11:00 Bisita gidatua, plazatik (gazteleeraz). Ondoren, Orkestra Sinfonikoaren Soka taldea Laboratorium museon.

12:00 Tailerrak, plazan: taila, zeramika, erraldoiak, batukada, Beart, musika eskola...

19:00 Dantza ikuskizuna zuzeneko musikarekin, Musika eta Dantza Eskolaren eskutik, plazan.



IMANOL SORIANO

Saskibaloikoak, prest

Zapatuan aurkeztu zituen Bergara Kirol Elkartek denboraldi berrirako taldeak. Zazpi dira denera, nesketan lau –juniorrak, bi kadete eta infantilak– eta mutiletan hiru –seniorrak, juniorrak eta kadeteak–. Mutilen talde nagusiak bihar hasiko du 2. Mailako liga, Astigarragan.



BERGARA IGERI ELKARTEA

Igerilari bergararrak, sarituak

Bergara Igeri Elkarteko Josu Morras eta Julen Gardoki lehenengo eta bigarren izan dira Gipuzkoako federazioak antolatzen duen Udaberriko Ligan, infantiletan. Ligako probetako puntuak batuta, 101 eskuratu ditu Morrasek eta 83 Gardokik, hirugarrenari hiru puntu aterata.

Datorren udan gehiagotan zabalduko dute igerilekua gauez

Asmo hori agertu du Udaleko Kirol teknikari Iñaki Ugarte-buruk. Aurten, uztailaren 18an 00:00ak arte zabaldu zuten, eta egun hori izan zen igerilekuan udako egun jendetsuena, 2.514 lagunekin; datu modura, 22:00etan 490 lagun zeuden igerilekuan, eta 23:00etan 230: "Froga gisa egin genuen eta, erabiltzaileen erantzuna ikusirik, gure asmoa da hurrengo udan behin baino gehiagotan luzatzea irekiera ordutegia", azaldu du Ugarte-buruk. Hilabetea hartuta, jendetsuena ekaina izan da. Gainerakoan, zortzi egunetan itxi behar izan dute putzurako sarrera, gehienezko edukiera ez gainditzeko.

225 lagun inguru batuko dira 'Gindi' omentzeko bazkarian

Bihar, zapatua, egingo dute bazkaria, futbol jokalaria eta entrenatzaile ohi Jesus Mari Larrañaga Gindi omentzeko bere lagun talde batek antolatutako duen egitarauaren barruan. 14:45ean izango da, Seminarioko karpan. Bazkariaren aurretik bi futbol partidua izango dira: aurrenekoa, 10:00etan, 2007 eta 2015 urteen artean Gindik Bergarako jubiletan entrenatu zituen jokalarien artekoa; bigarrena, 12:00etan, Realeko beteranoren eta Bergara eta A Ze Flaxa taldeetako konbinatu baten artekoa. Bi partiduen artean, 11:30ean, egingo diote omenaldia. Partiduak eta omenaldia Agorrosinen izango dira.

OHARRAK

OPARITU ZUHAITZ BAT

Eguenean, 19:30ean, kultura etxean. Lan istripuen gaia ere jorratuko dute.

ODOL EMATEA

Eguaztenean, 18:00etan.

BASERRIKO PLASTIKOA

Martitzenean atera behar da, ohiko erara.

EGUAZTENEN AZOKA

Antxon magoa: globoflexia (19:00). Pintxo-potea: Etxagi.

TXAPA IRRATIA: BILERA

Saioa egin nahi dutenekin. Gaur, 19:00etan, gaztetxean.

ANBOTORA DOMEKAN

Izena emateko azken eguna, gaur, Pol-Polen bulegoan.



Janaria ere etxera eramaten dugu

Plater gustukoena:

- Xia-Jiao (ganba-enpanadillak)
- Curry triangeluak okelaz beteta
- Langostino frijituak almendrekin

Etor zaitez!

☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA



ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Eguraldiak ez du zapuztu bergararren festarako gogoa San Martin jaietan

- ▶ Euriak zenbait ekitaldi baldintzatu dituen arren, jai giro polita izan da herrian
- ▶ Bergarako Udaletik esker ona adierazi diete herritarrei eta herriko taldeei

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Beste urte batez, joan zaizkie bergarrei iraileko San Martin jaiak. Euriz bustitakoak izan dira aurtengoak, eta horrek zenbait ekitaldi baldintzatu ditu; dena den, herritarrek jakin izan dute jai giroaz disfrutatzen.

San Martin jaietako ikur nagusi diren ekitaldietan, danborradan edota zapatuko azokan kasu, bergararrek aterkia zabaldu behar izan zuten. Gainera, plazan egitekoak ziren hainbat ekitaldi Udal Pilotalekura aldatu behar izan zituzten. Hala gertatu zen, esaterako, egubakoitz eguerdian Udal Bandak eskaini zuen kontzertuarekin edota Korrontzi taldearen emanaldiarekin, jaietako hitzordu nagusietakoa izan dena.

Balorzio positiboa

Maite Agirre kultura eta jai zinegotziak ere eguraldiaren eragina nabarmendu du: "Jaietako ekitaldietarako askoz ere leku egokiagoa da San Martin plaza frontoia baino". Dena den, esan du hori horrela izanik ere, ikuskitunak "oso ondo" joan direla. "Jendea ibili da eta jai giroa egon

da", nabarmendu du. Beraz, orokorrean positiboki baloratu ditu aurtengo jaiak eta antolatutako ekimenek izandako erantzuna.

Azoka Oxirondon

Orain arte San Martin eguneko azoka izen bereko plazan egin bada ere, aurten tokiz aldatzea erabaki du Udalak, Oxirondoko azoka biziberritzeko ekimenari bultzada bat emate aldera. Hala, baserriko produktuen postuak zein gazta txapelketa Oxirondo plazan eta inguruetan kokatu zituzten.

Aldaketa positiboa izan ote zen galdetuta, Maite Agirrek dio oraindik ere balorzio lanetan dihardutela, eta elkarteekin eta Oxirondoko azokako merkatariekin kontrastatu behar dutela; dena den, aurreratu du "printzipioz balorzio ona" egiten dutela Udaletik. Aurten, gainera, herriko zenbait dendak ere hartu du parte, azokan postua jarriaz, eta hauek gustura bukatu ei zuten.

"Proba bat zen, eta orain ondo baloratu behar da eta ikusi behar da ea datorren urtean zer egin; bertan geratu ala plazara itzuli", dio zinegotziak.

Esker ona herriko taldeei

San Martin jai hauetan herriko elkarte eta taldeek egindako lana eta izandako inplikazioa nabarmendu du udal ordezkariak, eta udalaren "esker ona" adierazi nahi izan die guztiei: pilota, xake eta saskibalo taldeak, Beart, erraldoi taldea...

Aurtengo beste nobedadeetako bat Xaxau konpartsak Muni-be plazan jarritako txosnagunea izan da. Karpa handi bat muntatu zuten bertan; beraz, euriak ez zuen aparteko arazorik sortu txosnagunean, eta aurreikusitako ekitaldi eta kontzertuak han bertan egin ahal izan zituzten.

Txosnagunearekin eta Xaxau konpartsak egindakoarekin ere "oso pozik" dagoela onartu du Maite Agirrek, eta "errepikatze moduko" ekimena izan dela aipatu du.

Danborradan parte hartutako guztiekin ere "eskertuta" azaldu da Agirre. Azaldu du nagusien danborradarako ordua iritsi aurretik euri zaparrada zela, parte hartzaileei galdetu zietela ea aterahi zuten ala ez, eta gogoz baiezkota eman zutela. "Emozionantea" izan zela dio.



Emakumezkoen pilota jaialdia izan zen lehenengoz Udal Pilotalekuan.



What A Band taldearen zuzenekoan, txosnagunea lepo beteta.



KEA ahots taldearen emanaldia, Marije Ugalde bergararra barne.



Goitik behera busti ziren San Martin bezperako nagusien danborradan parte hartu zutenak.



Aurten Oxirondo plazan egin dute San Martin eguneko azoka.



Txikiak primeran pasatu zuten kalerik kale danborra jotzen.



Simon Arrieta pintura lehiaketa.



Ramon Etxanizi omenaldi hunkigarri egin zioten . | ARGAZKILARIAK: I. SORIANO, XAXAU, UDALA

Jaien ostean hasiko da martxan herribusa

Txandakako aparkaleku sistema martxan jarri eta Txaketuaneko bidegurutzea itxi ere, udazkenean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Duela bi urte onartutako Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Planaren barruan hartutako neurriak ari dira martxan jartzen herrian eta udazkenean beste pauso batzuk emango dituzte: Txaketuaneko kantoia ibilgailuendako itxi hainbat ordutan, herribusa martxan jarri eta erdigunean txandakako aparkatze sistema ezarri.

Mugikortasuna

Txandakako aparkatze sistema Atzeko kaleko lanak bukatu ostean jarriko dute martxan. Orduan, oinezkoek izango dute lehentasuna Atzeko kalean. Pibote bat jarriko dute Ramon Irizar kalean eta zamalanak egiteko 08:00etatik 12:00etara egongo da zabalik; gainerako orduetan itxita egongo da ibilgailuendako. Bizilagunak ere pasa ahalko dira zamalanak egiteko eta hori egiteko baimena ematen dien txartela ibilgailuan izan beharko dute, ikusteko moduan. Aparkalekuen kudeaketari dagokionez, bost parkime-



Etxeberría, Biain eta Zubia. | O.E.

tro egongo dira eta errotazioak 60 minutukoak izango dira. "Komertzio eta zerbitzuetara iristea da helburua, oinezkoekin elkarbizitza ona bermatuz", azaldu du Mugikortasun zinegotzi Irati Etxeberriak. Erdiguneko bizilagunendako aparkaleku jakin batzuk egongo dira.

Txaketuaneko kantoia ere eguneko ordu gehienetan itxita

egoteko proba egingo du udalak hiru hilabetez. "Ikusiko dugu saihebidetaz nola erantzuten duen eta horren arabera pentsatuko dugu betiko ixtea edo ez", dio Etxeberriak.

Herribusari dagokionez, urrian jarriko dute martxan eta 22 plaza dituen autobus bat Ugarkaldetik Kasablankaraino, eta alderantziz, ibiliko da orduro.



Erle abizenak batzen ditu guztiak

Erletarren bazkaria egin zuten joan den asteburuan Etxe Aundi jatetxean. 60 lagun inguru batu ziren guztira, eta, esandakoaren arabera, primeran pasa zuten. Oñati bertakoa ei da Erle abizena, eta, dirudenez, bere garaian Kanpantxo kalean zegoen Erle baserrian du jatorria. Lehen aldiz elkartu dira belaunaldi guztiak, eta, Oñatiko jatorria izanda ere, Soriatik, Andoaindik, Eskoriatatik eta New Jerseytik (AEB) etorri ziren.

Frankismoaren aurkako mozioa hileko osoko bilkuran

Martitzenean, 19:30ean, egingo da osoko bilkura eta mozio bat aurkeztuko da Oñatiko Udala frankismoaren aurka eta bizirik dauden frankisten aurka auzibidez jotzeko auzian kereila-jartzaile bezala azaldu dadin. Frankismoaren Aurkako Kereilaren Aldeko Euskal Plataformak bilkurara joateko dei egiten die herritarrei.

Odol ateratzeak osasun zentroan egingo dituzte gaurtik aurrera

Txantxiku ikastolan egin ordez, osasun zentroan egingo dituzte odol ateratzeak aurrerantzean. Ordutegia ere ezberdina izango da, 17:00etatik 19:00etara hemendik aurrera. Toki aldaketaren arrazoiak da Txantxiku ikastolan egin dituzten birmoldaketak, eta anbulatorioko ordutegira egokitu dira. Gaur, egubakoitza, osasun zentroan egingo dute ateratzea.

Jaietan ere egongo da autobus zerbitzua Arantzazura joateko

Herriko jaietan ere egongo da Arantzazura joan eta handik Oñatira etortzeko autobus zerbitzua. Hala, irailaren 29an eta 30ean eta urriaren 1ean eta 2an erabilgarri egongo da zerbitzu hori. Udako ordutegia mantenduko du, hau da, lehena 07:30ean abiatuko da Oñatitik eta azkena 19:00etan Arantzazutik.



Eguaztenean jaitsiko da txantxikua, 20:00etan. | GOIENA

Txantxikua jaitsi aurretik ere, jai giroan

Egun Morea, Atsolorra, haurren danborrada eta artzain-txakur txapelketa, hasteko

O.E. | OÑATI

Jaiak segidan tokatu dira aurten eta horrek egitarauan aldaketa batzuk egitea eskatu dio kultura sailari. Txosnak, esaterako, asteburu honetan zabalduko dituzte eta atsolorra ekitaldia ere jaiak ofizialki hasi aurretik egingo dute. Gaurtik, egubakoitza, hasita, txantxikuaren jai-tzierara begira egon beharrik ez dago Oñatin jaietz gozatzeko eta girotzeko.

Pintura

Bihar, esaterako, Egun Morea ospatuko da zazpigarren urtez, txosna batzordeak antolatuta. Batukada, bazkaria eta antzerkia egongo dira egunean zehar eta 20:00etan, manifestazioa egingo da Foruen plazatik abiatuta, lelo honen pean: *Jantzi antiojo moreak, erasoei erantzun!*. Joan den urteko jaietatik aurtengoetara bitartean jai diren herritarrei, berriz, 12:00etan egingo zaie ongietorri ekitaldia, atsolorra, udaletxean. 18:00etan, 150 ume inguru aterako dira kalera danborra jotzera.

Domekan egingo da nazioarteko artzain-txakur txapelketa eta aurten, gainera, berritasun asko izango ditu. Txosna bat egongo da, adibidez, eta txakurrei lotutako ekintzak eta artsausak ere egongo dira San Martin gunean. 10:30ean hasiko da, eta Jose Mari Bengoa *Urzabal* oñatiarrak bigarren aldiz segidan hartuko du parte. Bestalde,

urteroko aire libreko pintura lehiaketa ere domeka goizean egongo da. 14:30ean izango da sari banaketak eta egindako pinturak ikusgai jarriko dituzte kultura etxean irailaren 27tik urriaren 16ra. Ibilgailu klasikoak, bestalde, domeka eguerdian ibiliko dira herriko kaleetan zehar.

EAJren proposamena

Bi eguneko atsedeneren ostean, eguaztenean izango dute jarraipena jaiak. 20:00etan jaitsiko da txantxikua eta gaueko nagusien danborradarekin, San Migel eta Errosaixo jaietan ibiliko dira oñatiarrak. Bandaren kontzertuak, sokamuturrak, gaztetxoendako jolasak, Herri Eguna, mozo-erroak, barrakak, plater tiraketa, pilota, manifestazioak eta bertsolariaren emanaldia jasotzen ditu, besteak beste, aurtengo egitarauak. Urriaren 4an izango da benetako biharamuna pasatzeko eguna eta hurrengo egunean hasiko da ikasturte berria Oñatin.

Jaietan sexu eraso eta jarra sexistak ekiditeko sentsibilizazio eta prebentzio neurriak proposatu ditu Oñatiko EAJk. Hala, Beldur Barik programaren eredu jarraituz, Oñati *beldur barik* gunea izatea nahi dute eta horretarako "herriko puntu beltzak, seguruak ez direnak, aztertzea eta puntu horietan gaueko zaintza-zerbitzua aragotzea" proposatu dute, besteak beste.

AINHOA LEGARISTI LIZARRA
IZASKUN LEGARISTI LIZARRA

ARKITEKTOAK

Era guztietako proiektu arkitektonikoak

Eskatu aurrekontua inongo konpromezurik gabe

Lazarraga Kalea 3, behea 661 09 35 00
20560 Oñati (Gipuzkoa) 645 70 17 52

BULEGOKO
ORDUTEGIA:

Astelehena
Osteguna
Ostirala
09:00-13:00

Asteartea
Asteazkena
15:00-19:00



Filmeko protagonista, ekoizlea eta zuzendaria. | IMANOL SORIANO

Auzolanean egindako pelikulak erantzun ona izan du herrian

Oso arrakastatsua izan da '2057, odisea bat kanposantuan' pelikularen aurrestreinaldia

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Jende ugari batu zuen zapatuan 2057, odisea bat kanposantuan filmaren aurrestreinaldiak, Santa Ana antzokian. "Jende pila bat etorri zen filma ikustera eta, egia esan, oso pozik gaude. Jendeari gustatu zaiola uste dut; beraz, balorazioa positiboa dela esango nuke", adierazi du Kepa Aran-

buruk, filmaren zuzendariak. Bi emanaldi egon ziren: lehenik, parte-hartzaileendako eta filma aurrera eramaten lagundu duten guztiendako; eta gero, berriz, publiko orokorrendako.

Gaztelekuan, festa

Bigarren emanaldia bukatu ostean, Oñatiko gaztelekuan festa bat

egin zuten. "Lehenengo filmaren *making-off*-a ikusi genuen eta ondoren kontzertua izan zen", azaldu du Aranburuk. Azken honi dagokionez, Koban taldeak eskaini zuen emanaldia. "Jende askok ez zuen taldea ezagutzen, baina asko gustatu zitzaizela esan zidaten; beraz, gu ere gustura", nabarmendu du zuzendariak. Ondoren, herrian ohikoagoa den *Javi Sound*-en emanaldiarekin bukatu zuten eguna.

Lehenengoaren jarraipena

Orain dela 13 urte grabatu zuten lehenengo zatia –film laburra–, eta hau haren jarraipena da. Hala, ordu eta laurden inguru irauten duen film luze honek zera azaltzen du: lehenengo zati hartako protagonistek –Arthur Mann eta Isam– nola ezagutu zuten elkar, garai hartako bizipenak eta ogi-tarteko lehiaketarako nola prestatu ziren. Horrez gain, hirugarren zati bat ere badauka filmak, 2057an girotuta dagoena.

Patxi Hipolitori eskainia

Zuzendariak azpimarratu du Patxi Hipolito zenari eskaini gura izan diotela filma. "Lehenengo zatia-ekin asko lagundu zigun eta, horrez gain, oso pertsona garrantzitsua zen guretzat", onartu du.

Aurkezpena, 29an

San Migel egunean izango da filmaren aurkezpen ofiziala, 22:00etan. Herriko jaiak aprobe-txatuz, txosnagunean erakutsiko dute filma.

Finalerdietara iritsi da jada Herriko Pilota Txapelketa

E.A. | OÑATI

Gaur, egubakoitza, hasiko dira finalurrekoak, bai nesketan, baita mutiletan ere.

Neskei dagokienez, Igone-Mireia bikoteak Aran-Rebeka izango ditu aurkari. Beste partidua Alazne-Eider eta Intxausti-Larrea bikoteen artekoa izango da.

Mutiletan, berriz, Biain-Anduaga eta Aramendia-Larrea arituko dira lehenengo partiduan eta bigarrenetan, aldiz, Fernandez-Pruluns eta Perez-Aranburu.

Gaur, Biain-Anduaga/Aramendia-Larrea eta Igone-Mireia/Aran-Rebeka partiduak jokatu dira, 18:00etatik aurrera. Gainontzeko bi partiduak datorren asteartean izango dira. Eta finala irailaren 30ean, egubakoitza, jokatuko da.

San Migel Txapelketa

Pilota sailak antolatuta, bihar, 18:00etan, Zubikoan, izango dira San Migel Txapelketako finalurrekoak. Euskal Herriko kadete eta gazte mailetako pilotariak dabilta lehiari. Finala urriaren 2an izango da.

NIRE USTEZ

AINHOA NEGUERUELA



Etxegabetzeak

Azaroak 30 zituen, osteguna zen. 2006. urtea. Goizean pediatraren gina joan ginen bi hilabete oraindik bete gabe zituen alabarekin. Etxera itzultzean 6 ertzain ikusi genituen etxe kanpoan. Gure etxe-ko sarrerako atea apurtuta, lurrean eta barruan beste horrenbeste udaltzain.

Lau ordu eman zizkiguten gauzak etxetik ateratzeko. Noraezean ibili ginen gauzak bildu nahian. Logelatik sukaldara, sukaldetik komunera, egongelara, bi udaltzain etengabe atzetik genituela.

Alaba negarrez. Gu negar-gurari eutsi ezinean.

Gogoan dut agindutako edozer gauza egiteko prest ote zeuden galdetzen geniola udaltzainei. Batzuek burlaka eta biraoka erantzun ziguten; beste batzuek, isiltasunarekin.

Ordu bietan, balen aurkako txalekoak jantzita, ezkutuak eta mailuak hartuta sartu ziren. Komuna eta sukaldea txikitzen hasi ziren, hormak zulatu eta eraisten. Gure etxea izan zena obra-hondakin nola bihurtzen zuten ikusi genuen.

"Os damos por desalojados" esan ziguten orduan eta bul-tzaka atera gintuzten etxetik.

Ongizatea bermatuko digutela dioskuten zenbait politikariek aste honetan ama eta adingabeko seme-alabak beraien etxetik kanporatu dituzte. Familia horrentzat gaua logela arrotzean eta pintza ahuletatik zintzilikaturiko goiza. Etxe huts bat gehiago orain Zabalangan eta zigor eredugarria hilabete bukarara iristen ez denarentzat.

'Pinotxo' eta 'Ermitak' izango dira Ganbararen proiektu nagusiak

E.A. | OÑATI

Batez ere, bi izango dira aurten Ganbara abesbatzak aurrera eramango dituen proiektuak: alde batetik, *Pinotxo* izeneko musika-lan, Ganbara Txikiren produkzio nagusia; eta, bestetik, Ganbara osatzen duten talde guztiak eta ikastetxeak kantari batuko dituen proiektu bat, Oñatiko auzoetako ermitetan gauzatuko dena.

'Pinotxo'

Aitor Biain zuzendariaren esanetan, *Altxorraren uhartea* baino produkzio "zailagoa" izango da *Pinotxo* musika-lan, taldearentzat "erronka handiagoa". "Proiektu

polita eta interesgarria dela uste dut", adierazi du.

'Ermitak'

"Oñatik ermita asko dituela kontuan hartuta, gure asmoa da hauek ezagutaraztea. Horretarako, hainbat ermitatan kontzertuak eskainiko ditugu urtean zehar", azpimarratu du zuzendariak.

Proiektu hori ermiten argazkiekin eta horietan emandako kontzertutako argazkiekin osatuko den liburuarekin borobilduko da.

Irailaren 14an hasi ziren proiektu hauek aurrera eramateko lanetan.



Juan Nogueirasi omenaldia

Aloña Mendiko entrenatzaile izan zen hainbat urtez Nogueiras, eta berak entrenatu zituen zenbait jokalarik omenaldia egin zioten pasaden zapatuan. Izan ere, 2014an iktus bat jasan zuen eta hainbat ebakuntza egin dioten arren, errekupeazio prozesuan jarraitzen du oraindik. Horregatik, babesa erakutsi nahi izan zioten.

Arropen azoka Santa Marina plazan egingo da bihar, barrakengatik

Arropa eta ehunkien azoka egin ohi den tokian barrakak egingo dira jaiak pasa arte, eta, ondorioz, azoka Santa Marina plazan egingo dute. Bihar, irailak 24, eta hurrengo zapatuan, urriak 1, lehengo tokian egingo da arropak eta ehunkiak egoten diren azoka, Santa Marina plazan. Horretarako baimena eman die udalak azokara etortzen direnei.

Bertsotruk egitasmoan egongo dira oñatiarrak ere

Bertsotruk ekimenaren bigarren edizioa egingo dute ikasturte honetan eta Oñatiko bertso eskolako kideek parte hartuko dute. 27 talde osatu dituzte bertso-eskolek eta hauek hiru taldetako bederatzitzi multzotan ariko dira. Oñatiarrek Barañaingo eta Gernika-Lumoko bertsolariekin egingo dute trukea.

Bizikletan ibiltzeko plana egin du gaurko Ulma fundazioak

Ulmaren 55. urteurrena ospatzeko, bizikletan ibiltzeko plana egin du fundazioak gaurko. Euskararen alde aurtengo antolatutako ekitaldietan azkena izango da. 16.30ean Zubillagatik plazaraino joango dira. 19:00etan dantzaldia egingo da Amaia Txintxurre-arekin eta 22:00etan, parrokiari, Kalakan eta Ganbarari.

Igerileku biak itxita egongo dira urriaren 4a arte

Zubikoa kiroldegiko igerilekuak itxita egongo dira hurrengo astean. Herriko jai nagusiak aprobetxatuz, urteroko garbiketa eta desinfekzio lanak egingo dituzte igerilekuetan datozen egunetan, eta itxita egongo dira erabiltzaileendako. Astelehenean itxiko dituzte eta urriaren 4an, 14:00etan, zabalduko dituzte berriro.

Herri Eguneko bazkariko txartelak, salgai lau tabernatan

Zubikoan egingo den herri bazkarirako txartelak salgai daude dagoeneko herriko lau tabernatan: Izarraitz, Boga, Arrano eta Olakua. Aurten, berritasun gisa, haurrendako menua ere egongo da, 10 eurotan. 12 urtetik beherako haurrendako izango da hori. Herriko produktuekin osatutako menua egongo da.

SANMIGELAK 2016

OÑATI
JAIETAN!



lazko umeen
danborrada.

IMANOL SORIANO

- ▶ **Aurten, aste bukaera bakarra**
- ▶ **Danborrada**
- ▶ **Txosnetako egitaraua**
- ▶ **Doctor Deseo: Francisi elkarrizketa**
- ▶ **Herri antzerkia**
- ▶ **Artzain txakur txapelketa**
- ▶ **Bertso saioa**
- ▶ **Umeendako eskaintza oparoa**
- ▶ **Herri Eguna**
- + JAIETAKO EGITARAU OSOA**



**ONDO PASAU
SANMIGELAK!**



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 - OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 - Faxa: 943 78 15 51



AGURRA



MIKEL BIAIN
Oñatiko alkatea

Gozau degigun danok!

Alegau da opor osteko aldapia leunketako garaixa, kaliak poztasun eta kolorez beteteko garaixa... Jatorri, sexu, nahiz adin ezbarriñetakuak aniztasun eta bardinttasunian batu gaittezen eta merezi dogun jaixa egin! Horretarako, zaintza lanak partekatu danok be jai egin ahal izateko. Eta altu esan erasuak ez dakoilla lekuri gure herrixan, ez jaixetan ez iñoiz be!

Itxi alde batera gure inguruak eta guk geure buruari jarten xaugin aurreiritzi, beldur, lotsa eta bestelako mugak eta pasau gaittezen eguneoko bizimoduak dakarren zurrumbillo zortik jaixetako zurrumbillo alaira!

Bestalde, arrazoi ezbarriñak tarteko, herriko jaixak gure artian pasaiterik izango ez daueiñak eta euren etxeak be gogora ekarri gura nittuke: pertsona maitatu bat betirako galdu dozenok, gaixotasun larriren bat dakozuenok, kiltzapeian, ihesik edota mendekupeian bizi zareñok, besarkada bero bana danondako!

Gozau degigun danok gure inguruko pertsonak eta ingurumena errespetauaz betik! Gora San Migel eta Errosarixo jaixak!

EGUBAKOITZA

23

Egun osoan Barrakak 1€.

16:30 Bidegorritik Oñatiko plazara kalejira.

► Kalejira ULMA Architectural Solutions-eko eraikinetik hasiko da.

17:00 Txosnagunearen muntatze herrikoa.

17:00 Pilota txapelketako finalurrekoa, txosna batzordeak antolatuta, plazako pilotalekuan.

18:30 ULMAko Euskararen Muralen erakustaldia herriko plazan.

19:00 Musika eta dantza Amaia Txintxurretaren eskutik. Herriko plazan.

22:00 Kalakan taldearen kontzertua Ganbara Abesbatzaren eta Oñatz Dantza taldearen kolaborazioarekin, herriko parrokian.

► Sarrera doan. Plaza mugatuak.

19:30 Elkarretaratzea plazan, *Euskal preso politiko eta iheslarien eskubideen alde.*

ZAPATUA

24

EGUN MOREA

09:00 Geoazkorri: denboraren aztarnak Aizkorriko paisaian. Urbiako larreetan barrena artzaintzaren mundua ezagutzeko egun erdiko irteera.

► Elkargunea: Arantzazuko Santutegi aurrean. Hiru euro. Erreserbak: 943.08.20.00.

12:00 Atsolorra: urtean zehar jaiotako hurrei ongietorria, udaletxeko batzar areto nagusian, Jose de Azpiazu Musika Eskolako musikarekin girotua.

12:00 Frontenis txapelketa, txosna batzordeak antolatuta, plazako pilotalekuan.

14:30 Bazkari herrikoa, txosnagunean. Bazkalostean,

JAIETAKO EGITARRAUA

antzerkia Txabela Bragas taldearen eskutik.

17:00 Jolas poteoa, txosna batzordeak antolatuta, kaleetan zehar.

18:00 San Migel pilota txapelketako finalurrekoak, Euskal Herriko kadete eta gazte mailetakoko pilotari onenak, Zubikoa pilotalekuan.

18:00 Hurren danborrada Udal Musika Bandak lagunduta.

► Ondoren: Buruhaundiak eta erraldoiak, Jose de Azpiazu Musika Eskolako triki-pandero taldeak lagunduta.

19:00 eta 22:30 *Lantzean behin* antzerkia, Olaiturri taldeak antolatuta, Santa Ana antzokian.

► Sarrerak 5 euroan salgai, Txokolateixan, irailaren 5etik aurrera, eta leihatilan egunean bertan.

20:00 *Jantzi antiejo moreak, erasoi erantzun!* lelopean manifestazioa, plazatik abiatuta.

22:00 Drumcopters, DJ Tarantistak, Vinagre de Moderna eta Dekot rock taldeen kontzertua, txosnagunean.

DOMEKA

25

Goizean zehar Aire libreko 14. margo lehiaketa.

09:00 Txistulari bandaren goiz-eresia.

10:30 Nazioarteko 57. artzain-txakurren trebetasun lehiaketa, Santa Lutzian.

12:00 Oñatiko Musika Bandaren kalejira.

13:00 Oñatiko Musika Bandaren kontzertua, plazan.

13:30 Ibilgailu klasikoaren karabana, txosna batzordeak antolatuta.

14:00 Ibilgailu klasikoaren erakusketa, txosna batzordeak antolatuta, plazan.

14:30 Aire libreko margo lehiaketaren sari-banaketa kultur etxean.

16:00 Bola-joko txapelketa, San Martinen.

18:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsak, kaleetan zehar.

MARTITZENA

27

18:00-20:00 Aire libreko 14. margo lehiaketako eta margo ikastaroetako ikasleen lanen erakusketa.

► Kultur etxeko erakusketa-gelan. Astelehenetik domekara, urriaren 16 arte.

EGUAZTENA

28

SAN MIGEL DE AOZARAZA EGUNA

► Begi Bistan erakusketa, Ilunpetan argazki taldeak antolatuta. Gaia:

Oñatiko kale-argazkilaritza. Foruen plazan, urriaren 4 arte.

18:00 Txaloka taldearen eskutik, *Bualá* haur ikuskizuna, plazan.

18:00-21:00 Beldur Barik Gunea (eraso sexistarik gabeko gunea), Unibertsitate etorbidean.

19:00 Urolatarrak Txaranga herriko kaleetan, txosna batzordeak antolatuta.

20:00 Txantxikuaren jaitsiera, jaiei hasiera emateko.

20:05 Pintxo-jatea, txosnagunean.

20:15 Disko festa, plazan.

23:00 Danborrada nagusia herriko kaleetan zehar. Amaiera plazan izango da.

00:00 *Euskal preso politiko eta iheslarien eskubideak errespetatu* lelopean manifestazioa, plazatik abiatuta.

► Ondoren disko festa, plazan.

02:00 Karaokea, txosnagunean.

EGUENA

29

SAN MIGEL EGUNA

08:00 Argazki erraldoia, txosnagunean.

08:05 Txokole-jana, txosnagunean.

09:00 Txistulari bandaren goiz-eresia.

11:00 Herri mailako plater tiroketa, Txopekua tiro-zelaian. Modalitatea: Olinpiar fosoa.

► Armak edukitzeko baimena eta Federazioaren lizentzia eskatuko da. Izen-ematea 15 euro, platerak barne.

12:00 Meza nagusia San Migel parrokian, koruak abestuta.

12:00 Oñatiko Musika Bandaren kalejira.

12:00-14:00 Haur parkea, Etxaluzen.

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak

*Ondo ibili
jaixetan!!*

Mekanizazio zerbitzu integralak

Zubillaga 13 - 20560 Oñati - tel.: 943 78 19 11 / www.mekalki.es / e-mail: comercial@mekalki.es

► Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

12:00-19:00 Gaztetxoaren eguna: gazteei zuzenduriko hainbat ekintza (tirolina, abentura jolasak...).

13:00 Oñatiko Udal Musika Bandaren kontzertua, Lazarraga jauregiko lorategian. Eguraldi txarra eginez gero, udaletxeko arkupeetan.

17:00 *Ongi etorri, errefuxiatuak*, txosnagunean.

17:00-20:00 Haur parkea, Etxaluzen. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

18:00-21:00 Oñatz kalerik kale, Portuko plazan hasita.

19:30 Philippe Menard One Man (blues) Band taldearen kontzertua, Atzeko Kalean.

22:30 *2057. Odisea bat kanposantuan* filmaren aurkezpena, txosnagunean.

23:00 Aukeran dantza taldearen *Fusioa* ikuskizuna, plazan.

EGUBAKOITZA

30

10:00 Sokamuturra plazan. Arno ganadutegiko zezenak.

13:00 Jotak, Voces Navarras taldearekin, Lazarraga jauregiko lorategian.

14:00 Pilota bazkaria, *Euskal presoak euskal pilotalekuetara*, txosnagunean.

17:00 Pilota txapelketako finala,

► Txosna batzordeak antolatuta, plazako pilotalekuan.

19:00 Arkana Has Soul taldearen kontzertua, Atzeko kalean.

19:30 Elkarretaratzea plazan, euskal preso politiko eta iheslarien eskubideen alde.

21:00 Karrikaldia txosnagunean: Txipittu, Harakiri, Herdoil eta talde sorpresa.

23:00 Doctor Deseo taldearen kontzertua, plazan.



Gazte bat korrika bigantxa atzean duela. | GOIENA

00:00-03:00 *Testing-a* Txosnagunean, Ailaket elkartearekin.

ZAPATUA

1

HERRI EGUNA

09:00 Txistulari bandaren goiz-eresia.

► Ondoren, kalejira egingo dute.

09:00 Herri mailako nekazaritza, abeltzaintza eta artisautza

produktuen erakusketa eta lehiaketa. Unibertsitate inguruan.

11:00 Kalejira.

► Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskolako triki-pandero eta soinu-joleen taldea, txistulariak eta Tolosako gaiteroak ibiliko dira herriko kaleetan.

11:00-14:00 *Beldur barik* gunea, Unibertsitate etorbidean.

12:00 30. Sagardo-dastaketa, plazan.

13:15 Lehiaketetako sari-banaketa.



Petti & Etxeko Usta taldea zuzeneko batean. | IMANOL SORIANO

14:00 Bazkaria Antixena gaztetxean, txosnaguneak antolatuta.

14:30 Herri bazkaria, Zubikoa kiroldegian.

17:00 Herriko gaztetxoekin herri kirolak, plazan.

18:00 Elizagoien Ahizpak trikitilariarekin erromeria, Atzeko kalean.

18:00 Profesionalen herri kirol jaialdia, plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

► Ondoren, Egan taldearen erromeria, plazan.

19:00 Ekitaldia: *Euskal preso politiko eta iheslarien eskubideen alde*, txosnagunean.

19:30 Parrokian F. Esnalen *Salbea*, Parrokiako koruak eta Oñati abesbatzak abestuta.

22:00 Mc Onak, Marianitos Blai eta Gaitzerdi taldeen kontzertua, txosnagunean.

DOMEKA

2

ERROSAIXO EGUNA

09:00 Txistularien goiz-eresia.

11:00-14:00 12 urte arteko haurrentzako ekitaldi bereziak (tailerrak, lehiaketak, puzgarriak, tirolina...), Erremerterri plazan.

12:00 Meza nagusia, Parrokiako koruak abestua.

12:00 Oñatiko Musika Bandaren kalejira.

► Ondoren kontzertua, plazan.

18:00 San Migel Pilota Txapelketako finalak, Euskal Herriko kadete eta gazte mailetako pilotari onenak, Zubikoa pilotalekuan.

19:00 Izaro eta Mor More taldeen kontzertua, Atzeko kalean.

19:00 Zingira eta Petti & Etxeko Uztaren rock kontzertua, txosnagunean.

20:00 Dantzaldia plazan, Tarantela Orkestrarekin.

20:30 Balkoitik balkoirako bertso-saioa Andoni Egaña eta Beñat Gaztelumendi bertsolariekin, Kale Zaharrea.

23:00 Musika, piroteknia eta argi-ikuskizuna, plazan.

► Ondoren, Dantzaldia plazan, Tarantela Orkestrarekin.

ASTELEHENA

3

ERROSAIXO BIXAMONA

09:30 Sokamuturra plazan. Arno ganadutegiko zezenak.

12:00 Oñatiko Musika Bandaren kalejira.

14:30 Paella-jana, txosnagunean.

17:00-19:30 Sokamuturra. Plazan, Kale Barrian eta Atzeko kalean. Arno ganadutegiko zezenak.

18:00 Rockalean bertso-taldearen kalejira ibiltaria.

18:00 Di-bertsioak herriko musikarien eskutik, txosnagunean.

20:00-23:00 Dantzaldia plazan, Lisker taldearekin.

MARTITZENA

4

17:00-19:30 Txosnagunearen desmuntatze herrikoa.

BARIKUA

5

22:30 Bertso jaialdia Zubikoa kiroldegian. Bertsolariek: Aitor Mendiluze, Maider Arregi, Amets Arzallus, Alaia Martin, Urko Eraña. Gai-jartzailea: Oñatiko Bertso Eskola (sarrerak salgai, Txokolateixian).

Dei
photography

Tel. 666 20 54 62
deifotografia@gmail.com
www.deianeunamuno.com

*Ezkontzak
Haurdunaldiak
Jaioberriak
Albumak
Saio profesionalak
Saio pertsonalak
Erreportaje familiarak*

Asteburu bakar batean eta segidan ospatuko dituzte aurten herriko jaiak

- ▶ Errosaixo eguna urriaren 2a izateak herriko jaien egitarauan eragin du aurten
- ▶ Bertso-saioa, atsolorra eta sokamuturra baldintzatuko ditu, batez ere, egutegi aldaketak

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Errosaixo eguna urriko lehenengo domekan izaten da beti Oñatin. Hori izan da, hain zuzen, aurten go jaiak baldintzatu dituen arrazoia. Izan ere, ohikoena izaten da herriko jaiak bi asteburutan ospatzea –lehenengoan San Migel jaiak eta bigarrenetan Errosaixo jaiak–. Aurten, ordea, aipatutako arrazoia dela eta, asteburu bakar batean ospatuko dituzte.

Nerea Zubia kultura zinegotziak dioenez, antolakuntzan eta egitaraua prestatzeko orduan aldaketa batzuk egin behar izan dituzte. "Puzlea osatzeko orduan moldaketa batzuk egin behar izan ditugu", adierazi du.

Bi asteburutan, erosoago

Kultura zinegotziak azpimarratu du jaiak asteburu bakar batean antolatzeak "zailtasun gehigarri" bat daukala. "Normalean, bi asteburuen artean dauden lanegun horiek aprobetxatzen ditugu bigarren asteburuko azken xehetasunak finkatzeko", dio. Aurten, aldiz, jaiak hasi aurretik "guztia prest" utzi behar dutela gaineratu du.

Aldaketak

Egitarauan ere aldaketa batzuk egin behar izan ditu udalak, egutegia dela eta.

Aldaketa nagusiak bertso-saioan eta atsolorrean izan dira –iazko jaietatik aurtengo jaietara bitartean jaiotako haurrei jaietako zapiak jartzea–. Lehena-ri dagokionez, ohikoa da Herri Eguren bezperan izatea; hala

ere, aurten San Migel biharamuna, irailaren 30a, ere bada egun hori, eta, horregatik, urriaren 7an izango da; astebete geroago, hain zuzen. Atsolorrari erreparatuta, normalean, San Migel biharamunean izaten da eta aurten irailaren 24ra aurreratu egin behar izan dute.

Bestalde, irailaren 30ean bertan, Doctor Deseo taldearen kontzertua egongo da. Horrek sokamuturra baldintzatu du. Izan ere, egun horretan arratsaldean izaten da sokamuturra eta aurten goizean izango da. "Kontzertua gauean izango da, baina soinu-probak egiteko plaza libre egon behar da. Horregatik jarri dugu sokamuturra goizean", azaldu du Zubiak.

Jende kopurua, zalantzan

Jaietan batuko den jende kopurua ere baldintzatuko du egutegi aldaketak. "Normalean, bi asteburu izatean, jendeak Errosaixo jaien aldeko aukera egiten du eta San Migel jaietako asteburuan kanpora joaten da", nabarmendu du kultura zinegotziak.

Kanpotik etortzen den jendearendako ere asteburu bakarra izango da. "Asteburu bakarrean, jende pilaketa egoteko aukera gehiago egongo da; hala ere, ez dakigu zenbat jende hurbilduko den. Agian, asteburu bakarra izanda, gutxiago ere etorriko dira. Ikusiko dugu", onartu du.

Gauza berria

Zinegotziak azpimarratu nahi izan du berarentzat ere lehenen-



lazgo jaien hasiera, Txantxikuaren jaitsiera. | GOIENA

go aldia dela eta kultura zinegotzia denetik ez zaiola inoiz tokatu jaiak asteburu batean izatea. "Niretzat ere berria da hau", azaldu du.

Jaiak segidan izanik, hauek hasi aurretik guztia prest utzi nahi du Udalak

Datorren urtean, Kilometroak

Iraila beti izaten da mugitua, nahiz eta oraindik jaiak ez hasi. "San Martingo jaiak, Haurren Eguna, Artzain Txakur Txapel-

Jaietan bilduko den jende kopuruan ere eragingo du egutegi aldaketak

keta, eta abar egoten dira eta lan handia egoten da", adierazi du Zubiak.

Datorren urtera begira ere lan handia aurreikusten du zinegotziak, Kilometroak festa dela eta. "Aurreratu egin dugu ikastolen aldeko festa eguna, baina lan handia egin beharra egongo da datorren urtean ere", dio.

Gaineratu du jaiak bukatu bezain pronto helduko diotela egun hori antolatzeari eta prestatzeari.

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

BALORAZIO PACKA:

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketak 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezkotako autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharririk izaten ez bada.

GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 30 09
Faxa: 943 78 31 36
Polts.: 620 77 66 20

SANMIGELAK 2016 | OÑATI



*Oñatiko Udalak
jai zoriontsuak
opa dizkizue*





Eltziako areto nagusian egin dituzte danborradako entseguak irailean zehar. | AMAIA TXINTXURRETA

Beste buelta bat gehiago haurren danborradari

Elkarren artean adostuta, postuak aldatu dituzte bi neska-mutikok

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Mutilak mutilen taldean eta neskek neskenen joan izan dira beti haurren danborradan, baina aurten egongo da aldaketarik: neskatila batek mutikoekin batera joko du danborra. Ez da, baina, zapatuko danborradan ikusiko den aldaketa bakarra.

Elkartrukea

Haurren danborradan nor joango den barrila jotzen edo nor sukaldari erabakitzeke, zozketa egiten da. Neskatila bati gastadore izatea tokatu zaio, baina ez zaio askorik gustatu. Danborra jotzea tokatu zaion mutiko bati, ordea, bai, eta elkartrukea egitea pro-

posatu dio eta bien artean adostu dute postuak trukitzea. Hala, mutikoekin batera neskatila bat joango da aurten danborra jotzen.

Aldaketa ondo ikusi dute haurren danborrada antolatzen ibili direnek. "Gure aldetik ez genuen inongo arazorik ikusten. Umeen gurasoekin hitz egin genuen, eta

han ere arazorik ez. Eurek adostu bezala, neskatila danborra jotzen aterako da eta mutikoa gastadore", dio antolatze lanetan ibili den Aitor Biainek.

Herriko gastronomia elkarreetako banderak astintzen neskatilak atera izan dira orain arte, baina aurten mutil batek erama-

teko eskaera jaso dute antolatzaileek eta hori ere natural ikusten dute.

Danborra

Haurren danborradako aldaketa guztiak, baina, ez dira genero ikuspegitik egin. "Poliki-poliki umeen danborrada aldatu gura dugu guk eta horren barruan ere sartzen dira aurten emandako pausoak. Ikusi genuen mutilei zuzendutako taldeak gehiago zirela neskei zuzendutakoak baino, eta hori aldatu egin nahi genuen, batetik. Era berean, umeek zer gura duten ere ikusi gura genuen, eta gehienek danborra jo gura dute. Hala, aurten, adibidez, ez da inuderik egongo eta neska-mutikoz osatutako danbor jotzaile konpainia berri bat egongo da. Baserritarren taldekoek ere joko dute, joan den urtean bezala, eta baita kantinerak ere. Aurten, gastadoreak izango dira danborra joko ez duten bakarrak, sukaldariak ere jotzen dute-eta", aurreratu du Biainek.

Guztira 150 ume inguru aterako dira kalera biharko haurren danborradan, Jose de Azpiazu musika eskolako laguntzarekin.

Nagusiena

Umeen danborradako entseguak bezala, nagusien danborradakoak ere Eltzian egin dituzte irailean zehar; eguenean egin zuten azkena, orokorra. Urtero moduan, San Migel bezperan, irailaren 28an, izango da nagusien danborrada, 23:00etan. Parte hartuko duten konpainiak ordezkatu dituen batzorde bat osatu dute antolaketa lanak egiteko, eta aurreko urteko danborradaren itxura izango du aurtengoak ere. Urte askotan parte hartu izan duen Pedro Mari Igartua gogoan hartzeko ekitaldiren bat eginez gero, Udalak bat egingo du.

Ondo pasa sanmigelak!



GEZALUS
ELEKTRIZITATEA

650 39 80 88

Era guztietako Instalazioak, Argiztapen Lanak, Berrikuntzak...

egaralur
construcciones eraikuntza lanak

Bidebarrieta 17, behea • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 07 15 • Faxa 943 78 08 62 • www.egaralur.net



- > Eraikuntza lanak
- > Industria-nabeen eraikuntza
- > Obra Zibila - Urbanizazioak
- > Industrialde eta etxebizitzaren promozioa
- > Etxebizitzaren eraikuntza

Ondo pasa jaixak!



Bihar egingo duten Egun Morea indartuta dator aurten. Irudian Egun Morearen une bat. | IMANOL SORIANO

Festa giroa eta aldarrikapena eskutik emanda txosnetan

- ▶ Txosna batzordeak hainbat nobedade dakartzan egitaraua osatu du
- ▶ Lehen aldiz eraso sexisten aurkako manifestazioa egingo dute bihar

MAITE TXINTXURRETA | OÑATI

San Migel jaietako jaigunerik garrantzitsuenetakoa izango da, beti bezala, unibertsitatearen aurrealdeko txosnagunea. Txan-txikuaren jaitsierarekin lehertuko da festa eguaztenean, eta ondo pasatzeko nahi beste ekintza egongo dira egunotan. Noski, aldarrikapenerako tarreak ere izango dira egitarauan.

Herriko hamaika eragilek hartu dute parte aurten txosnaguneko egitaraua prestatzen. Oñatiko Emakume Asanblada, Ernai, Udana Oñatiko Motor Taldea, SMEA, AHTrik Ez, Debagoiena Zutik, Fan

Hemendik, Mirentxin, Antixena gaztetxea, Euskal Preso, Iheslari eta Errefuxiatu Politikoen Lagunak eta Hotz Oñati izan dira horiek.

Morez margotutako jaiak

Azken urteotan Egun Morea antolatzen izan dute txosnagunean, eta aurten ere hala egingo dute. Irailaren 24an izango da, zapatua. Aurten, baina, txosna batzordeak eta herriko mugimendu feministak berdintasunaren aldeko eta eraso sexisten aurkako mezua indartu nahi izan dute. Hala, lehendabizikoz manifestazioa egingo dute herrian zehar. 20:00etan izango

da, plazatik abiatuta eta *Jantzi antiejo moreak, erasoei erantzun!* lelopean. Bestalde, erasoaren aurkako protokoloa izango dute beste urte batez.

Taula ganean ere emakumeak izango dira nagusi bihar. 22:00etan hasita, Drumcopters, DJ Tarantistak, Vinagre de Moderna eta Dekotek kontzertua emango dute.

Musika

Musikazaleendako toki aparta izango da txosnagunea sanmigelletan. Biharkoetz gain, hainbat talde pasako dira agertokitik egunotan. Hilaren 30ean karririkaldia

egingo dute, Ttipittu, Harakiri, Herdoil eta Arkaikorekin.

Herri egunean, berriz, McOnak lekeitiarrak izango dira gaueko plater nagusia. Errosaixo egunean, aldiz, doinu lasaigoak izango dira, Zingira eta Petti & Etxeko Uztaren eskutik. Errosaixo Bixamonean, berriz, bertsiendako tartea izango da.

Katxondeorako tartea

Barre egiteko aukera ugari izango dira jaietan. Esaterako, bihar, bazkari herrikoia ondotik, jolas poteoa egingo dute. Eta dagoeneko klasiko bihurtu den karaokea izan-

Estreinaldi handia

Pasa den asteburuan egin zuten *2057: Odisa bat kanposantuan* filmaren aurrestreinaldia Santa Ana aretoan, eta orain, San Migel jaietan, estreinaldi handia egingo dute.

2003an herriko lagun talde batek film labur bat egin zuen ogitarteko lehiaketa bati buruz. Oraingoan, honen prekuela egin dute; ordubeteko film luze bat, hain zuzen.

Ikusmin handia sortuko du estreinaldiak, proiektu herrikoia izan da eta. 80 aktorek eta 100 figurantek hartu dute parte.

Estreinaldia San Migel egunean izango da, 22:30ean.



Filmaren Grabaketa.

go da eguazteneko ordu txikietan. Bestalde, aurtengo gaupasero eta mendizaleen argazkia desberdina izango da, *retro* estiloan egingo baitute, antzinako teknikak erabilita.



Txosnetako logo berria | TXOSNA BATZORDEA

ULMA GARA

Ondo pasa jaietan!

Gara



Francis Diez | Doctor Deseo taldeko abeslaria

"Gu zahartzen goazen heinean, gure jarraitzaileak geroz eta gazteagoak dira"

- ▶ Doctor Deseok kontzertua egingo du hilaren 30ean
- ▶ Foruen plazan izango da zuzenekoa, 23:00etan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Doctor Deseo bilbotarrek kontzertua egingo dute hilaren 30ean, Foruen plazan, 23:00etan. *Igual y diferente. Una mirada distinta* diskoa oinarri hartuta egingo dute zuzenekoa eta "gogotsu" daudela esan dio GOIENARI Francis Diez abeslariak.

Orain arteko emanaldi guztietan arrakasta itzela izan duzue, izan areto barruan edo kanpoan.

Egia esan, gu ere harrিতuta gaude. Aretoetan sarrera guztiak saldu dira eta aire zabalean egiten ditugunetan ere jende asko egon da.

Oñatikoa aire zabalean izanda, nolako emanaldia izango da?

Kantu zerrenda bat daukagu oinarri moduan hartuko duguna. Azken diskoko kantuak izango dira emanaldiaren bizkarrezurra. Horiei, betiko klasikoak gehituko dizkiegu. Adibidez, *Abrazame* eta *Corazon de Tango*. Gainera, kantu berezi batzuk ere joko ditugu. Dena den, unean dugun gogoaren araberako errepertorioa egingo dugu. Sentsazioen araberako kontzertua izango da.

Entzuleak zenbateraino eragin dezake kantuan aukeraketan?

Gure ardura da entzuleak erakartzea eta kantuan eta dantzaz ipintzea. Eurak gustura badaude, gu hazi egiten gara. [Barre] *Igual y diferente. Una mirada distinta da azken lanaren izena. Zuen begirada ere aldatu da?*

Musikalki eta kantuen letretan begirada ezberdina erabili dugu. Beste begirada bat. Betiere, Doctor Deseok beti izan duen bideari jarraituz, baina ukitu, begirada, ezberdinekin.

Musikak eta zinematik bat egiten dute azken diskoan.

Portadan antzematen da zinemarekiko lotura. Louise Brooks aktorea dago, Hollywooden nazkatu eta Europara alde egin zuena. *La caja de Pandora* eta *Diario*

"Azken diskoko kantuak izango dira kontzertuaren bizkarrezurra"

de una mujer perdida pelikula egin zituen. Hortik abiatuta, kantu bakoitzak zerikusia dauka pelikula batekin eta baita arlo femeninoarekin ere.

Akaso, begirada ezberdina erabili duzue azken diskoan, baina letrak bikainak izaten jarraitzen dute.

Musika eta letrak eskutik doaz. Kantuak nik ezagutzen dudak ikuspuntu batetik idazten ditut. Ezagutzen dudak terrenean mugitzen naiz. Ez naiz egoista, eta nik idazten ditudan kantuak niretako dira, baina baita besteendako ere. Kantuetan kontaktzen dena edonori gerta dakiok. Egunerokotasuneko egoerak dira.

la 30 urte pasa dira Doctor Deseo delako diskoa kaleratu zenutenetik. Zein unetan zaudete?

Gogotsu eta fisikoki indartsu gaudela esango nuke. Ardo onaren moduan, hobetzen goaz urteekin. Hamabost disko egin ditugu, eta azkenak aurrekoak baino oihartzun handiagoa izan du. Hori luxua da musika munduan. Gainera, gure zaleen adina nola aldatzen den ikusteko aukera izan dugu. Gu zahartzen goazen



Francis Diez. | GOIENA


heinean, gure zaleak gaztetzen doaz. Umeak eta nerabeak datoz kontzertuetara. Kantuak buruz dakizkitez, eta hori ikustea plazera da guretako. Elkarrengandik ikasi egiten dugu. Aberastu egiten gara.

"Ardo onaren antzera, hobetzen goaz urteekin eta gogotsu gaude"

Euskaraz abesten entzungo zaituztete?

Bai, euskaraz abestuko dugu. 30 urteotan egindako disko guztietan euskarazko kantu bat sartu dugu. Gure hizkuntza euskara da. Ni, tamalez, berandu hasi nintzen euskararekin, eta ez daukat hitz egiteko gaitasun handirik. Baina euskaraz kantatzea atsegin dut. Nire ama euskal hiztuna da.

Bestalde, urriaren 2an Bergaran egingo den kilometroetan 45 minutuko emanaldia egingo dugu, euskaraz. Kantu guztiak euskaraz izango dira.



Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala

• Lan aholkularitza

• Kontabilitatea

• Zerga aitorpena

Ondo pasatu sanmigeletan!

Errementari plaza 2-3 behe
OÑATI



RPS:174/13

▲ M^a Angeles Mendizabal

● AHO SENDAGILEA

- Implantologia konbentzionala
- Gidatutako implantologia (punturik gabe)
- Odontologia estetiko
- Periodontzia
- Euskanera

Ondo pasa jaixak!

Arantzazuko Ama 2C-behea

20560 Oñati

Tel.: 943 71 60 71

mendikorta@outlook.com

Euskarari ordu asko eskaini dioten hainbat omenduko ditu Olaitturrik

19:00etan eta 22:30ean antzeztuko dute bihar, Santa Anan, 'Lantzean behin'

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatin euskarari ordu asko eskaini izan dioten hainbat lagun omendu gura dituzte Olaitturri kultur elkarteko kideek zapatuan estreinatuko duten *Lantzean behin* antzezlanaarekin. "Isilean lan handia egin zuten idazleei omenaldi txiki bat da", esana du Iñazio Irizarrek, antzezlaren egileak eta zuzendariak. Hala, hainbat idazle eta musikariren berri eman go dute, hala nola Txomin Agirre, Luis Villasante, Antonino Ibarondo, Bitoriano Gandiaga, Ruper Ordorika eta Jerardo Elortzaren berri.

Euskalkian

Idazleen gaineko kontuak errezitaldiekin, kantuekin eta ipuinekin tartekatuko dituzte.

Zortzi errezitaldi izango dira, guztiak Arantzazuko frantziskotarrenak: Kandido Izagirrenak bi, Salvatore Mitxelenarenak hiru, Bitoriano Gandiagarenak bi eta Pello Zabalarrena bat. Eta sei abesti kantatuko dituzte: bi Antonino Ibarondorenak, beste bi Joxe Mari Anduagarenak, bat Inaxio Ibarondorena eta beste bat Ruper Ordorikarena. "Ganbara abesbatzak eta Jose de Azpiazu musika eskolako kideek eta Parrokiako abesbatzak abestuko dituzte kantu horiek", azaldu du



Antzezlanean parte hartuko dutenetako batzuk Santa Ana aurrean. | MA

Jose Mari Anduaga musikari oñatiarrak.

Hiru ipuin ere kontatuko dituzte, hirurak Oñatirekin zerikusiren bat dutenak: Manuel Umerezena bata, Villasanterena beste bat eta hirugarrena Jerar-

do Elortzarena. Eta sei eszena ere bai. Apirilaz geroztik ibili dira entsegetan 22 lagun inguru eta eguenean, hilak 22, egin zuten azken entsegua Santa Anan. "Antzokia bera izan da entseatzeko ibili dugun tokia, baina

beste makina bat ekitaldi ere egiten da hor eta horrelakoak gertatu direnean Pake Lekun elkartu izan gara lanerako", azaldu du lanaren egileak, Iñaxio Irizarrek. Dio euskarari ordu asko emandako idazleak eta musi-

kariak omendu gura izan dituela antzezlana honetan: "Hamasei dira, baina euren artean ez dute zerikusirik edo ez dute istoriorik bata bestearekin lotzeko. Omenaldi bat da Oñatin euskarari ordu asko eskainitako jendeari. Lehen, bereziki fraideak ziren hori egin zutenak, eta haiek ere omenduko ditugu".

Antzezlana euskaraz da eta jatorrizko euskalkia mantentzen saiatu dira. Hala, Umerezena eta Villasanterena zati bana jatorrizko euskalkian errezitatu dituzte, dituen zailtasunekin. "Zailtasunak baditu, bai, baina era berean oso interesantea ere bada ikustea ze zailtasun zuen lehengo euskalkiak", azaldu du Iñaki Olalde.

1977tik

Duela 39 urte, 1977ko Herri Eguenean egin zuen Olaitturri kultura elkarteak lehen herri antzezlana. *Herri ezteia* zuen izena eta herriko kaleetan eta Foruen plazan egin zuten. Biharkoa hamargarrena izango da. Herriko jai nagusien barruan egin dituzte denak, *Lantzean behin* moduan. Hasierako urteetatik hona taldeko hamaika lagun hil dira, eta horiek ere gogoan izango dituzte.

Bi emanaldi egingo dituzte bihar eta sarrerak salgai daude, bost eurotan, Txokolateixian.



- Gasa
- Berogailuak
- Pellet eta egurrezko estufak
- Eguzki plakak
- Energia berritzaileak
- Isolamendu ekologikoak: zelulosa, kortxo proiektatua eta xafla termikoak.
- Sukaldeak
- Bainurako behar duzuen guztia

Ondo pasau jaixak!

Kale Zaharra 17
Tel.: 943 71 82 49 • Mugikorra: 635 74 62 26
e-posta: e.inurritegi@gmail.com

Ondo pasa jaixetan!



Kale barria 20 • Errekalde 8
OÑATI
Tel.: 943 78 01 54 • txantxiku@telefonica.net



Iazko podiumean, sari nagusiarekin, Gilles Etchegoen eta beste hainbat artzain. | GOIENA

Artzain-txakurren trebeziak eta askoz gehiago, Santa Lutzia zelai inguruan

Askotariko berrikuntzak egongo dira nazioarteko txapelketaren harira

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Hamalau txakur lehiatuko dira 57. Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketan, irailaren 25ean, 10:30ean. Tartean egongo da Jose Mari Bengoa oñatiarra *Eder* txakurrarekin, Gipuzkoako Txapelketa irabaztearren. Beste izen propioak dira Gilles Etchegoen eta *Gaua* txakurra, iazko irabazleak. Eurekin batera egongo dira Hego eta Ipar Euskal Herriko,

Mallorcako, Kataluniako, Castelloko, Frantziako eta Biarnoko txapeldunak.

Txakurrek bi ariketa egin beharko dituzte artzainen aginduetara, epaimahaiko kideek esandakoa beteaz. Onenak final handira pasako dira eta trebeziak jantziko du txapela.

Horixe, txapelketari buruzko informazioa, urterokoa, berrikuntzarik ez duena.

Hamalau txakur lehiatuko dira Nazioarteko 57. txapelketan

Txakurren bestelako trebeziak saioa eta artisauen azoka egingo dituzte

Bestelako trebeziak

Aurtengo berrikuntzak txapelketaren beraren inguruan egingo diren ekintzak izango dira. "Ikusle kopuruak behera egin du azken urteetan. Horiek erakartzeko egingo ditugu aparteko ekintzak", esan dute antolatzaileek.

Irailaren 25ean Oñatira joaten direnek txakurren trebeziak gozatzeko aukera izango dute, besteak beste. Master Can taldeko txakur-hezitzaileek askotariko ariketak egingo dituzte txakurrekin: jolasak, saltoak egin, tunelak pasa, arauak betetzeko eskatu, sigi-sagak egin, futboleko jokatu, marrazkiak egin... Proba horietan parte hartuko duten txakurrak arlo ezberdinetan trebatutakoak dira. "Ardiak gobernatzen baino harago, beste hainbat arlotan trebeziak direla erakutsiko dute", diote. San Martingo autokarabaren aparkalekura joaten diren ikusleek ere ariketetan parte hartzeko aukera izango dute.

Bestalde, txakurren eta ardiaren ilearekin lan egiten duen Conchi Moreno oñatiarraren lanak ikusteko aukera egongo da. Ondo garbitu ostean, ile mota horiekin egin daitezkeenak erakutsiko ditu: zapatilak, jantziak, mantak, lanparak...

Herriko tailaginen lanak ikusteko aukera ere egongo da.

Goiza modu erosoan pasatu ahal izateko, bestalde, txosna ere ipiniko dute. Herrian egiten diren ardi-gaztak dastatzeko aukera egongo da. Taloginak ere egongo dira han.

Sarrerak hiru euro

Txapelketa ikusi eta beste ekintzekin gozatu gura dutenek hiru euro ordaindu beharko dute -12 urtetik beherakoak doan-. Bi sarrera egongo dira: San Martinen bata eta Berezaio auzorako bidean bestea.



PODOLOGIA

RPS: 309/13

Ondo pasa sanmigelak!

Arantzazuko Ama 19 A - Oñati
Tel.: 943 53 36 37

Jai dotoreak izan!

ileak

marikarmen ile apaindegia

san lorentzo 9 a - behea
tel.: 943 71 60 46
OÑATI

Bertsolaritza maite dutenek hitzordua daukate Oñatin

Urriaren 7an egingo dute aurten San Migel jaietako bertso saioa

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Normalean ez bezala, aurten Oñatiko San Migel jaietako egun guztiak segidan izango dira, egutegi aldetik horrela tokatu delako. Horrek festetako egitarauaren planteamenduan zenbait aldaketa eragin ditu, eta sanmigeletan ohikoak diren ekitaldi batzuk jai egunetatik kanpo egingo dituzte aurten.

Horietako bat, esaterako, urteroko bertso jaialdia egunez aldatzea izan da. Hala, aurten urriaren 7an egingo dute, jaiak bukatu ostean. 22:30ean izango da hitzordua Zubikoa kiroldegian.

Bertso saioa

Orain arte Herri Egunaren bezperan egin izan dute San Migel jaietako bertso saioa Oñatin. Aurten, baina, egun horretan, gauean, Doctor Deseo musika talde ospetsuak kontzertua emango du, jaietako musika emanaldirik nagusietakoa izango dena. Hori dela eta, hitzordu biak momentu berean ez jartzearen, bertso saioa egunez aldatzea erabaki dute, eta jai egunetatik kanpo egitea, beraz.

Bertsozaleendako eta hainbat herritarrendako ezinbesteko zita izan ohi da jaietako bertso saioa, Errege bezperan urtero antolatzen denarekin batera. Bi horietan puntako bertsolariak etorri izaten

dira Oñatira, eta oraingo honetan ere hala izango da.

Sei bertsolarik hartuko dute parte bertso saio horretan: Aitor Mendiluze, Amets Arzallus, Alaia Martin, Maialen Lujanbio eta Oñatiko Urko Egaña eta Maider Arregi, hain zuzen. Herriko bertso eskolako kideak arituko dira gai-jartzaile lanetan.

Herriko ordezkariak

Bertsolari horien artean, Urko Egaña azpeitiarra da izatez, baina gaur egun Oñatin bizi da, eta bertako bertso eskolan dihardu. Berarentzat ez da lehen aldiz izango jaietako bertso saioan, izan ere, duela bi urte ere bertan abestu zuen.

Egañak aipatu du "berezia" dela horrelako saio batean parte hartzea, herriko jende ugari ger-

Urko Egaña eta Maider Arregi izango dira herriko ordezkariak



Arregi eta Egañak hartuko dute parte. | BERTSOZALE ELKARTEA ETA GOIENA

turutzen baita. Urduritasunaz galdetuta, azaldu du nerbioak ez direla izaten ondoan izango dituen bertsolariengatik edo ikusten jende asko egongo delako, baizik eta "norberak eman dezakeen mailagatik": "5 pertsona edo 500 pertsona egon, jendearengana heltzeko gogoia beti berdina da. Beti nahi izaten dugu ahalik eta ondoen egitea".

Urtebetez bertso mundutik aparte egon da Urko Egaña, eta uda hasieran ekin zion atzera ere saioetan parte hartzeari. Hori dela eta, aipatu du "gogoz" dagoe-la berriro ere "martxa hartzeko".

Maider Arregi izango da urriaren 7an Oñatiko beste ordezkaria. Arregik 20 urte ditu, baina gaztea izanagatik badu esperientzia Oñatiko jaietako bezalako plaza garrantzitsuetan.

Maila onean dabilela erakutsi du Arregik. Horren erakusle, esaterako, Gipuzkoako Bertsolari Lehiaketan egindako lana. Lehenengoz lehiaketarako sailkatzea lortu zuen, eta final-laurdenetaraino iritsi zen.

Puntako bertsolariak

Egañaz eta Arregiz gain, beste lau bertsolari izango dira Oñatin, guztiak ere ezagunak eta lehen mailakoak. Horien artean, Euskal Herriko bi txapelkun izango dira: Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus, hain zuzen. Alaia Martin gazteak eta Aitor Mendiluze beteranoak osatuko dute Zubikoa izango den taldea. Ez galtzeko moduko hitzordua izango da, beraz, bertsozaleendako.

Sarrerak salgai

Urriaren 7ko bertso saio horretarako sarrerak Txokolateixan eskuratu daitezke. Horrez gain, egunean bertan leihatilan erosi ahal izateko ere gordeko dituzte sarrera batzuk.


PAPER ETA JOSTAILU DENDA

TRIKITX



Kale Barria 44
20560 OÑATI
943 08 82 28
egin@trikitx.eus

Ondo pasau jaixak



LIZARRALDE

KIROLAK

ondo pasau jaixak!



ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47

OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

LEGAZPI
Patrizio Etxebarria 2
Tel.: 943 08 28 46

Bi tirolina eta 'paintball'-a ume eta gazteendako

Gaztetxoekin batera antolatutako hainbat ekintza izango dira aurten ere txosnagune inguruan

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Aurtengo jaietan ere ume eta gaztetxoek ez dute aspertzeko astirik izango.

Gaztetxoekin eguna

San Migel egunean, gazteekin batera Udaleko haur eta gazteria zerbitzuek antolatutako ekintzak izango dira txosnagune inguruan. 11:00etatik 14:00etara unibertsitate aurreko zelaian, erreka bazterrean, *paintball*-a egin ahal izango da. Iaz bezala, aurten ere Kluedo rolen jokoa ibili ahalko dira gazteak (12:00-14:00), eta horren ostean, txosnagunean bazkaltzeko aukera izango da, txartelak aurrez Gaztelekuan erosita. Iaz bezala, aurten ere tirolina jarriko da kanpandorretik (15:00-19:00), baina aurten txandak aurrez banatuko zaizkie gaztetxoei Gaztelekuan. Eta Ailaket elkartearen eskutik, tailerrak

izango dira alkoholaren eta drogen efektuen kalteez sentsibilizatzeko, eta prebentzioa lantzeko (15:30-18:30). Bestetik, kiroldegian, gazteak haizezko burbuilatan sartuta, futbol partiduak egingo dituzte (15:30-18:30). Hori 12-16 urte bitartekoendako izango da.

Haur parkea

Etxeko txikiagoendako, berriz, egun berean, San Migel egunean, haur parkea izango da Etxaluzen (12:00-14:00 eta 17:00-20:00); eguraldi txarra egingo balu, Zubikoan. Hainbat gauza izango dira: puzgarriak, trentxoak, ludoteka, mahai-futbola, motorrak eta salto egiteko *jumping*-a, besteak beste.

Erremerentari plazako ekintzak

Errosaixo egunean ere, ume eta gaztetxoek izango dute zertaz



Mutikoa puzgarri batean surfa egiten, iaz jaietan Zubikoa kiroldegian egin zen haur parkean. | IMANOL SORIANO

gozatu. Tirolina dezenteko bat jarriko da lehenengoz Errota aldeko eskailera tartean, herriko saihasbidetik plazatoraino jaitsiko dena. Orain dela bi urte egiteko asmoa zegoen, baina euriagatik kiroldegian egin beharra egon zen. Kutxen dorrea, ohe elastikoak eta *paintball* diana ere izango dira gaztetxoendako. Eta txikiagoendako, berriz, aurrean dagoen plazatxoan, tailerrak, puzgarriak eta aurpegi margotzea izango dira.

Bestelako ekitaldiak

Aurten jaiotako haurrei ongietorria egingo zaie Udaletxean, beste urte batzuetan bezala. Aurten 120 ume inguru izango dira, eta jaietako zapi bana banatuko zaie, Jose de Azpiazu Musika Eskolako musikaz girotuta egongo den ekitaldian. Bihar, zapatua, egingo da hori.

Buruhandiak eta erraldoiak ere irtengo dira kalera jaietan; lehenengo aldiz, bihar, zapatua, 18:00etako haurren danborrada-

ren ostean, eta etzi, domeka, ere irtengo dira, 18:00etan.

Antzerkiaz gozatzeko aukera ere izango da eguaztenean 18:00etan. *Buala* haur antzerkia egingo da Foruen plazan. Buala izeneko sukaldaria saiatuko da inoiz prestatu duen postrerik goxoa gertatzen.

Barrakak, berriz, urriaren 4ra bitartean egingo dira eta bidaiak 1,80 euro balioko du. Gaur, egubakoitza, euro batean egingo da bidaiak.



ilusiorako hamaiika arrazoi



Frutak eta barazkiak ekoizten dituzten herritar guztiek eraman ditzakete euren produktuak azokara. | AITOR AGIRIANO



Gipuzkoako sagardogileak egongo dira Foruen plazan. | IMANOL SORIANO

Egun osoan kalean egoteko modukoa izango da aurtengo Herri Eguna ere

Sagardoa, gazta, animaliak, artisauak, taloak eta kirola egongo dira

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Eguna goiz hasiko du batek baino gehiagok Herri Egunean. Herritar gehienak kalera iritsi orduko Unibertsitate aurreko berdegunean izango dira hainbat abelburu, ardi, ahari, behor, asto eta txerri. Baita herriko zenbait baserritar ere euren inguruan. Barazkien eta fruten barietate, tamaina eta koloreak ere bistan egongo dira eta klaustroan egon ohi diren artisauak eurek eskuz

egindako kandela, bitxi, xaboi, jertse, narruzko poltsa edo egurrezko ordulariak erakusgai eta salgai izango dituzte. Txorizo usaina ere egongo da, herriko tabernan lanean egongo direnak ere goiz jaikiko dira-eta egun horretan, taloekin egindako ogitartekoak eskaintzeko. Sagardogileak ere ez dira ohetik altxatzen azkenak izango, eta Foruen plaza botilez eta kupelez beteko dute, beste behin.

Nekazarien Elkarteko kideak uda aurretik hasi ziren lanean

Ume, begetariano eta zeliakoendako menuak ere izango dira bazkarian

Bazkaria

Ezker abertzalearen ardura izango da aurtun ere herriko taberna ardura, hura izan baita aurkeztu den talde bakarra.

Animaliak, frutak, barazkiak eta gaztak, berriz, Nekazarien Elkartearen ardurapean egongo dira. Elkarre horretako bazkideek antolatzen dute egunaren zati hori, udalarekin batera, eta aurtun ere hogeitahogei lagunetik gora ibiliko dira egun horretan lanean. Herritarrak animatu gura dituzte, etxean ekoizten dituzten produktuak Herri Egunean kalera atera eta erakusteko.

Bazkari herrikoian umeendako, zeliakoendako eta begetarianoendako menua ere izango da, aurrez eskatuz gero. Txartelak salgai daude Olakua, Arrano, Boga eta Izarraitz tabernetan. Arratsaldean herri kirolak egongo dira Foruen plazan.


OGI BERRI

MURUAMENDIARAZ
GOZOTEGIA 1939

Ondo pasa sanmigelak!



Kale zaharra, 24 • Oñati • 943 03 93 18



MAPFRE

Urte askotan
oñatiarren zerbitzura!




Ondo
pasau
jaixak!

Portu kalea 5 • 20560 Oñati
Tel.: 943 78 12 65 • Faxe: 943 78 07 85



SANMIGELAK 2016 OÑATI



ETORRI GUREKIN OSPATZERA!

Izarraitz • Urtiagain
Boga • Ongi etorri
Zurrust • Soraluze
Living Caffé Txurruka
Olakua • Garoa
Aker • Zotz



SANMIGELAK 2016

ARETXABALETA
JAIETAN!



- ▶ Azoka eta herriko tomatea
- ▶ Abesbatzaren emanaldia
- ▶ Talo ikastaroa eta postua
- ▶ Herri kirolak eta pilota
- + JAIETAKO EGITARAU OSOA

Beinke-Loramendi
dantza iaz, Herriko
Plazan.

GOIENA



UNAI ITURRIOTZ
ONDO PASAU SANMIGELAK!

- Abokatua
- Bitartekaria
- Aholkulari juridikoa



Errekabarren 18, behea
20550 ARETXABALETA



943.080796



943.080796



696378909



unai@iturriotz.eus



www.iturriotz.eus

AGURRA



UNAI ELKORO
Aretxabaletako
alkatea

Euskal giroan
murgiltzeko jaiak

Uda atzean utziaz
bat udazkena
agurtzeko
bertan ditugu
sanmigelak.

Aretxabaletarron-
tzat jai kuttuna bihurtu
zaigu asteburu luze
hau, etengabeko festa
bilakatuta.

Iaz azpimarratu
nuen sanmigelek
kulturarekin daukaten
lotura nabarmena,
musikan, dantzan, jantzi
dotoreetan, azokan...

Edonon nabarrituko
dugu. Aurten animatu
nahi zaituztet euskal
giro honetan murgiltze-
ra, bete-betea, baina ez
soilik festetan, astelehe-
netik aurrera, urtean
zehar izan gaitezen
euskaldun. Disfrutatu
festak eta ondo pasa.
Gora sanmigelak!

EGUBAKOITZA

23

19:00 Arrasateko kilikien konpartsa
ertaina eta Aretxabaletako
ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK
gaitariekin batera kaleetan.

21:00 KANTU AFARIA Herriko
Plazan, Sei Pistols & Trabuko bat
taldeak girotuta.

ZAPATUA

24

10:00-14:00 Artisautzaren eta
Nekazaritza Ekologikoaren 22.
FERIA, Durana kalean, eta bertako
Ganaduaren III. Feria, Arlutz
kantxan.

10:00 DIANA, txistulariekin.

10:30 Loramendiko Iristu gazte
taldeak antolatutako TONBOLAren
irekiera.

10:30 Loramendiko Tril emakume
taldeak antolatuta, TALO TXOSNA,
Pagaldai tabernan.

11:30 Leizarra musika eskolako
TRIKITILARIAK kaleetan.

12:45 TXALAPARTA doinuak
Durana kalean.

13:00 Simon Otxandategi taldearen
JOALDUNAK.

14:30 HERRI BAZKARIA Iturrigorri
frontoian.

JAIETAKO EGITARRAUA



Beinke-Loramendi dantza iaz, Herriko Plazan. | GOIENA

18:00 BOLO TXAPELKETA
bolatokia. Izen-ematea bertan: 10
euro.

19:30 Beinke-Loramendi DANTZA
ekitaldia, Herriko Plazan.

20:00-21:30 Alaiki taldearekin
DANTZALDIA Herriko Plazan.

22:00 PILOTA PARTIDAK Iturrigorri
frontoian.

► Lau t'erdian: Tainta - Mendizabal

► Partidu nagusia: Titin -Lasa IV.a
Saralegi-Gorrotxategi

22:30-00:30 Alaiki taldearekin
DANTZALDIA Herriko Plazan.

00:00-03:00 TESTING PROGRAMA
(Ai Laket! elkarte): Substantzia
ilegalen testa eta analisisa Mitarte
kalean.

DOMEKA

25

11:00 DIANA, Aretxabaletako
gaitariekin.

11:00 Basotxo elkartearen eskutik
DOKE TXAPELKETA, Basotxo
aurrean.

13:00 HERRI KIROLAK, Herriko
Plazan.

► 1. atala. ERAKUSTALDIA

• Aizkolariak: Ernesto Ezpeleta
Bihurri, Jose Mari Olasagasti,
Donato Larretxea eta Alex Txikon.

• Iparraldeko jokoak: Oskar Basatxu
eta Laura Basatxu. Aita-alaba
arteko norgehiagoka.

• Harri-jasotzaileak: Joseba
Ostolaza eta Udane Ostolaza.

► 2. atala. NORGEHIAGOKA. Euskal
pentlatoia bi laukoteraren artean:
aizkoran, harri-jasotzen, trontzan,
txinga eramaten eta korrika.

► 3. atala: MOTOZERRA FROGA

► 4. atala: IKUSLEENTZAKO
EKINTZAK: trontza, txingak...

16:00 24. Sanmigela MUS
TXAPELKETA Herriko plazan.
Izen-ematea (15:15etik 15:45era):
20 euro.

19:00 Sanmigeletako
KONTZERTUA Aretxabaleta
Abesbatzaren eskutik, musikariak
eta dantzariak lagun dituztela,
Iturrigorri pilotalekuan.

Gemes

Irudi aholkulariak

Ondo ibili
sanmigeletan!

SAIO BAKOITZA

15€ -TIK
AURRERA

DIDO LASERRA, PUNTA-PUNTAKO TRATAMENDUA

MIN BARIK, BAITA AZALILUNETAN ERE

15€: Begitartea

20€: Ezpain gaina - Ezpain azpia - Kokotsa
Masailalboa - Patilak - Behatzak
Titiburuak Alba marra - Pubisa - Belarriak

35€: Beso erdia (bakoitza) - Sorbalda
Iztaiak (normala) - EskuakGerrialdea
Kokotea - Lepoa - Oinak - Belaunak
Ipurdi-arteak

55€: Besapeak

75€: Hanka erdiak - Iztaiak osorik -
Besoak - Masailak - Kokospea
Sabel aldea - Bizkarra

150€: Hankak osorik

**ESKAINTZA
BEREZIAK:**

Iztaiak eta besapeak: **89€**

Ezpain gaina eta kokotsa: **35€**

Bularra + Bizkarra: **140€**

Hankak osorik + Iztaiak +
Besapeak: **185€**

Prezioak sasoiko zona bakoitzarentzat dira. 2 edo 3 hilean behin, saio bat.

PROBA DOHAINIK



GUUREA



Gora, sanmigelak!

TABERNA

Durana 32 ARETXABALETA Tel.: 943 79 20 64

Ondo pasa sanmigelak!



OGI BERRI

MURUAMENDIARAZ
GOZOTEGIA 1939

Mitarte kalea 1
Aretxabaleta
943 53 39 05



Taloak jateko aukera zapatuko azokan

Loramendi Elkarteko Tril Emakume Taldeak Pagaldai taberna ohian izango du postua

IBON CARMONA | ARETXABALETA

Aurten ere, San Migel zapatu goizeko azokarekin batera, herritarrek taloak jateko aukera izango dute, Loramendi Elkarteko Tril Emakume Taldearen eskutik. Era horretan, elkarteko kideek txistor, txokolate, hirugihar zein saltxitxa taloak salduko dituzte Pagaldai taberna ohian. Hain zuzen ere, 10:30etik 14:00ak arte egongo da zabalik postua.

1993an herriko zenbait emakumek baserrian ikasitakoa praktikan jarri zutenetik hona, aretxabaletarrek janari postu horretaz gozatzeko aukera izan dute urtez urte. Talogileen lehenengo belaunaldi hartako hiru emakumek oraindik jardunean dihardute, eta bihar bertan izango dira, beste herritar batzuekin batera, taloak prestatzen.

Aurretik ikastaroa

Hala ere, biharkoa ez da emakume horien asteko hitzordu bakarra izango. Joan den eguenean, taloak egiteko ikastaroa eskaini zuten Muru Alde elkartean. Hamabost bat pertsona elkartu ziren, eta jaki horren prestaketak dituen pauso ezberdinak ezagutzeko aukera izan zuten.

Bestalde, ikastaro horretan gidari lanetan jardun zuen emakumeetako bat Karmele Untzuetan izan zen, Tril Emakume Elkarteko kidea. Eta, haren esanetan, "prozesuak hasiera batean konplikazio handirik ez daukala dirudien arren, eskarmentua izatea ezinbestekoa da behar bezalako talo bat jateko".

Batez ere, masa zelan egin ikasi zuten; izan ere, hori da talo on bat egiteko sekretua. Edozelan ere, Untzuetari bere sekretua zein den galdetuta, "bakoitzak



Emakumeak, baserriar jantzita, taloak prestatzen. | IMANOL SORIANO

bera" duela erantzun du hark. "Garrantzitsuena arto-irinaren kalitatea da, freskoa izan behar du eta. Masa egiterakoan, hura ur beroarekin busti, eta, tenperatura beroan mantenduta, txapara pasatzen da. Bertan, taloak ez du egosi behar, erre baizik", gehitu du.

Muru Aldera bertaratu zirenek aukera paregabea izan zuten jaki horren prestaketan adituak direnen aholku eta sekretuak

entzuteko. Ikastaroaren amaieran, ikasitakoa praktikan jarri eta gero, egindako taloak jateko aukera ere izan zuten.

Taloez gain, dardoak

Pagaldai taberna ingurura gerturaten direnek, taloak jan eta edariak hartzeaz gain, sari ezberdinak lortzeko aukera ere izango dute, Loramendi Elkarteko kide Iritzuz Gazte Taldeak dardo postu bat ipiniko du eta. Dardoak jaur-

tiz, besteak beste, kontserba-produktuak, ardo botilak eta kamisetak irabazi ahal izango dira.

Postua goizeko hamar eta erdietan irekiko dute, eta, hain zuzen ere, sariak agortu arte egongo da zabalik. Dardo bakarra jaurtitzeko euro 1 balioko du eta bostek, 4 euro. Bertan batzen den diru kantitatea elkarrekin etorkizunean antolatuko dituen gazte ekintzetara bideratuko dute.

GARAJE NORTE

OPEL MOKKA X BERRIA

GIDATZEKO
BESTE
MODU BAT.

BENETAKO KLASEA
BARRUTIK DATOR



OPEL OnStar®

Zerbitzu eta konektibitateko zure laguntzaile pertsonala



ZURE AUTOAK 4G WIFIA DAUKA!

Potentzia handiko OnStar® antena dago sabaian, konexio azkar eta iraunkorra izan dezazun, zazpi gailu konektatzeko aukerarekin.

AUTO MARKA GUZTIAK
KONPONTZEN DITUGU.



BOSCH DIAGNOSI-ZERBITZUA

* Deskontuak www.myOpel.es webgunean izena emanda dauden Opel autoentzako aplikagarriak. ** Autoaren adina lehenengo matrikulazioaren datan oinarritua. Deskontu baliagarriak 4 urtetik aurrerako Opel autoentzako bakarrik. *** Deskontua Tailer Mekanikoak egindako lan guztietan aplikagarria. Osagarriak eta pneumatikoak ez daude barne. Eskaintza hau ez da beste promozio batzuekin bateragarria. 2016ko abenduaren 31ra arte baliagarria. General Motors España SLUK programa hau alda/ken dezake.

	ZURE AUTOAREN ADINA **	DESKONTUAK PIEZETAN TAILER MEKANIKOAN EGINDAKO LANETAN ***	DESKONTUA ESKULANEAN
+	4 URTE	% 10	% 10
+	7 URTE	% 20	% 20



www.myOpel.es

Siempre cuidamos lo que fabricamos | Posventa Opel

GARAJE NORTE (OPEL zerbitzu ofiziala)

BASABE POL. A 1-3. pab. • 20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 71 20 03



Iazko azokan herritarra produktu ekologikoak erosten. | GOIENA

Aretxabaletako Nekazaritza eta Artisautzaren Azoka Ekologikoa bertako produktuz josita izango da

Hirugarren urtez, herriko baserritarrek animaliak eramango dituzte Arlutzeko kantzara

IMANOL BELOKI | ARETXABALETA

Aretxabaletako Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren XXII. Azoka irailaren 24an ospatuko da. Durana kalean jarriko dira postuak, eta 10:00etatik 14:00etara bitartean izango dira irekita. Egongo da zer ikusi, eta zer gozatu; izan ere, inguruetako artisau, abeltzain eta nekazariak produktu ezberdin ugari erango dituzte bertara.

Udalak balkoietan edo leihoe-tan ikurrinak jartzera animatu nahi ditu aretxabaletarrak, eta, bide batez, kalera baserritar jan-

Herriko bertako produktuak izango dira eta Euskal Herri osotik ekarritakoak

tzita irteteko eskatu die herritarrei. Hala, baserritar trajea jantzita, eta postuak ikusiz, giroan murgildu eta Loramendi Elkarteak prestatuko dituen taloak jateko aukera ere egongo da, trikitilarien eta pandero-joleen musika-rekin batera.

Produktu ekologikoz osatutako hogeitau postu izango dira guztira aurtengo azokan, eta horietatik lau herritarrek jarritakoak izango dira. Mendibitzuko ardi-gazta eta haragia, Maria Jesus Rebueltak ekarritako barazkiak eta Kurtzebarri eskolako ikasleek eta Jose Lonbidek ekarriko dituzten barazkiak. Hauez gain, sagardo, eztia, arropa, landareak, ogia eta barazki ugari izango dira.

Azokaren hastapenetatik antolaketa lanetan aritu den Martin Garaik azaldu duenez: "Urtero moduan, hainbat produktu ekologiko izango ditugu San Migel jaietako azokan. Herriko bertako produktuak eta Euskal Herri osotik ekarriko dituztenak. Iazko azokaren antzera, ez dago aldaketa handirik; izan ere, postu kopurua bera da, eta urtero postua jarri dutenak bertan izango ditugu. Hala ere,

ERAIKI EUSKADI

SANMIGELETAN JAI!!
ETA DOMEKAN, **BOZKATU URKULLU » LEHENDAKARI**

U» URKULLU LEHENDAKARI

eaj pnv

Artisauen 35 postu izango dira aurten San Migel jaietako azokan

aurten, Arabako Lagran herri-tik ekarritako hestekiak ere izango dira postu batean, berri-tasun moduan".

Artisau postu ugari

Barazki eta fruitu ekologikoez gain, artisauak ere protagonista dira Aretxabaletako azokan. Azken urteotan gora egin du artisauen kopuruak egun honetan, eta aurten 35 postu izango dira guztira.

Euskal Herri osoko ekoizleak elkartuko dira etxerako moduko hamaika produktu eskainiz, eta horietatik sei postu herri-tarrek jarritakoak izango dira. Artilea, eztiak, bitxiak, otarreak, ardi-gazta, xaboa, euskal pastelak, larrugintza, kremak, zilarrak, sendabelarra eta alpagatak ikusi eta erosteko postuak izango dira, besteak beste. Gainera, hainbat artisauk produktuak azokan bertan ekoiztuko dituzte, eta nola egiten duten ikusteko aukera ere izango dute azokara doazenek.

Umeak ere protagonista

Umeak ere protagonista izan ohi dira Aretxabaletako azokan. Arizmendi eta Kurtzebarri ikas-



Ander Anduagaren baserriko tomate mozkorrak. | IMANOL SORIANO

Azoka ekologikoan, tomate erakusketa

Tomatearen astearen barruan, tomate erakusketa herrikoia izango da zapatuan. Parte-hartzaileek ekarritako produktuak 10:30etatik 13:00etara izango dira ikusgai Herriko Plazan.

Sariak, berriz, 14:00etan banatuko dira, eta irabazleek bertako produktuekin osatutako otarra jasoko dute. Tomate pisutsuarentzat, itsusiarentzat eta bariatate gehien erakusten duenarentzat.

tetxeetako gaztetxoek postua jarri izan dute urtero, eta edizio honetan ere ez dute hutsik egingo.

Kurtzebarri eskolakoek ortuan beraiek ekoiztutako produktuak eta marmelada salduko dute, eta Arizmendikoek, berriz, beraiek egindako krispetak, hojaldre-lazoak, pintxoak... besteak beste.

Herritarrek baserriar jantzita irtetera animatu nahi ditu Udalak

Ikastetxeetako gazteak ere azokaren parte

Arizmendi eta Kurtzebarri ikastetxeetako haurrek postuak jarriko dituzte. Kurtzebarri eskolakoek ortuaren proiektua jarri zuten martxan duela urte batzuk, Udalarekin harremanetan jarrita lursail bat eskuratuta. Jose Lonbidek gidatu eta aholkulari lanak eginda, lehen eta bigarren mailetak ikasle eta irakasleak bertan hasi ziren. Sanmigeletako azoka ekologikoan, ortuan ekoiztutako sasoiko produktuak eta Ojala Zelaiko irteeran jasotako masustekin egindako marmeladak saltzera eramango dituzte LHko hirugarren mailakoek.

Arizmendi ikastolakoak ere azokan izango dira. LHko lehen zikloko haurrek hojaldre-lazoak egingo dituzte, LHko bigarren ziklokoek krispetak, DHBkoek etxean egindako tartak eramango dituzte eta Batxilergoko ikasleek pintxoak salduko dituzte ikas bidaiarako dirua batzeko.

Animaliak hirugarren urtez

Azokako ohiko postuez gain, Aretxabaletako, bertako animaliak izango dira aurten hirugarren urtez ikusgai Arlutzeko kantxan. 10:00etatik 14:00etara bitartean: zaldiak, ahuntzak, ardiak, hiru mota ezberdineko oiloak eta astoak izango dira. Guztiak, herriko baserriarrek ekarritakoak.

Abereen feriak iaz izan zuen arrakasta ikusita, aurten ere jartzea erabaki du Udalak. Hala ere, feria baino gehiago, erakusketa izango dela adierazi dute; izan ere, haurrek beraiekin egoteko aukera izango dute, animaliak gertutik ezagutzeko asmoz.



Umeak Pottokekin. | GOIENA



KOLORE PROMOZIOA
Kolorea emateagatik,
hidratazio tratamendua

DOAN*

1.
URTEURRENA

ESKERRIK ASKO
gugan jarri duzuen
konfiantzagatik!

karma
ile apaindegia

* Eskaintza baliagarria 2016ko urriaren 29ra arte.



Laura eta Oskar Basatzuk egingo dute kontrabandista proba. | GOIENA

Kontrabandista proba izango du aurten herri kirolen erakustaldiak

Bihurri: "Ahalegina egingo dugu aurten ere erakustaldi ahalik eta osatuena eskaintzen"

LARRAITZ ZEBERIO | ARETXABALETA
Aizkolariak, harri-jasotzaileak, Iparraldeko jokoak, desafioak, motozerra frogak... Domekarako herri kirol erakustaldi dotorea agindu du Ernesto Ezpeleta *Bihurri*-k. 13:00etan hasiko da saioa herriko plazan. Mainer Osak aurkeztuko du eta bertan izango dira onenak emateko Jose Mari Ola-

sagasti, Donato Larretxea, Alex Txikon, Oskar eta Laura Basatzuk aita-alabak, Joseba eta Udane Ostolaza aita-alabak... "Aizkolaritza korte guztiak egiten saiatuko gara: altueran, zutik, esku bakarrarekin, birekin, kolpeka...", azaldu du Ernesto Ezpeleta *Bihurri*-k. "Oskar eta Laura Basatzuk Iparraldeko jokoak egingo dituz-

te, eta aitaren eta alabaren arteko norgehiagoka ikusiko dugu lastoa jasotzen, ingudea jasotzen, lasto jaurtiketan edo gurdi jokoan. Aurten, gainera, kontrabandista proba egingo dute, lehen aldiz Aretxabaletan, eta zentzu horretan nobedadea izango da. Esan beharra dago Oskar Basatzuk izango dela gaur egun Euskal Herriko gizon indartsuenetariko bat. Errekor garrantzitsuak ditu egin da", azaldu du *Bihurri*-k.

Harri-jasotzaile lanetan Joseba eta Udane Ostolaza oriotarrak arituko dira. Aita-alabak dira eta Udane 11 urte ditu. Oso erakustaldi politak egiten ari dela adierazi du Ernesto Ezpeleta *Bihurri*-k. Hainbat tamainako eta formatu harriekin aitaren eta alabaren arteko erronka izango dira Aretxabaletan, esku bakarrarekin zein bi eskurekin.

Euskal pentlatoia

"Bi talderen arteko lehia ere egingo dugu", aurreratu du *Bihurri*-k. Bi laukoteren arteko proba izango da, eta izango ditu aizkolaritza, harri-jasotzea, trontza, txinga eramatea, eta lasterketa.

"Eta, nola ez, Aretxabaletan izugarri harrera ona duen motozerra proba ere egingo dugu!", esan du *Bihurri*-k. Ikusleendako ekintzak ere aurreikusten dituzte, hala nola trontza, txingak... eta abar. "Ahalegina egingo dugu aurten ere erakustaldi ahalik eta osatuena eskaintzen. Harrera oso ona egiten digute Aretxabaletan eta oso gustura joaten gara".

Zapatu gauean pilota jaialdia Iturrigorri, Titin, Lasa IV.a, Saralegi eta Gorrotxategi pilotariek

L.Z. | ARETXABALETA

"Andramari jaietan bete egin zen frontoia eta uste dugu harre-ona izan dezakeela pilota jaialdi batek San Migel jaietan ere", azaldu du kultura zinegotzi Jose Miguel Uribarrenek. Garfe enpresarekin lotu dute jaialdia, eta bi norgehiagoka izango dira. Lau t'erdia barruan Tainta eta Mendizabal pilotariek jokatuko dute lehen partida, 22:00etan. Jarraian etorriko da jaialdiko partida nagusia. Bi bikote izango dira aurrez aurre: Titin-Lasa IV.a eta Saralegi-Gorrotxategi. "Pilotari ezagunak ekartzen saiatu gara, eta

sasoi onenean daudenak", azaldu du Uribarrenek. "Herriarren erantzunaren arabera ikusiko dugu merezi duen edo ez horrelako jaialdiak antolatzea". Sarre- ra da hamar euro. Egunean bertan egongo dira frontoian.

Doke txapelketa

Domekan, 11:00etan, herritarrak izango dira protagonista Basotxo elkarteak berreskuratu eta laugarren aldiz antolatzen duen doke txapelketan. Aretxartek, Loramendik, UDAK eta Basotxo hartu dute parte Basotxo elkartearen aurreko lorategian jokatuko den txapelketan.



Titin pilotaria Iturrigorri frontoian izango da zapatuan. | IMANOL SORIANO

HEMEN eta ORAIN
DENON HERRIA

GOZATU
SANMIGELAK!

ehbildu



Mobiliario
ARENAZA altzariak

Bizkaia kalea 1 **ARETXABATETA**
Tel./Faxa: 943 79 08 07
mobiliarioarenaza@hotmail.com

- **Altzariak**
- **Diseinua**
- **Apainketa**

*ondo ibili
jaixetan!*

Ondo pasa San Migelak!!



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

*zurre
zerbitzura*





San Migel jaiak 2016

ARETXABALETA
IRAILAK 23/24/25



Aretxabaletako
Udala
KULTURA SAILA

Edukiontzi bidezko hondakin bilketa, urrian

Txartela jaso ez dutenek Durana kaleko informazio-gunera jo behar dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

San Migel jaien ostean, iraileko azken astean, jarriko zituztela hondakinendako edukiontziak kaleetan jakinarazi zuten Deba-goieneko mankomunitateko eta Udaleko ordezkariak. Seguru asko beste astebetetzatzeratuko dela iragarri du Unai Elkoro alkateak: "Edukiontziak egunotan dira iristekoak, eta gero, horien muntaia lana samur egingo da. Kontua da bilketa zerbitzua eman-

go duen Cespa enpresarekin ez dugula oraindik guztia lotuta; negoziatzen gabiltza". Hala, irailan baino urrian seguruago izango dela bilketa sistema aldaketa gaineratu du.

Era berean, gogorarazi du edukiontziak behin kalean daudenean, horiek erabiltzen hasi beharko dutela herritarrek: "Edukiontziak erabili beharko dira derrigorrean zintzilikarioetatik ez delako jasoko".

Komertzioek bi aukerak

Komertzioei dagokienez, bi sistemak erabiliko dituzte. Hondakin organikoa eta papera eta kartoia atez ate jasoko diete, orain arte legez, eta ontzi arinak eta errefusa edukiontziara bota ahal izango dute. "Edukiontzira botatzea erosoagoa delakoan gaude, eta horregatik proba egingo dugu Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Papera eta kartoia, oster, asko pilatzen da komertzioetan,



Txartelak herritarrei banatzen komentuan. | MIRARI ALTUBE

eta, edukiontziak bete egingo lukeenez, atez ate jasotzen jarraitzea erabaki dugu", azaldu du alkateak.

Txartelak Durana kalean

Astean dihardute banatzen edukiontzi marroia eta grisa zabal-

tzeo txartelak. Herritar guztiak izan dute jasotzera joateko deia, baina guztiak ez dute izan komentutik pasatzerik. Horiek Durana kalean dagoen informazio-gunera jo beharko dute datorren astean.

Ai Laket! elkarteak drogak aztertzeke txokoa jarriko du

M.A. | ARETXABALETAKO

Legezkoak ez diren substantziak aztertzeke txokoa jarriko du Ai Laket! elkarteak (Droga Erabiltzaileak Arrisku Murrizketaren Alde) bihar, zapatua, Mitarte kalean (00:00-03:00), Udaleko Prebentzio Zerbitzuak antolatuta.

Testing Programa izenekoaren helburuak hainbat dira; besteak beste, honako hauek: gazteen gehiegizko substantzia kontsumoaren prebentzioa, informazio zehatz eta objektiboa eskainita; droga kontsumoak dituen arriskuez ohartaraztea hausnarketa

eraginda; substantzia ilegalen inguruko osasun kontrolik ezaz ohartaraztea; droga erabiltzaileen artean arrisku murrizketa kontzeptuak zabaltzea; eta substantzia eta kontsumo molde berrien inguruko informazioa helaraztea.

"Batez ere, aisialdian substantzia ilegalak kontsumitzen dituzten edota kontsumitzeko asmoa dutenei dago bideratua, bereziki lehenengo aldiz kontsumitzekotan direnei", jakinarazi dute Ai Laket! elkarteak kideek,

eta gaineratu: "Adingabeen kontsumoa, ahal den neurrian, atzeratzea eta murriztea dira helburu". Eta gaineratu dute programa horrek eraginkortasun handia frogatu duela erabiltzaileekin kontaktuan jartzeko, bereziki gazteekin.

Emaitzak Interneten

Testing Programaren bitartez gaur egun kontsumitzen diren substantzia arruntenen testak egiten dituzte: kalamua, anfeta-

mina edo speeda, kokaina, MDMA edo estasia eta ketamina. "Horretarako, mikroskopioa, test kolorimetrokoak eta kromatografia erabiltzen ditugu. Laginak hartzen dira laborategira bidaltzeko, han analisi kimiko estandarra eginez dosi zehatza eta adulteratzaileen presentzia egiaztatzen". Hain zuzen, substantzien aizunketa dela erabiltzaileen artean kezka handienetakoa diote. Emaitza horiek gero Interneten argitaratzen dituzte (www.ailaket.com).

ARETXARGI

aretxargi@aretxargi.com

BELOORRIETA, 15 BEHEA 20550 ARETXABALETAKO - GIPUZKOA

☎ 943 532 628 📞 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK

*Ondo ibili
sanmigeletan!*



Kirol ereduaren eta baliabideen gaineko hausnarketa eskaera

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Prentsaurreko bidez adierazi dute EH Bilduko zinegotziek kirolaren gaineko hausnarketaren eta plangintza orokor baten beharra. Kiroldegi aurreko orubean zazpiko futbola jokatzeko zelaia egiteko asmoaren berri komunikabideen bitartez izan dutela diote, eta horren aurrean herritarrekin "hainbat gogoeta konpartitu" nahi izan dituzte.

Udal gobernua izandako kudeaketa "ez dela gardena" izan

diote: "Asmo horren berri uztailean, kalean, entzun genuen. Ondoren kirol zinegotziari galdetuta erantzuna izan zen ez zegoela ezer itxita eta oraindik erabakitzeke zeukatela. Iraileko kirol batzordean hori lantzeko konpromisoa hartu zuen, baina batzordea oraindik ez da sortu eta mediotan jaso dugu EAJren asmoaren berri".

Gaineratu dute eztabaidatzeko dagoela zein kirol eredu nahi den eta zenbat baliabide erabili

behar diren horretarako: "Kiroldegiko mailegua eta gastuak kontuan hartuta Udal aurrekontuaren %20 hartzen du kirolak; hortaz, kirol arloan inbertsio berriak egiteko egoeran gaude?".

Eta Udal gobernua eskatu diote "plangintza orokor bat, ikuspegi globalarekin eta koordinazioarekin": "Azbe izan zen lehenengoa eta aurrera egin zuen, orain hau etorri da eta aurrera. Baina zeintzuk dira gobernu honen lehentasunak? Gure susmoa da nahiago dutela ondo saltzen diren gauzak bakarrik egitea".

Era berean, jakinarazi dute UDAl mahai-gainean jarri dituen beharrak ulertzen dituztela, baina gaur egungo zelaiaren eta egon daitezkeen aukeren gaineko ikerketa egin beharra dagoela. Gainera, Almen ikastetxeko futbol zelaia konpontzeko gogo-



EH Bilduko zinegotziak kiroldegi aurreko zelaia atzean dutela. | MIRARI ALTUBE

ren berri bazuela Udal gobernua diote: "Ez da hobe eginda dagoena konpontzea? Aretxabaleko eta Eskoriatzako udalen, UDAREN, Arizmendiren eta diputazioaren artean planteamendu txukunagoa, merkeagoa eta logikoagoa egin daiteke".

Hori horrela, Udal gobernua eskatu diote "lehentasunen

berri emateko eta herriko plangintza orokor bat gogoz bultzatzeko. Elkarrekin herri hobe baten alde lan egiteko gertu" agertu dira EH Bilduko kideak, eta gonbidapena ere egin diote: "Gure ekarpenak kontutan hartzeko, proiektuak zerotik garrantasunez lantzeko eta herria osotasunean ikusteko".

Neska guztiei zabalik hasi da lanean Arizmendi-UDA

Elkarte biek bat egin dute baldintza duinak eta erraztasunak eskaintzeko bailarako jokalariei

M.A. | ARETXABALETA

Arizmendi kirol elkarteak eta UDAl bat egin dute nesken futbola indartzeko helburuarekin, eta Arizmendi-UDA izenarekin jokatu dute hemendik aurrera. Orain arte legez hiru talde osatu dituzte: kimuak (17 jokalariek); kadeteak (19) eta seniorrak (17). Entrenatzaileei dagokienez, hainbat aldaketa egon dira. Hala, kimuen ardura hartu dute Ane Vicentek eta Aritz Elorzak; kadeteena, Asier Castellanak eta Jon Ander Alberdik; eta seniorrena Esti

Loitik, Titu, eta Roberto Etxeandiak, eta laguntzaile lanetan ibiliko da Urri Urizar.

Talde horietako bik aste bukarran ekingo diote denboraldiari eta biek jokatu dute etxean, Ibarra futbol zelaian. Seniorrek Mutriku izango dute aurrez aurre bihar, zapatua, 12:45ean; eta kadeteek, Bergara, etzi, domeka, 16:30ean.

Baldintza duinak

"Emakumezkoen futbola behera egin duela bailaran konturatu gara eta baldintza duinak eta aukera

berdinak eskaini gura dizkiegu jokalariei", jakinarazi du Urtzi Amianok, Arizmendiko kideak, eta gaineratu du guztiek dutela tokiak Arizmendi-UDA taldean.

UDAl ere nesken futbola indartzearen aldeko apustua egin du. Hala, jakinarazi du, ahalegin berezia egin dutela zelaia erabiltzeko orduan lehentasuna ematen, entrenatzaile egokiak bilatzen eta jokalariekin batera proiektua adosten eta elkarlana bideratzen. "Gazte-gaztetatik futboleko jokatzeko azpiegitura egokiak izatea oso garrantzitsua da, emakumezkoen futbola indartu gura badugu", diote. Entrenatzaileen kasuan emakumezkoak izateari garrantzia eman diote. Aurrera begira ere jarri dira, eta erronka handia dute: "Ametsa da urte gutxi barru lehenengo mailan egotea Reala, Athletic eta Oiartzunekin batera".



Seniorrak, joan den zapatuan, Mondraren aurkako lagunartekoa jokatu aurretik. | M.A.

Ikastaro berriak jarriko ditu abian Leizarra musika eskolak

M.A. | ARETXABALETA

Ikasturtea hasi dute Leizarra musika eskolan, baina ohikoak ez diren beste hainbat ikastaro eskaini dituzte orain. Umeei, esaterako, Suzuki metodoarekin biolina ikasteko aukera izango dute, astean ordu erdiz, Aintzane Bergara irakaslearekin. Horretarako baldintzak dira bost urte

beteta izatea eta gurasoek lagun eginda etortzea ikastarora.

Helduendako eskolak

Helduek hainbat aukera dituzte, kantu eskolak, besteak beste. 15 urtetik gorakoendako dira eta astean hiru ordu laurdenez bakarrik saioak emango ditu Maria-txen Urkia irakasleak. Solfeo

ikasketak egiteko aukera ere izango dute helduek, Urkiak berak gidatuta. Talde bat martitzen goizetan elkartuko da (10:00-11:00), eta beste bat arratsaldetan (ordua oraindik zehaztu barik).

Bestetik, haurren eta gazteen abesbatza osatu gura dute musika eskolan dabilten 7 urtetik gorako ikasleekin. Martitzenetan elkartuko dira horiek (18:45-19:45) Urkiarekin. Izena emateko edo argibideak eskatzeko musika eskolara jo behar da 15:30etik 19:30era (943-08 10 01).

Diru gehiago bideratu du udalbatzak Larrialdi Zerbitzuetara eta kulturara

M.A. | ARETXABALETA

Partida batzuetatik beste batzuetara bideratzea dirua proposatu zuen Udal gobernua astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran eta aho batez onartu zuten elkartutakoek. 80.000 euro pasatxo onartu zituzten hain zuzen ere, hainbat kontutarako.

Hori etatik zatitxo bat, 6.000 euro, Larrialdi Zerbitzuetara bideratu zuten. EH Bilduko zinegotzi Hector Prietok txalotu egin zuen Larrialdi Zerbitzuen gainean egindako eskaera hori onartu izana. Jakinarazi zuen kezkatuta zeudela %18ko jaitziera zegoelako aurreikusita, eta gaineratu: "Halako murriz-

ketarik ez proposatzeko gehiago, batez ere ahulendako diren laguntzen kasuan".

Kultura ekitaldietarako, ostera, 15.000 euro sartu dituzte: jaietarako 5.000 euro eta kaleko ekitaldietarako 10.000 euro. Ekitaldiok kalean egitearen alde agertu zen alkatea, "herria bizitzeko helburuarekin". Eta beste 30.000 euro inguru kreditu orokorrean sartu zuten. Aho batez onartu zuten hori guztia, baina EH Bilduk "plangintza baten beharra" egotzi zion Udal gobernua.

Bestetik, Hirigintza Saileko teknikari bati maila igotzea onartu zuten.

Taberna jarriko du sanmigeletan Gazte Ekimenak andramaixetako diru galerei aurre egiteko

Gazte Ekimenak ere girotuko ditu San Migel jaiak, eta bide batez, andramaixetan izandako diru galerei aurre egin gura diote. Udal txeh zaharrean jarriko dute taberna (irekiera gaur, 18:00etan) eta kontzertu bi izango dira han gaur, egubakoitza: Zerendepya (19:30) eta Delirium (22:30). Zapatuan, ostera, kuadrillen arteko estropadak egingo dituzte (00:00) Durana kalean. Horrez gain, tonbola, jatekoa eta musika ona iragarri dituzte.

Ikastaro bi egingo ditu Jaikik: helduendako 'Dantzatu' eta umeendako 'Haurrak eta gorputz espresioa'

Irailaren 28an hasi eta Gabonak bitartean *Dantzatu* ikastaroa egingo du Jaiki elkarteak eguaztenetan (18:15-20:15) kuartel zaharrean. Alvaro Cuervok gidatuta mugimenduaren bitartez espresatzeko espazio bat sortuko dute. Bestetik, umeendako espazioa ere egokituko dute emozioak eta adierazpena garatzeko. Irailaren 27an hasita martitzenetan izango dira eskolak (17:15-18:15). Izena emateko bideak: 688 84 37 01 (Whatsapp) eta jaikielkartera@yahoo.es.

Hitzaldiak, irteerak eta dantzaldia dituzte erretiratuek kultura hamabostaldiaren barruan

Hitzaldi bi izango dituzte erretiratuek, Basotxon (18:00): gaur, gasaren eta elektrizitatearen gainekoa; eta hilaren 29an, produktuen bermeen eta arreta teknikoaren zerbitzuaren gainekoa. Gainera, egindako bidaietan ateratako argazkiak erakutsiko dituzte astelehenean, eta Ordiziara joango dira hilaren 28an. Txokolate jana eta dantzaldia eginda bukatuko dute hamabostaldia hilaren 30ean.

Garagardo azoka prest, Jose Arana zaharren egoitzari laguntzeko

Berrikuntza batzuekin datorren arren, urterokoari jarraituz antolatu da azoka

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Jose Arana zaharren egoitzaren aldeko garagardo azoka solidarioa hilaren 29an hasiko da, eguenean, eta domekara arte izango da zer jan, zer edan eta zer disfrutatu bertan. Menua urterokoa izango da: ukondoak (350), saltxitxak (65 kilo), oilaskoak (65 kilo), patatak eta, nola ez, garagardo mota ezberdin ugari. Aurten berrikuntza moduan, gainera, ZerB-ek Kafes Aitona aromarekin egindako garagardo txigortua ere izango da probatzeko.

Bestalde, urtero moduan, nahi duenak patata-tortillak eraman ditzake pintxo moduan saltzeko. Zaharren egoitzari diruz laguntzeko antolatutako jaia herriko elkarteek, merkatariek eta norbanakoek bultzatzen dute: Eingeinakoak, Egoitzakoak, Atxorrotx Kultur Elkartekoak, Zapastak, Kenpokoak, Zikloturistak, Kirol Elkartekoak, jubilatuek eta herritarrak sukaldan eta lan ezberdinak egiten egongo dira.

Eguenean, 19:00 aldera irekiko da karpia, eta egubakoitz arratsaldean egoitzako egoiliarak bertara joango dira, urtero moduan, mokadutxoia jan, zerbait edan eta Alaitzen taldearen kantu mexikarrekin disfrutatzen.

Tonbola barik, otarreak

Iaz, tonbolarekin batera, otarreak ere zozketatu ziren, eta, arrakastatsua izan zenez, aurten, tonbola barik, otarreak zozketatuko dira soilik. Otarreak betetzeko produktuak eman nahi dituenak egoitzara eraman edota telefonoz deitu dezake berta-

ra. Otarreak karpan zozketatuko dira, hilaren 30ean, zapatu arratsaldean.

Beste berrikuntza batzuei dagokienez, garagardo pitxarrez gain, kañak edateko aukera ere izango da bi euroren truke. Eta loteria erosteko aukera ere izango da.



Iaz ospatutako garagardo azoka solidarioan boluntarioa pitxarra betetzen. | IMANOL SORIANO

Bigarren faseko obrak hasteko

Zaharren egoitzako lehen faseko obrak amaituta, bigarren fasearekin urrian hastea aurreikusten da. Fase honetan, behe-solairua guztiz aldatuko da. Egongela handi bat egin nahi da lorategira irteera duena, jantokia handitu, aldagelak, deskantsu gela, botikina...

"Egoitzaren egunerokotasunean aldaketa eta hobekuntza izugarria izango da, eta aurten ere parte hartuko duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet...", adierazi du Dorleta Sologaitoak, zaharren egoitzako zuzendariak.

Euskaraz hitz egiteko Mintzodromoa izango da

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako Berbalagunek ikasturte berriari ekingo diote, eta, hasierako ekitaldi moduan, Mintzodromoa antolatu da. Gaur izango da, Herriko Plazan, 19:00etan, eta orain arte Berbalagunak egitasmoan parte hartu dutenek edo probatu nahi dutenek izango dute aukera bertaratzeko.

Ekintza honen helburu nagusia ondo pasatzea da, eta, aldi berean, euskaraz egin ahal izatea, bakoitzak dakien neurrian. Izen-ematea plazan bertan egin daiteke lehenago hurbilduta, eta amaiztean, 20:00 aldera, luntxa izango da. Bertan, adin tarte eta euskara maila ezberdineko herritarrak elkartu nahi dira, eta mahai ezberdinetan jarrita gai ezberdinez hitz egingo da. Egunerokotasunean euskaraz mintzatzeko aukerarik ez dutenei edo, ohituraz, gaztelazko harremanak egin dituztenei euskarazko harreman berriak sortzeko aukera emateko sortu zen egitasmo hau, eta aurtengoa bigarren edizioa izango da.

Santa Ana kalean irisgarritasuna hobetzeko lanak egingo dira

Pagaldai harategiaren parean goratutako zebra-bidea jarriko da, besteak beste

I.B | ESKORIATZA

Santa Ana auzoan irisgarritasuna hobetzeko lanak urri amaieran hasiko dira, eta hiru aste iraungo duten obrak 12.945,91 euroko aurrekontuarekin egingo dira.

Jose Arana kalean norabide bakarrek zirkulazioa jarri zenean, trafikoaren zati handi bat Santa Ana auzotik bideratu zen, eta horrek mugikortasun eta irisgarritasun arazo batzuk sortu ditu herrian; adibidez, autoak abiadura handian ibiltzen dira, eta oinezkoen hainbat keza jaso ditu Udalak. Hirigintza eta Mugikortasuneko batzordeburu Josu Ezkurdiaren esanetan: "30 kilometro orduko muga dago bide zati horretan, eta 50 kilometro orduko abiaduratik gora ere pasatzen dira hainbat gidari...".

Abiadura murrizteko lanak

Hori horrela, Pagaldai harategiaren parean goratutako zebra-bidea jarriko da, autoek abiadura moteldu dezaten, eta zati horretan trafikoa aldiko norabide batekoa izango da eta lehen-tasuna izango dute Antsoategiko biribilgunetik datozen autoek, eta ez Zaldibar aparkalekutik

datozenek. Hori horrela, "etorkizunean etxebizitzak egingo dira Zaldibar aparkalekuan, eta, eguna heltzen denean, ez dugu obrarik egin behar berran".

Gainera, espaloia zabaldu eta egokitu egingo da, errepideari zati bat kenduz, hala oinezkoak seguruago ibili daitezten. Hiru astean amaituko dituztela lanak aurreikusten da, eta, errepidea,

hasiera baten, itxi barik, urriaren amaiera aldera hasiko dira Sasoi enpresak (San Pedroko urbanizazio berria egin zuena) egingo dituen lanak.

Zamalanetarako bi aparkaleku

Azkenik, bertan dauden komertzioetarako lanak erraztearren, zamalanetarako bi aparkaleku ere egokituko dira.



Santa Ana auzoan egingo da obra urriaren amaieran. | GOIENA



IBARRALDI

Ikasleak osasunaren alde

Aurten, ikasleak protagonista izan dira Mugikortasun Asteaz; izan ere, herriko ekintzez gain, Luis Ezeiza, Arizmendi eta Kurtzebarri ikastetxeetako ikasleek herriko puntu ezberdinetatik eskolarainoko neurketak egin dituzte. Hala, distantzia eta denbora, oinez, patinetz, bizikletaz eta autoz neurtuta. Datuak ikusita, ondorio nagusia izan da ez dagoela auto beharrik, eta bizitza osasuntsu baten alde egin behar dela... Bestalde, zaharren egoitzakoekin batera, egoitzatik herriko zerbitzu publikoetara bidea egin, eta ondorioak, oztupoak... atera dituzte.

Eskoriatza Kirol Elkarteko taldeek aurkezpena egingo dute domekan, Herriko Plazan

Eskoriatza Kirol Elkarteko saskibaloia eta areto futboleko maila guztietako taldeek aurtengo arropa berria aurkeztuko dute Herriko Plazan. Domekan 12:00etan batuko dira, eta, talde argazkiak egin ondoren, kirol elkarteko talde guztiek batera argazki erraldoia aterako dute, urtero lez. Bestalde, martitzenean Eskoriatza B areto futbol taldeak eta UDAk denboraldia hasi aurreko lagunartekoa jokatu zuten; 4-1 galdu zuten eskoriatzarrek, baina denboraldia hasteko indarrak hartzeko balio izan zien partiduak.

Kamiseta izerdituz, ilusioa eraiki daitekeelako

Antzuolako nesken taldea desagertu egin den arren, Eibarren dute aukera orain

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Uxue Iparragirre, Jone Jauregi eta Nagore Otadui antzuolarrek asteburuan abiatuko dute Eibarrek aurtengo denboraldia. Eibarko kadete mailako nesken futbol taldean jokatzeko dute hiru antzuolarrek. Ilusioz abiatu dituzte entrenamendu saioak Unbeko futbol zelaietan.

Betidanik gustatu izan zaiela futboleko jokatzeko diote. Orain arte Antzuolako taldean aukera izan dutela azaldu dute. "Eskola kirolean hasi ginen; izan ere, kirola orokorrean praktikatzeko asko gustatzen zaigu. Baina, aukera izan genuen Antzuolako futbol taldean jokatzeko eta animatu egin ginen", dio Nagore Otadui.

Helburua baina, kirolaz eta futbolaz disfrutatzea dela argi dute hirurek. "Giro ona dago; garrantzitsua da, gainera, taldea sortzeko eta ondo jokatzeko. Hasierako entrenamenduak nahiko gogorak, fisikoak izan dira. Erritmoa hartzen gabiltza oraindik, baina disfrutatuz. Nesken arteko futbola, gainera, ezberdina da; ez dago horrenbesteko lehiakortasunik. Dena ez da irabaztea", azaldu du Uxue Iparragirrek.

Baina, nola suertatu zitzaizen Eibarren jokatzeko aukera? "Gure entrenatzaile Maki-k eman zigun aukera horren berri. Gainera, Antzuola nesken futbol taldea desagertu egin da taldea osatzeko jendea ez dagoelako. Ez dira neska asko animatzen. Guk Eibarren futboleko jokatzeko aukera geneukan. Hala, berehala onartu genuen proposamena. Probak egin eta onartuak izan ginen", dio Jone Jauregik.

Pozik jaso dute herrian futbol eskola sortuko denaren berria. "Ea neska gehiago animatzen den modu horretan", diote.



Hiru futbol jokalariek Eztalako zelaietan hasi zuten ibilbidea. | M.A.

Eibarko kamiseta jantzita

Pozik eta ilusioz jantzi dute aurten lehenengoz Eibar taldeko kamiseta hiru futbol jokalariek. Asteazken egunetan joaten dira Eibarko Unbeko zelaira entrenatzera. Gogorrena, baina, eguneko entrenamendu saioaren ostean entrenatzaileak publiko egiten duen jokalarien deialdia dela diote: "Oso gogorra da norbait partidutik kanpo geratu behar dela ikustea. 23 gara, eta seik ez dute jokatu; eta hortik beste sei aulkian egongo dira. Pena da ezin jokatu geratzea. Antzuolan, ordea, denok izaten genuen jokatzeko aukera".



Jokalariek Unben. | MIREIA BIKUÑA



OINARIN TALDEA

Euriari aurre eginez, erakustaldi aparta

Domekan ospatu zen 46. Oñatiko Haurren eguna. Eguraldiak lagundu ez zuen arren, hamabi herritatik etorritako haur eta gaztetxo dantzariak (650) pozik erakutsi zituzten aurrez ikasitako dantzak Zubikoa kiroldegian. Antzuolatik 40 lagun inguruk parte hartu zuten: Oinarineko dantzariak, laguntzaileak eta Alboran txistu taldeko musikariak. Erakustaldi polita eskaini zuten herriko gaztetxoek.

NIRE USTEZ

AITZOL ITURBE



Bakea? Non?

Pasa den igandean, trenean nindoala, eskale portugaldar batekin hizketaldia izateko zortea izan nuen. Kontatu zidan nola 27 urte zeramatzan hemen. Eraikuntzan aritu zela duela bi urte arte eta harrezkero kalean bizi dela, hara eta hona, eguna pasatzeko behar duen dirua eta jatekoa eskatuz. Tarteka, diru pixka bat aurrezten duenean, zerbait beroa prestatzea gustatzen zaiola... Nik ere nire berri kontatu ostean, eskua emanaz agurtu genuen elkar.

Hondarribiko arratsalde pasan, lau euroko izozkitxo bat jan ostean postutxoetan kapritxoren baten bila genbiltzan bitartean, Orioko hamar bat urteko mutiko ekuadortar euskaldun batekin hizketaldia izateko aukera izan nuen. Bera, hiru neskatila gazteago eta ama ikus zitezkeen puestoan. Besteren

artean asteburua lanean pasa ostean iluntzean etxera itzuli behar zirela esan zidan, astelehenen eskolara joateko.

Buruari bueltaka pasa nuen eguna. Urkulluren soldata, Otegiaren trajea eta Pili Zabalaren txaleta etorri zitzaizkidan burura; baita nire kotxea, Tenerifeko oporrak eta aitona-amonon urtebetetzean egindako *jankada* ere. Nola da posible nik oporretara joateko beste etxe bat alokatzen dudan bitartean, beste batzuek zer janik ere ez edukitzea? Eta nola nire iloba opariekin egun bakarrean aspertzen den bitartean, hamar urteko mutikoak asteburuan lan egin beharra?

Ez da kasualitatea, ez da gutxi batzuen zoritxarra, egiturazko arazoa da. Bere herritarrek (edo beste herrialde batzuetakoak) miseria egoera horretan egotea onartzen duen gizartea ezin da bakean bizi, eta egiturazko arazo konpontzeko asmorik gabe bakea saltzen ari dena, gezurretan ari da. Bakea justizia sozial-duna izango baita, edo ez baita bakea izango.

Hau da, kapitalismoan ez dago bakerik.

Luzaketak ondo egiten ikasteko tailerra, urrian

Landatxope elkarteak antolatuta urrian hainbat ekintza izango dira herriko erretiratuendako

M.A. | ANTZUOLA

Pili Arinek gidatuta, luzaketak ondo egiten ikasteko bi saio praktikoko antolatu ditu Landatxopek urrian. Izan ere, asmoa da nagusiek modu osasungarrian luzaketak egiten ikastea. Bi saio eskainiko dira Olaraneko ekintza aretoan: urriaren 4an eta 11n, 10:00etan. Parte hartu gura duten herriko erretiratuak izena emateko aukera dute Landatxopeko bulegora jota irailaren 26an eta 27an, 16:00etatik 18:00etara bitartean.

Eta bestetik, telefono mugikorra erabiltzen ikasi edo hobetu nahi duten erretiratuendako ere antolatu du elkarteak. Ikastaroa jaso nahi duenak izena emateko azken eguna gaur, egubakoitza du Landatxopen, (16:00-18:00). Ikastaroa, izena ematen dutenen arabera antolatuko dute. Helburua da, pantaila nola erabiltzen den ikastea, kontaktuak sartu eta ezabatzen jakitea, mezuak bidali eta jasotzea eta Internet erabiltzen ikastea, besteak beste.

OHARRAK

AIHERRA EGUNA

Urriaren 1ean ospatuko da senidetze egunaren festa. Herri bazkarira joan nahi dutenek txartelak irailaren 28ra arte eskuratu ahal

izango dituzte udaletxean edo liburutegian.

ODOLA EMAN DAITEKE

Irailaren 29an odola emateko aukera Olaranen, 17:30ean.

Antzuolako futbol eskola martxan jarriko du AKEk aurten; helburua da futbol zaletasuna sustatzea

Bi maila izango ditu futbol eskolak: 3. eta 4. mailako neska-mutikoak (2007 eta 2008an jaiotakoak) eta 5. eta 6. mailako neska-mutikoak (2005 eta 2006an jaiotakoak) batuko ditu, hain justu. Gurasoendako batzarra irailaren 26an egingo da: 18:00etan benjaminen gurasoak eta 18:30ean alebinenak.



Iazko sagardo eguneko partaideak brindisa egiten. | GOIENA

Aramaioko sagardo ekoizleen lana dastatzeko aukera

Domekan egingo dute 2016ko sagardo eguna eta herriko hamahiru ekoizleek hartuko dute parte

XABI GOROSTIDI | ARAMAIO

Igandean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egingo diren arren, aramaiok beste hitzordu garrantzitsu bat izango dute; 2016ko sagardo eguna. Herriko ekoizleek euren lanaren emaitzak plazaratuko dituzte, eta hiru euro-

ren truke hamahiru sagardo dastatzeko aukera izango da. Txotx irekiera bertsolariek girotuko dute eta Lagun-artean dantza taldekoek taloak egingo dituzte.

Hamahiru ekoizle

"Aramaion gehiagok ekoizten

dute bai sagardoa eta bai zukua, baina kopuru oso ona eta esanguratsua da. Beste urteren batean egon diren ekoizleren batek edo bestek sagar gutxi izan du aurten eta ezin izango du etorri", adierazi du Cristina Etxenausia kultura zinegotziak.

Aurtengo edizioa Udalak antolatzen duen bigarrena da eta Etxenausiaren ustez pozgarria da Aramaio bezalako herri baten bertako ekoizleen festa bat antolatzea: "Polita izateaz gain, asko baloratu eta balioetsi behar dugun zerbait dela esango nuke nik. Askotan ez gara kontziente herrian daukagunaz, ez sagardo eta zukuan bakarrik, Aramaion kalitate handiko hainbat produktu ezberdin ekoizten dira eta hori babestu eta lagundu beharreko zerbait dela uste dugu".

Aramailurri omenaldia

Urtero legez, sagardo egunaren irekiera ekitaldia omenaldi bilakatzen da, eta aurten Aramailur elkartearen lana nabarmendu nahi izan dute. "Elkarte honek jarri zuen martxan herriko ekoizleei bidea eman eta laguntzen dien ekonomatua, besteak beste. Lan asko egin du eta egiten ari da bertakoaren alde, bai produktuekin, bai kontzientziarioan, bai ingurumenarekin... Uste dugu bide hori dela jasangarritasunera gehien hurbiltzen gaituena eta lan hori txalotu eta omendu nahi dugu".

Alaiak elkarteko kideen urteroko bazkaria domekan

X.G. | ARAMAIO

Aramaioko erretiratuek urtero egiten duten bazkaria egingo dute domeka honetan. Bazkalarretetik, 12:00etan, aurten bizia galdu duten erretiratuen omenezko mezan elkartuko dira.

14:30ean bazkariaren txanda izango da eta hamar euroko kostua izango du.

Kantu tailerra

Alaiak elkartekoek abestea gustuko duten erretiraentzat kantu tailerra antolatu dute. Jubilatuen lokalean emango da ikastaroa eta antolatzaileen asmoa hilean hiru saio egitea da.

Lehena, urriaren 14ean izango da 10:00etatik 11:30etara. Plaza mugatuak dira, eta izen ematea erretiratuen lokalean edo 675 008 821 telefonora deituz egin daiteke.

Aitor Arana omentzeko mendi martxa zapatuan

X.G. | ARAMAIO

Orixol Mendi Elkarteko kideek beste mendi martxa bat antolatu dute asteburu honetarako. Oraingoan Aitor Arana zena omentzeko antolatu dute. Irteera 08:00etan izango da, eta ordu erdi lehenago joan beharko da Kiroldegira martxan izena emateko. Ibarra hasi eta Durakogain, Kruzeta, Orixol, Lezia, Kasatxo eta Teilamenditik pasako da ibilbidea, azkenik, berriz Ibarra eta bertan amaitzeko.

Martxaren iraupena bost eta zazpi ordu artekoa izango da, eta izen ematea bost euroren truke egin daiteke.

Kiroldegian konponketak egingo dira

Lehen solairuko komunean eta gimnasioan egingo dira hobekuntza lanak

X.G. | ARAMAIO

Aramaioko kiroldegia zaharra da eta hainbat hobekuntza lan egin behar zaizkio. Guztiak aldi berean egiteak esfortzu handiegia eskatzen duenez, urtero konponketa txikiak egiteko erabakia hartu zuen Aramaio Udalak.

Hala, aurreko urteetan aldagelak, galdara eta teilatua kon-

pondu dira, eta aurten lehen solairuko komunak eta gimnasioa egitura hobetuko dira.

Lanak esleituta

Aurrekontu ezberdinak eskatu ostean Deguria Corporations enpresari esleituko zaizkio konpontze lanak. Astelehen honetan hasiko dira, printzipioz, eta 34.419,76 euroko kos-

tua izango dute, eta bertatik 24.499,33 Proiektua Arabako Foru Aldundiko Obra Txikiak programarekin finantzatu dira.

Azkenik, iaz itoginak kendu eta teilatua konpontzeko lanetan akats batzuk ikusi ditu Udalak, eta enpresari eskatu dio hauek lehenbailehen konpontzeko.

San Martin pilota txapelketa, Arabako pilotari gazteen harrobi

X.G. | ARAMAIO

Aurten ere Aramaio Pilotari Elkarteak San Martin pilota txapelketa antolatu du. Zortzi eta hamasei urte bitarteko 104 gazte hartuko dute parte, horietako hamazortzi Aramaiokoak.

Arabakoa harrobia

Gazte mailan ez dago era honetako beste txapelketarik Araba osoan; beraz, pilotazaleek asko eskertzen dute era honetako txapelketa bat urterik urte antolatzea. "San Martin Pilota Txapelketa Aramaio Pilotari Taldeak antolatzen du, baina Arabako beste pilota talde batzuen laguntza ere izaten dugu", adie-

razi du Josu Olaizola antolatzaileak.

Irailetik azarora

2016ko txapelketa duela bi aste jarri zen abian. Benjamin, alebin, infantil eta kadete mailak bereizten dira, eta guztietan ligaxka bat jokatzeko dute. Bertako lehen lau sailkatuek finalerdietarako txartela eskuratu dute, San Martin eguna baina bi aste lehenago jokatu dena. Ostiral arratsalde eta domeka goiz guztietan partiduak izango dira, eta Aramaio Kiroldegira hurbiltzen direnek Arabako pilotari gazteen maila ikusi ahal izango dute.

NIRE USTEZ

ANDERE ARRIOLABENGOA



Idoia Mendiari gutuna

Zuetariko asko nekaturta egongo zarete gaireraz irakurtzeaz, baina barruan daramadan korapiloa askatu beharrean sentitzen naiz. Haserre, nazkatuta eta irainduta sentitzen naiz PSEk eta bere buru den Idoia Mendiak euskarekiko duten jarreraz. Euskara ez da hauteskunde kanpaina bakotzean erabiltzeko truke txanpona, euskaldunon hizkuntza da.

Zenbat aldiz entzun ote dugun administrazioko perfilen inguruan eztabaidan. Gogoan dut, duela urte batzuk, irakasle batzuk nola grebara joan ziren perfilik izan gabe, eskatu egiten zitzaielako. Zu eta zure partidua azkar atera zineten beraien defentsan. Kontatzea ahaztu zitzaizuen orde, langile horiek bost urte zeramatatzela euskara ikasteko liberatuta (lan egin ez baina administratibotik kobratzen, denon dirutik). Kasualitatez, beraien euskaltegiko irakaslea nire pisukidea zen. Ez ziren klasera joaten, ez zuten euskara ikasi nahi, baina oso ondo bizi ziren lan egin gabe kobratzen. Hau al da zuen eredu?

Hizkuntz eskubideak herri-tarronak dira. Gu gara beraien jabe. Eta zoritzarrez, euskal hiztun bezala sarri askotan sentitu naiz diskriminatua. Baina hori zuei bost axola, ezta? Ezin aipatu gabe gelditu. Auzolotsa sentitu nuen joan den asteko ETB 2ko debate ikustean. Aurretik zalan-tzarik banuen, argi gelditu zitzaidan zuk errespetua zer den ez dakizula.

"Euskara gure hizkuntza da, ez hauteskundeetako truke txanpona"

Aramaion bertan trikitia eta panderoa ikasteko aukera

Trikitia eta panderoa jotzen ikasi nahi dutenek horretarako aukera izango dute Aramaion bertan.

Triki kalejiraren eskutik, egubakoitzetan, pandero eta trikitia klaseak emango dituzte Aramaio eskolan. Izena emateko adina mugagabea da, eta horretarako trikikalejira@gmail.com helbidera e-maila idatzi beharko da.



ALAIK JUBILATUEN ELKARTEA

Alaiak elkartekoak Artziniegan

Pasa den zapatuan Alaiak jubilatuen elkarteko 49 kidek irteera egin zuten Artziniegara. Bertan, Erdi Aroko azokaz gozatzeko aukera izan zuten eta egun polita igaro zuten lagun artean. Irudian, zapatuko txangoan ateratako familia argazkia.



Hainbat herritar biharko ekitaldirako soka zatia eskuan. | GOIBEKO

Soka ekarriko duen ekimena, bihar, Elgetan

Euskaltzaleen Eguna antolatu du Goibekok eta herritar guztiak gonbidatu ditu parte hartzera

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Euskara izango da protagonista, bihar, Elgetan. Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak Euskaltzaleen Eguna antolatu du lehen aldiz, eta festa giroan aldarrikatuko dute euskararen garrantzia.

Egun osoko egitaraua gertatu dute, eta bi izango dira ekintza nagusiak: Euskararen Soka eta

herri bazkaria. "Mezu garrantzitsu bat zabaldu gura dugu herritarren artean. Ikusten ari gara leku formaletan bai, baina kalean gero eta makalago dagoela euskara, eta hori irudikatzeke Euskararen Sokan egingo dugu eskolatik herriko plazaraino", azaldu du Goibekoko presidente Ainara Iribarrek. Antolatzaileak hasita daude soka zatiak banatzen. Ideia da zati guztiak elkar korapilatzea eta mezu eramaile izango den uztai bat pasatzea eskuz esku

sokatik. "Guztiendako da Euskararen Soka, ez bakarrik euskaldunendako", azpimarratu du Iribarrek. "Badaude Elgetan euskaldunak ez diren herritar asko seme-alabak D ereduari matrikulatu dituztenak, euskara ikasten ari direnak, ulertzen saiatzen direnak... Garrantzitsua da".

Herri bazkarirako txartelak salgai daude: helduendako kioskoan eta umeendako Bolatokian. Prezioak dira hamabost euro eta zazpi euro.

Berbalagun izateko gonbita egiten du aurten ere Elgetan Berbetan egitasmoak

Euskararen erabilerarekin lotuta iaz ipini zituzten martxan lehen aldiz mintzalgun taldeak Elgetan, eta hemezortzi berbalagun izan zituen ekimenak. Aurten ere martxan da egitasmoa, eta zabalik da izen-ematea. Deialdi berezia luzatzen diete aurten gurasoei Gurasolagun taldeak sortzea baita erronka. Interesatuak udaletxean aurkituko dituzte eskuorriak, eta Kepa de Vega koordinatzaileak informazioa mahaia ipiniko du zapatuko Euskaltzaleen Egunean, 11:00etatik 13:00etara, plazan.

EGITARAUA

IRAILAK 24, ZAPATUA

10:45 Esna deia.

11:00 Puzgarriak.

12:30 Euskararen Soka.

13:30 Buruhandiak.

14:30 Bazkaria.

15:30 Puzgarriak.

16:30 Erromeria EGAN taldearekin.

20:30 Zozketa.

LEINTZ GATZAGA

Auzo-egurra zozketatzeko izen-ematea zabalik dago

Onura publikoa duten mendietatik datorren zura erabiltzeko izena eman daiteke udaletxean

ENEKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA
Dagoeneko zabalik dago 2016ko auzo-egurraren erabilpenerako izen-ematea. Zozketan parte hartu nahi duenak udaletxean eman

beharko du izena irailaren 30a baino lehen, 943 71 47 46 telefonora deituta. Auzo-egur hori onura publikoa duten mendietako egurretik eratorritakoa da.

Epaimahai zerrenda

Bestalde, epaimahai izateko zerrendak osatu behar dira, Epaimahai Auzitegiaren 5/1995 Lege Organikoa betearazteko. Horretarako, indarrean dagoen hautalesle-eroldaren zerrenda jendaurrera aurkeztu da, zozketa bidez epaimahai hauek aukeratu ahal izateko.

Zozketa irailaren 26an, astelehena, egingo dute, 10:00etan, Atotxako Justizia Jauregiko 9. zenbakiko Epaiketa Aretoan.

Ondoren, zozketan hautatutako epaimahaien behin-behineko zerrendari dagozkion zuzenketak edo baztertzeko erantsi ondoren, behin betiko zerrenda publikatuko da.

Gurelen batzarra

Bukatzeke, Gatzagako guraso elkarteak batzarra egingo du domekan herriko ludotekan, 18:00etan.

Batzar horretan, hain zuzen, hasi berria den ikasturtea nola

antolatuko den erabakiko da. Urritik aurrera izango diren ekin-tzetan eta ludotekaren antolaketan zentratuko dira domekako batzarrean, Aitziber Gorosabel Gureleko kidearen esanetan.

Horrez gain, herriari eskertu egin nahi izan dio gela desplazatuaren alde erakutsitako babes. Hala ere, ohartarazi nahi izan du kontua oraindik zabalik dagoela eta berriro "martxan jarri" behar direla, ekaina iristean gauza bera ez dadin gertatu.

Intxortako frontearen ezarpenaren 80. urteurrena gogora ekartzeko ekitaldi sorta iragarri dute

Urriaren 4an betetzen da urteurrena, eta lore eskaintza egingo du Elgetako Udalak Asentzian. Urriaren 1ean, berriz, mahai ingurua egingo dute Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformako kide Josu Ibargutxik, Bartzelonako alkateorde Jaume Asensek edo Iruñako alkate Joseba Asironek.

Eguraldiak ahalbidetzen badu astelehenean has daiteke pinu beldarraren aurkako tratamendua

Gipuzkoako Foru Aldundiak pinu beldarraren izurriteari aurre egiteko neurriak hartuko ditu aurten, tartean Elgetako pinudi eremuatan. Aire bidezko tratamendua izango da. Hilaren 26tik aurrera aplikatuko dute tratamendua, eguraldiaren arabera.

OHARRAK

42 ODOL-ATERATZE

Martitzenean 42 lagunek eman zuten odola Gipuzkoako odol-emaileen elkarteak Elgetan egingo dako odol-ateratzeetan. Odol premia dago eta kopuru polita dela esan dute arduradunek.

KIROL ZERBITZUAK

Astelehenean aurrera martxan izango da ikasturte berriko Elgetako kirol zerbitzua. Lehenengo astean ate irekiak egingo dituzte, eta ekintzak doan ezagutzeko aukera emango dute.



ELEDER LOZANO

Basoko pistetan barrena

Mendiko bizikletan ibiltzeko pista ugari dago Elgetan, eta asteen hainbat irteera egin dituzte. Etor Garatek egin ditu gidari lanak. Argazkian eguaztenez 8-10 urteko neska-mutikoekin egindakoa.



ELGETAKO HERRI ESKOLA

Eskolatik Aixolara goiz pasa

Lehen Hezkuntzako ikasleek Aixolaraino joan-etorria egin zuten martitzenean. Oinetako egokiak jantzi, hamarretakoa hartu eta goiz pasa joan ziren irakasleekin batera. Ikasturte berriko lehen txangoa izan da. Aurten ere gertuko baliabide naturalak ezagutzeko irteerak antolatuko dituzte eskolatik, bana hiruhileko bakoitzean.

KILOMETROAK 2016

KULTUR HAMABOSTALDIA

• 'KILOMETROAK BIDEA' ERAKUSKETA

Gipuzkoako Ikastolen jaiaren 40. edizioa da aurtengoa. Hala, 40 edizioetako irudiak, leloak, argazkiak, abesti zatiak... erakutsiko dira Bergaran. Aroztegi aretoan, irailaren 19tik urriaren 2ra bitartean.



• 'ARALAR ITSASMIRA'

Juan Gorritiren erakusketa Aranzadi Ikastolan. Irailaren 26tik urriaren 31ra arte. Uda osoan Donostiako Miramar jauregian ikusgai izan den erakusketa, orain Bergaran.

• 'GARDEN'

Alos Quartet hari laukotea, Eñaut Elorrieta (Ken Zazpi), Oreka TX eta Aukeran dantza konpainia. Irailaren 24an, Bergarako Udal Pilotalekuan. Sarrerak salgai: www.pikupe.com

GARDEN

ALOS QUARTET

EÑAUT ELORRIETA + OREKA TX + AUKERAN DANTZA KONPAINIA

Irailaren 24an, 22:30ean Bergarako Udal Pilotalekuan

Sarrerak salgai 15€, www.pikupe.com edo Pikupe Produksioak-ek Artekalen duen egoitzan



Salsamendi: "Zaleen jarreran kirolariok badugu eragina"

- ▶ Zaleek kirolariengan duten eragina aztertu zuten mahai inguruan
- ▶ Intza Lizartzu, Oihana Kortazar eta Markel Irizar ere egon ziren

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

"Gaurko kirolariak dituzten jarraitzaileak bi motatakoak dira: areto barruan egoten den publiko estatikoa, batetik, eta ordainik gabeko zale mugikorrak, bestetik". Berba horiekin hasi zuen Aitor Elduainen kazetariak, zaleek kirolariengan duten eragina lantzeko mahai ingurua. Añares Rioja ISBko Intza Lizartzuren zaleak dira lehen motakoak, eta Trek-Segafredo Markel Irizarrenak, mendiko lasterketako Oihana Kortazarrenak eta Urdaibaiko entrenatzaile Jon Salsamendirenak bigarren motakoak. "Dena den, kirol bakoitzak zale mota ezberdinak ditu", esan zuen azken horrek. Eta gaineratu zuen arraunlari izandako urteetan eta Astilleroko eta Urdaibaiko entrenatzaile izandakoetan harreman hurbila izan duela zaleekin: "Proben aurretik eta ostean hurbilak eta adeitsuak gara elkarren artean. Lehiatzen gaudenean beste kontu bat izaten da. Ni Orion bizi naiz. Herria txikia da. 5.000 biztanle ditu, baina 6.000 entrenatzaile daude. [Barre] Kalean ibiltzea zaila da batzuetan. Bereziki, gauzak ez doazenez ondo".

Hartu-eman hurbil horren lekuko, adibide bat ere aipatu zuen: Kontxako bandera bukatu ostean, bi Urdaibaiko eta Hondarribiko zale elkarri txalotzen. "Kirolariok badugu eragina zaleen jarreran".

Errespetuarekin

Zaleak oso gertutik izaten dituzte Kortazarrek eta Irizarrek.



Salsamendi, Lizartzu, Elduainen, Kortazar eta Irizar, atzoko mahai inguruan | AITOR KAPEROTXIPI

"Nirekin batera korrika doan edozein ikusle da zale. Baita, entrenatzen nagoenean, mendian dagoen artzaina ere", esan zuen elgetarrak. "Zaleak ondoan izatea oso aberasgarria da. Berotasuna ikaragarri nabaritzen da, batzuetan, arriskutsuegia den arren", gaineratu zuen oñatiarrak.

Oihana Kortazarren ustez, mendiko lasterketako zaleek badute beste ezaugarri bat: "Giro sanoa dago gure artean. Irteera puntuan elite mailakoak eta popularrak elkartzen gara. Gure zale direnek gurekin egin dezakete korrika. Publikoa oso fidela da". Eta fideltasun horren adibidea ere ipini zuen: Zegama-Aizkorri lasterketan, Sancti Spiritu ingu-

ESANAK

"Nirekin batera korrika doan edonor izan daiteke zale"

OIHANA KORTAZAR | MENDI LASTERKETAK

"Zaleak gure bizitzaren parte dira, onerako eta txarrerako"

JON SALSAMENDI | ARRAUNA

"Zaleen hurbiltasuna asko eskertzen dugu"

MARKEL IRIZAR | TXIRRINDULARITZA

"Etxetik kanpo hango zaleen txaloak jasotzea itzela da"

INTZA LIZARTZU | SASKIBALOA

ruan sortzen den zale korridorea. "Oiloipurdia ipintzen zait han. Eguraldi ona edo txarra egin, jende andana egoten da bertan. Ikusgarria da".

Salamancako zaleen lezioa

Kantxan emakumezkoen LF2 mailara iguera lortu arren, plaza barik geratu zen Azpeitiko Añares Rioja ISB taldea. Klubak ez zuen etsi eta LF1 kategorian maila bat gorago hutsik zegoen plaza erosi zuten, urtebete han jokatu eta maila galdu ostean LF2an jokatzeko. Bazekiten denboraldi gogorra izango zela. Askok zenbat partidu irabaziko ote zituzten apustu egin zuten. Baina goren-go maila horretako zaleen jarrera azpimarratu zuen Lizartzuk. "Salamanca, Perfumerias Avenida kontra jokatu genuenean, 3.000 zale zeuden kantxan. Errepaso itzela eman ziguten. Lehia bukatu eta luzapenak egin ostean, banaka-banaka, aldageletarako bidea hartu genuen. Orduan konturatu ginen Salamancako zaleak harmailetan zeudela oraindik eta gu txalotzeko geratu zirela".

Kantxan lortutako balentriak zale asko erakarri ditu, eta hori ere eskertu egiten dute jokalariek. "Azkoitia eta Azpeitian tradizio handikoa da saskibaloia eta iaz, gure partiduetara, 600 bat zale joaten zen. Kopuru hori normala zen mutilekin, baina ez gurekin. Oso eskertuta gaude", esan zuen Iraurgiko jokalariek.

Jon Salsamendik gogora ekarri zuen kirolariak zale barik ez direla ezer. "Gure bizitzaren parte dira. Bermeon entrenamendu hasieran eta bukaeran zale asko egoten da gure zain: animoak emateko, argazkiak eta sinadurak eskatzeko... Herri osoa dago Urdaibairen atzetik. Eta hori behar dugu. Bestela noizentzako gaude?".

Zaleen sentimendu horren harira, beste adibide bat ipini zuen Irizarrek: Euskaltel-Euskadi taldea. *Marea laranja* ekarri zuen taldea. "Euskaldunon izaera nolakoa zen erakusten zuten taldeak eta zaleek. Kamiseta laranjarekin sortutako zaletasuna handia izan zen. Sentimendu baten adierazle nabarmena".

FUTBOLA

Aloña lehen garaipenaren bila Mondraren kontrako derbian

Oñatiarrak denboraldiko lehen puntuengatik borrokatuko dira, domekan, Azkoagainen, 16:30ean

M.B. | OÑATI

Oso bestelako egoeran egingo diote aurre etziko domeka, 16:30-derbiari Aloña Mendik eta Mondrak: oñatiarrak ligako bi partiduak galdu dituzte (azkena, Anaitasunaren kontra, 5-0), eta arrasatearrek biak irabazi. Hori horrela, sailkapenaren bi muturretan daude. "Liga hasi besterik ez da egin. Partidu asko geratzen dira eta emango diogu buelta egoerari. Jokalariek oso motibaturik daude eta asteko entrenamenduak oso onak izan dira",

esan du derbiaren atarian Aloñako entrenatzaile Gotzon Urzelaik.

Faborito barik

Derbiak derbi direlako ez dago faboritorik domekarako. "Partidu gogorra izango da. Badakigu Azkoagainen jokatzera zer den. Zelai estua da eta Aloñak puntuak behar ditu. Lehiakor izaten ahalginduko gara, baina sei puntu izateagatik ez gara faborito", dio Mondrako entrenatzaile Josu Zubiak. Iritzi berekoa da Urzelai: "Mondrak ez dauka guk beste



2012an Aloñak eta Mondrak jokatuak derbia, Azkoagainen. | GOIENA

puntu beharrik, baina talde orekatua da. Dinamika onean dagoena. Ez da erraza izango, baina aurrera begiratu behar dugu. Ezinbestekoak dira puntuak guretzeko eta hori izango da gure helburu nagusia".

Ordizia-UDA

Ohorezko Erregionaleko denboraldiko lehen derbiaz gain, Aretxabaletak ere partiduak izango du: bihar, zapatua, Altamiran, Ordiziaren kontra. Mondraren egoera berean daude aretxabale-

tarrak: sei puntu dituzte sailkapenean eta kontrarioak zero. Ordiziak Mondraren kontra atzeko lerroan erakutsitako ahulezia baliatu gura dute Iñigo Velez de Mendizabalen mutilek.

Zumaiako-Bergara

Erregional Preferenteko bigarren jardunaldiko partiduak jokatu du Bergarak Zumaiakoren kontra (domeka, 17:00). Multzo bereko Mondrak eta Aretxabaletak etxean jokatu dute: arrasatearrek, zapatuan, 17:30ean, Tolosaren kontra; eta aretxabaletarrek, egun berean, 15:30ean, Ikasberriekin.

Lehenengo Erregionalean diharduen Antzuolak ere derbia izango du Oñatin, bihar, 16:30ean. Bergarak Eibartarrak taldea hartuko du domekan, 18:00etan, Ipintzan. Arizmendik atsedena izango du asteburuan.

GOITIBEHERRAK

Eskoriatzako goitibehera lasterketak pilotu eta zale ugari bilduko ditu bihar

Euskal Liga eta Open Norterako puntuagarria izateaz gain, eskoriatzar azkarrenek ere saria izango dute

IBON CARMONA | ESKORIATZA

Goitibehera-zaleek hitzordu garrantzitsua daukate bihar Apotzagako jaitsierarekin. Euskal Ligako azken proba da eta 80 parte hartzaile inguruk eman dute izena. Biharko lasterketa, gainera, Open Norte txapelketarako puntuagarria izango da. Guztira, lau kategoria ezberdinetako goitibeherak izango dira. Txapelketa 15:00etan hasiko da, eta bi saio puntuagarritan egongo da banatua.

Antolakuntza lan handia

Aurten, zenbait eragozpeni aurre egin behar izan diete antolatzaileek. Horietako bat ibilbideari dagokio; izan ere, bide mozketaren ondorioz aldaketa batzuk egin behar izan dituzte bertan. Horrez gain, Diputazioak, bertan egongo diren bi anbulantziekin batera, mediku baten presentzia eskatu du.

Antolakuntzak, eskoriatzar onenak saritzeaz gain, hobekien mozturiko goitibeherari ere emango dio saria.



Goitibehera bat Apotzagako jaitsieran parte hartzen. | IMANOL SORIANO

Eskoriatzar ugari

Zenbait ezaguna egingo zaie Apotzagako jaitsiera, herriko hainbat gaztek txapelketan par-

te hartuko dute eta. Bada, irabazteko intentzioa alde batera utzita, gehienek ondo pasatzea dute helburu.

ESKUBALOIA

Eskubaloi taldeek asteburuan emango diote hasiera denboraldi berriari

Mondragoetarrek Zumaiaiko Pulpo hartuko dute eta oñatiarrek, berriz, Tolosa

I.C. | DEBAGOIENA

Bailarako eskubaloi taldeek asteburuan hasiko dute Euskadiko Txapelketa. Aurten txapelketa beste formatu bat izango du: bigarren eta bosgarren postuen artean sailkatutakoek igoera faserako sailkatzeko *play-off*-a jokatuko dute.

Iazkoa errepikatzen

Ford Mugarri Arrasatek aurpegi berriekin ekingo dio denboraldiari. Azpiko kategoriatako datoen Mikel Teran eta Julen Agirianoz gain, taldeak Kepa Zelaia eta Andoni de la Roza fitxatu ditu Aloña Mendi eta Ordiziatik. "Bajak egon diren arren, postuak ongi estali ditugula pentsatzen dugu. Liga formatu berria ikusita, gure helburua lehenengo bosten artean sailkatzea izango da", azaldu du taldeko koordinatzaile Ando-

ni Arandok. Taldeak zapatuan jokatuko du, Zumaian, 12:30ean, hango Pulpo taldearen aurka. Bada, Arandoren esanetan, zumaiaerrek beti izan dituzte talde onak.

Talde bera gogo handiagoz

Oñatiko taldearen kasuan, jokalarietan ez da aldaketa handirik egon, Kepa Zelaia berriz sartu da. Hala ere, denboraldian zehar, beheko taldeko jokalariek erabiliko dituztela adierazi du Aitor Aranburu entrenatzaileak. "Iaz hirugarren geratu arren, helburu printzipala mailari eustea izango da". Lehen partidua etxetik kanpo jokatuko dute; zapatuan Tolosaren aurka, 12:00etan. "Partida gogorra izango da. Iazkoa ez zen urte onena izan tolosarrentzat, baina taldea hobetu dutela dakigu", gehitu du Aranburuk.

Garaipenak azken lagunartekoetan

Bi taldeek euren azken lagunartekoak irabazita hasiko dute liga txapelketa.

Arrasatearrek Jesus Mari Pitxi Herreroren memorialela jokatuz gero zuten pasa den zapatuan. Patxi Garciaren mutilek 36-23 irabazi zioten Erromori. Txantxikuek, ostera, San Migel txapelketa eraman zuten, Eibarko Haritza taldeari 26-24 irabazita.



Arrasate-Erromo lehia. | EKAITZ FILARMENDI

ESANAK

"Horrelako lasterketa bat antolatzea lan serioa da"

JOXE ANGEL URRUTIA | ANTOLATZAILEA

"Eskoriatzarren arteko pikea da motibatzen gaituena"

GORKA URRUTIA | PILOTU ESKORIATZARRA

"Goitibeherak guk egin ditugu inguruko laguntzarekin"

JON IREGI | PILOTU ESKORIATZARRA

DEMASA

Goiena Klubeko bazkideendako

Goiena Klubeko bazkide bazara, kilometroak arropa-sorta bat zurea izan daiteke, 3 zozketatuko ditugu. Animatu eta parte hartu!



PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus

WhatsApp: KLUBA [Demasa] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.



Indararen dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indararen dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



goienakluba[™]
Euskara irabazle, denok irabazle!

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENENKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA
Bergara / Masterreka kalea 11, behe
943 76 33 99 / 646 43 34 58

LAURA ALUTIZ
Arrasate / Otalora, 18 solairu artea 687 97 69 76

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA
TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA
(AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

SADHANA YOGA
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM
690 79 21 55

Rocka, musika afrikarra eta rapa, Kooltur Ostegunetan

Orain arte moduan, kontzertuak gaztetxean eguenetan (22:00) izango dira

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Kooltur Ekintzak taldeak zazpi-garren Kooltur Ostegunak zikloa abiaraziko du urriaren 6an. "Lan handia eskatzen digu astero, baina lan atsegingarria izaten da, eta zaleek eta baita musikariek ere interesa dutela erakusten jarraitzen dute. Zazpigarrena izateak, baina, neurri baten, errespetua sortzen du. Hasierako lantalde bera gara, baina jende berria hurbildu izan zaigu laguntzeko prest dagoela esanaz, eta, duda barik, oso positiboa da hori", azaldu du Iker Barandiaranek, Kooltur Ekintzak taldeko kideak.

Oinarrian, orain arteko egitura bera jarraituko dute: gaztetxean, eguenetan, 22:00etan, talde bakarrek emanaldiak eta sarre-
rak bost eurotan. "Hala ere, berri-

kuntzak sartzeko asmoa ere badugu. Oraindik guztiz erabakita ez badugu ere, baliteke gaztetxeko emanaldien denboraldia lehenago bukatzea aurten -Aste Santuaren bueltan, gutxi gorabehera- eta ondoren, kanpora -herriko txoko ezberdinetara- eramatea Kooltur-
rren eskaintza". Oraingoan ere, Maritxu Kajoi egunaren bezperan abiaraziko dute ikasturtea.

Hasteko, Señor No

Talde indartsu batekin hastea gustatzen zaie, eta aurten Señor No taldearen rock-and-roll basatia aukeratu dute. "Xabi Garrek gidatzen duen laukotea iaz ere gurean izan zen. Kaleratu berri zuten *A veces no* diskoa aurkeztu zuten orduan. Arrasaten eta, orokorrean, Debagoienean zale asko dituen taldea da, eta, beraz, egokia iruditu zitzaigun aurtengo lehenengoak eurak izatea".

Afrikako doinuak, Gasteiztik

Publikoa dantzan jartzeko asmoarekin etorriko da urriaren 13an Gasteizko Muchachos Afrobeat Band. "Zazpi kide dira eta askotariko estiloak nahasten dituzte: musika afrikarra, Etiopiako jazz, cumbia... Guretzat talde ezezaguna zen arren, estilo bera jorratzen duten Gasteizko beste hainbat talde izan dira aurrez".

Petti taldearekin, gaztetxean

Aspaldi zuten Nafarroako musikaria Kooltur Ostegunera ekartzeko gogoak. "Garai baten Xabi Señor Norekin etorri zen elkarrekin zuten proiektua aurkeztera. Garai baten Debagoienean sarritan jotzen zuela-eta erreserban gordeta genuen. Une egokia iruditu zaigu orain, Iñigo eta Igor Telletxearekin eta Joseba Irazokirekin batera atera duen lan berria Arrasateko gaztetxean ere aurkezteko".

Guatemalako rap feminista

Soziologoa eta poeta da Rebeca Lane eta anarkismoa da bere aukera. "Iaz izan genuen Furia raperoaren bitartez dator. Emakumeenganako injustiziei buruz kantatzen du eta gerra zibilaren gainean ere asko du esateko".

EGITARAUA

Urriak 6: Señor No.

Urriak 13: Muchachos Afrobeat Band.

Urriak 20: Petti & Etxeko Uzta.

Urriak 27: Rebeca Lane.



Señor No laukoteak zabalduko du aurtengo Kooltur Ostegunak. | SEÑOR NO



Pasa den urteko txapelketako bikote bat dantzan. | IMANOL SORIANO

Zazpi bikote lehiatuko dira Bergarako Dantza Solte Txapelketan

Moises Azpiazen omenezkoa gaur izango da, 19:00etan hasita, Udal Pilotalekuan

IBON CARMONA | BERGARA

San Martin jaietako egitarauaren barruan, Bergarako Musika eta Dantza Eskolak, Udalen laguntzarekin batera, Moises Azpiazu 31. Dantza Solte Txapelketa antolatu du. Udal Pilotalekuan izango da, arratsaldeko zazpitan hasita.

Zazpi bikote lehian

Joan den urtean bezala, 16 urte-
tik gorako zazpi bikotek eman dute izena txapelketan, guztiak gipuzkoarrak. Horien artean, Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga bergararrak daude. Bikote horrendako aurreneko urtea da nagusien kategorian. Aurreko urteko txapelketan ere, Xabier Artola (Irura) eta Idoia Besada (Pasaia), taula gainean izango dira. Trikitilariak joko dituzten fandangoa eta arin-arina dantzatu beharko dituzte bikote guztiak.

Urriaren 15ean Seguran jokatu du Euskal Herriko Txapelketa gertu dagoela kontuan izanik, Bergarako pres-

taketa moduan erabiliko dute dantzariak.

Baloratzeko bost irizpide

Bergarako Musika eta Dantza Eskolako idazkari Nekane Gabi-londoren esanetan, dantzariak puntuak emateko orduan bost irizpide erabiliko dira: pausoen trebezia eta kalitate teknikoa, gorputzaren jarrera, arlo artistikoa, erritmoa eta akatsak, hain zuzen ere. "Pausoei dagoenak gerritik beherakoari egiten dio erreferentzia. Gorputzaren jarrera, ostera, gehiago zentratzen da sinkronizazio, koordinazio eta oreka kontuetan. Arlo artistikoa, dantzariaren estiloa baloratuko da eta erritmoari dagokionez, besteak beste, hasierak, amaierak eta pausoen azentuzioa".

Dantzariak akatsen bat eginenez gero, bikoteari puntuazioa jaitsi egingo zaio, betiere, "akatsaren arabera". Honen harira, epaimahaia Euskal Dantzari Biltzarrik izendaturiko hiru kidez egongo da osatua.

Zinemaldiko eskaintzan, euskal ekoizpenak ere bai

Debagoieneko sortzaileen ordezkariak, Donostian, 'Igelak' eta 'Kalebegiak' filmak izan dira aurten

A. A. | DONOSTIA

Bihar, zapatua, jakinaraziko dituzte Donostiako Zinemaldiaren 64. edizioa irabazlearen izenak. Hainbat izan dira, baina, dagoeneko banatu dituztenak; horien artean, EZAEk -Euskadiko Zine Aretoen Elkarteak- Bergarako Asier Altuna *Kixi* zuzendariaren lantaldeari emandakoa.

Euskal zinemagintzari egingandako ekarpenagatik jaso zuen *Amama* filmak saria, martitzenean Donostiako Zinemaldian egin

zuten ekitaldian. Jose Luis Rebor-dinos Zinemaldiko zuzendariaren esanetan, pelikula saritua "hemen bakarrik egin zitekeen film unibertsala" da. Estatuko 85 aretotan eta Frantziako 26 pantailatan eskaini dute, 50 zinema jaialditan izan da, eta nazioartean 18 sari eskuratu ditu.

Komedia entretenigarria

Euskal zinemari eskainitako eguna izan zen martitzena, eta egun hartan eskaini zuten Patxo Telle-



'Amama' filmeko lantaldea, martitzenean, saria jasotzen. | INFOTRES KOMUNIKAZIOA

riak zuzendutako *Igelak*. "Ez du aurrez egin zuen *Bypass* lanaren antzik. Etxe-desjabetzeen gai gogorra oinarri badu ere, umorez eta kantuz kontatutakoa da. Musikak pisu handia du filmean; istorioa-

ren barruan txertatuta dago. Adibide bat jartzearen, *Algo pasa con Mary* filmean egin zuten moduan. Musikariren zerrenda luzea da, eta horien artean daude: Arrasateko Gose taldea eta

Ruper Ordorika oñatiarra. Gusura ikusi nuen", azaldu du Imanol Gallegok, Zinemaldiko Goienaren berriemaileak.

'Kalebegiak' filmean, Altuna

Aurrez aipatutako Asier Altunak Telmo Esnalekin egin duen *Iraila* film laburra ikusteko aukera ere izan du Gallegok: "Anoetako Belodromoan 2.500 lagun aurrean eskaini zuten *Kalebegiak* filma osatzen duten hamabi film laburretako bat da. Haria Donostia da, askotariko ikuspegietatik begiratuta. Altuna eta Esnalena estropada giroan dago kokatuta. Itogarri samarra egin zitzaidan niri. Hala ere, film labur bakoitzak estilo eta genero propioa du, egile bakoitzaren markarekin. Urriaren 14an estreinatuko dute zinema komertzialean. Hori ere gomendatuko nuke".

Txapela erantzi eta zapia jarri ahal izateko bidea aztertzen

Emakunderen beka bati esker 'Emakume bertsolariak: ahanzturatik diskurtso propiora' lana aurkeztu dute; tartean egon da Ana Isabel Ugalde historialaria

JOKIN BEREZIARTUA | DEBAGOIENA
Emakume bertsolariak: ahanzturatik diskurtso propiora izeneko ikerketa lan mardula egin dute, Emakunderen ikerketa beka bati esker, Gema Lasartek, Amaia Alvarezek, Pablo Lekuek, Judit Martinezek eta Ana Isabel Ugalde historialari arrasatearrak. Lasarte aritu da zuzendari lanean, hegemonikoki gizonezkoa izan den eremura emakumeen gerturatzea ahalbideratu duten inizatiba eta faktoreen azterketan: "Emakumei memoria kendu zaie bertsolaritzan, ez dira existitzen, hitza ere kendu zaie".

Ikerketak jasotzen du, besteak beste, bost bertsolaritik bat emakumea dela gaur egun. Presentziaren areagotze horretan gakoak izan dira modernizazioa, bertso eskolen sorrera eta emakume erreferenteak agertu izana. Eta emakume erreferenteen artean

bertsolari gehienek -200 bertsolariri galdetegiak pasatu zizkieten- aipatzen dute Maialen Lujanbio. "Etengabe aipatzen dute. Askorentzat, bertsotan egoteko arrazoa da, eredu emakume askorentzat", dio Lasartek. Izan ere, 1990eko hamarkadara arte plazatik kanpo egon ziren emakumeak. Orduan agertu ziren Iratxe Ibarra Bizkaian, Estitxu Arozena Nafarroan, eta, batez ere, Maialen Lujanbio Gipuzkoan.

Bailarak, "paper garrantzitsua"
 Lasarteren zuzendaritzapean egon den taldeko kide izan da EHUko irakasle Ana Isabel Ugalde: "Nire lana izan da bereziki historiari dagokiona. Egin ditut bestelako lanak ere, baina batez ere arlo historikoa landu dut. Emakumeek bertsotan egin izan dute, bai". XV. menderaino bidaiatuta, arrasatear baten lana nabarmendu

du Ugaldek: "Gizonezkoa zen: Esteban Garibai. Hark jaso zituen orduko testigantza asko, bertsoak tartean, eta hari esker ez dira ahanzturan geratu. Horregatik, jasotako emakumeen bertso zaharrenak arrasatearrenak dira. Izan ere, bertsolaritzaren bat-bateotasunak hori dauka, asko galdu egin direla".

Bertso eskolak izan dira gakoetako bat eta hor Debagoienak "paper garrantzitsua" jokatu du, Ugalderen arabera: "Bertso eskolak gure bailaran sortu ziren, Patxi Goikoleari eta konpainiari esker. Eta bailarako emakume bertsolarien artean ere Arantzazu Loidi aipatu beharra dago, lehenengoetarikoa". Baina ispilu edo erreferente nagusia, zalantza barik, Maialen Lujanbio da: "Ikono bat da. Gaur egungo bertsolarien artean ere, ukatu ezin daitekeen ikurra".



Xabi Solano, Esne Beltza Sound System-ekin zuzeneko ematen. | I.S.

Xabi Solano | Esne Beltza taldeko abeslaria eta trikiti-jotzailea

"Gaur egun edozein herritan ikas daiteke trikitia jotzen"

Esne Beltza Sound System-ek kontzertua eskainiko du gaur herriko plazan

IBON CARMONA | ARRASATE

Ospakizun ekintzak udaberrian hasi arren, Arrasateko Trikitia Eskolak 25. urteurrena ospatzen jarraitzen du. Gaurkoa irailko hirugarren ekitaldia izango da, eta, hasiera batean, azkena; izan ere, gaur betetzen dituzte 25 urteak. Kontzertua 19:00etan hasiko da, eta aurretik eskolako ikasleek kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar. Solanorekin batera, Esne Beltzako bere taldekide Zigor DJak osatzen du taldea.

25 urte ez dira egunero betetzen. Trikiti irakasle batentzat pozgarria izango da noizbehinka horrelako albisteak entzutea?

Noski. Sekulako ilusioa egiten dit. Hain justu, Arrasateko eskola ezaguna da niretzat eta bertako jende asko ezagutzen dut. Duela hamabost bat urte, Etzakiteko trikitilaria nintzela, *masterclass* bat eman nuen bertan. **Zure kasuan, nola ezagutu zenuen trikitia?**

Aita trikitizalea da. Gaztea nintzela, Aiako Aristerrazu trikiti plazara eraman ninduen; han domekero erromeria egoten zen eta egun hartan Laja eta Landakanda zeuden taula gainean. Horiek izan ziren ikusi nituen lehen trikitilariak, eta nahiko txundituta geratu nintzen han bizi izandakoarekin.

Nola deskribatuko zenuke trikiti eskolen egungo egoera?

Bere garaian leku gutxitan erakusten zuten trikitia. Orain, zorionez, edozein herritako musika eskoletan dago hau ikasteko aukera. Buruhaustek instrumentua irakasteko momentuan agertzen dira; horretarako era ezberdinak daude, eta, nire ustez, egokiena hauek adostea izan beharko litzateke.

Eta etorkizuna?

Itxura oso ona dauka. Egundak, haur eta gazte askok modu txun-

digarrian jotzen dute trikitia. Gainera, kontzertuetara jende dezente gerturatzen da, eta gehienek dena ematen dute bertan. Edozelan ere, badago zer hobetu; eskola askotan, ikasleei irakasten zaizkien kanten erreperitorioa nahiko mugatua izaten da.

Zer esango zenieke trikiti eskoletako ikasle hasiberriei?

Batetik, abestiak ongi ikas ditzatela. Ikasle hasiberri askok pentsatzen dute zenbat eta abesti gehiago jota orduan eta gehiago ikasten dutela, eta hori ez da horrela. Nire ustez, gehiago ikasten da abesti bera behin eta berriz entseatuta. Horretaz aparte, disfrutatzeke esango nieke, trikitia gustuko badute, behar duten denbora hartuta. **Trikitia edozein musika estilorekin nahas daiteke?**

Bai, noski. Askotan, *trikitia* eta *euskal musika* terminoak nahastu egiten dira. Ez dugu ahaztu behar trikitia instrumentu bat dela. Instrumentu batek mundu zabala dauka, eta ez da bere jatorrizko herrialdera bakarrik mugatzen.

Zer aurkituko dute gaur herriko plazara joaten direnek?

Esne Beltza eta Etzakit taldeen zenbait abesti beste modu batean joko ditugu, DJaz gain, trikiti eta gitarra akustikoaren doinuekin. Nire ibilbide musikala ezagutzen duenari, hainbat kanta ezagun egingo zaizkio. Instrumentu aitzindari bat berri batekin nahasten dugu. Sekulakoa da zer ongi geratzen den.

"Trikitia jotzen ikasteko modu bateratu bat adostu behar da"



Maider Arregi bertsolari oñatiarra Euskal Herriko eskolarteko txapelketa irabazi berri; atzean, Maialen Lujanbio. | GOIENA

Kalakan taldeak kontzertua eskainiko du gaur Oñatin



Kalakan taldeko kideak. | STEFANO MICCHIA

J.B. | OÑATI

Ulmaren 55. urteurrenaren harira Ulma fundazioak antolatuta eta San Migel jaien hasiera ofiziala ate joka dela, kontzertu interesgarria izango da gaur San Migel parrokian (22:00). Kantu herrikoien moldaketa minimalistak egiten dituen taldearen aurretik, herriko bertako Ganbara abesbatzak kontzertua eskainiko du. Gainera, pieza bat ere abestuko dute Kalakan taldearekin batera: *Sagarra jo*.

Ulmaren urteurrenaren barruan, beste ekintza batzuk ere izango dira gaur. 16:30ean Ulmako langile eta langile ohiak oinez, korrika, patinean edo bizikletan joango dira Zubillagatik Foruen plazaraino. Han, Ulmako euskararen murala egingo dute (18:30). Ondoren, 19:00etan hasita, Amaia DJ-k dantzan jarriko ditu bertaratzen diren herritarrak.

Ihintz Urkia | Errugbi jokalaria

"Mutilen kiroltzat hartzen da beti errugbia, eta, neskontzat, horri aurre egitea erabat zaila da"

IRATI ELORTONDO | ARETXABAETA

Ihintz Urkia (Aretxabaeta, 1999) duela bi urte eta erdi hasi zen errugbian jokatzeko. Arrasateko mutilekin entrenatzen da astean zehar eta Eibarko neska taldean jokatzeko du aste bukaeretan.

Noiz eta zergatik hasi zinen errugbian?

Duela bi urte eta erdi hasi nintzen, denboraldi erdian. Lagun batek esanda animatu nintzen; aurretik, gimnasia erritmikoan nenbilen, eta, urte erdian kirol egitea aspertuta nengoenez, probatzea erabaki nuen. Entrenamendu batera joan nintzen probatzeko eta asko gustatu zitzaidan, eta hartatik Eibarko taldean nago. Hasiberria nintzen, Interneten informazio bila ere ibili nintzen, ikasteko. Bideo ugari ikusi nituen.

Arrasateko taldeko mutilekin entrenatzen zara eta partidua neskekin jokatzeko dituzu, Eibarko taldean; nolakoa da dinamika?

Oso ezberdina da, egia esan. Mutilekin entrenatu eta gero neskekin jokatzeko teknika ezberdinak daude, eta, gainera, mutilekin baino askoz zaharragoak dira. Taldeko zaldi zuri bat bezalakoa naiz mutilen taldean, zaindu egiten naute eta oso gustura egoten naiz. Astean zehar bi aldiz entrenatzen naiz mutilekin, astearte eta ostegunetan. Arrasaten entrenatzen naiz, gertuago dagoelako, eta Eibarrera astean bi aldiz joatea bidaia luzea da, baina saiatzen naiz hilabetean bitan-edo haiekin entrenatzera joaten. Horrez gain, beti gaude kontaktuan telefonoz eta argazkiak bidaltzen ibiltzen gara bata besteari, partidurako prestatzeko.

Mutilekin ere egon zara taldean.

Bai, Arrasateko mutilekin jokatu izan dut, baina, adin batera iritsita, ezin izan nuen gehiago bertan jokatzeko jarraitu eta Eibarrera joan behar izan nuen. Eibarko neskekin primeran nago. Indartzen joan gara, egia esan; hasieran, nahiko ahul hasi ginen, lesio ugariekin... Baina indartzen joan gara eta hasiberriei ere erakusten gabilta. Adin ezberdineko neskekin nago taldean, gainera, eta bata besteari ikastea aberasgarria da benetan. **Zazpiko errugbi txapelketa irabazi zenuen duela hilabete batzuk Hernaniren aurka. Nolakoa izan zen zuen erreakzioa?**

Ez genuen espero, harrিতuta gera-

tu ginen guztiok. Hernaniko taldea, gainera, oso ona da eta guretzako sorpresa ikaragarria izan zen.

Nola ikusten duzu errugbiaren egoera bailaran?

Oso ahul. Ez da askorik entzuten, eta pena ematen dit. Beste kirol batzuekin alderatuta, nahiko baztertuta dago, eta hori aldatzea eta errugbia indartzea nahiko nuke. Saiatzen gara gure partetik indar handiagoa ematen, espero dut etorkizunean indar handiagoa izatea.

Eta emakumeak errugbian?

Askoz ahulago. Azken finean, mutilen kirol bat bezala kontsideratzen da beti eta guretzat zailagoa da horri aurre egitea. Ahulagoak garela dirudi eta ez dugu elkartasun handirik sumatzen. Euskadi mailan, adibidez, zazpi talde daude, eta, beste kirol batzuekin alderatuz, ez da hainbeste. Erreakzioa, gainera, erabat ezberdina da; mutilekin jokatzeko dutenean jendea ez da harritzen, indartsuak direla barneratu dutelako beti. Gu jokatzeko ikusten gaituztenean harritu egiten dira, indartsuak garela ikusten dutelako, eta, askorentzat, harrigarria eta bitxia da. Jendea asko harritzen da. "Benetan al dira neskek hauek?", esan ohi dute askok. Askotan esan izan digute gure taldea neskena izateko oso indartsua dela; erreakzioa, beraz, beti da ezberdina.

Imajinatzen al duzu zure bizitza errugbirik gabe?

Zaila da hori imajinatzea, egia esan. Duela gutxi hasi nintzen, baina ikaragarri gustatzen zait, eta, agian, beste kirolen bat aukeratu nuke, beste edozer, baina futbola ez. Urte erdiz egon nintzen errugbia hasi baino lehenago ezer egin gabe, eta erabat asperitu nintzen. Beraz, aukeratzekotan, seguru nago beste kirolen bat ziur aukeratu nukeela, ezin baina ezer egin gabe egon.

PERTSONALA

Partidu bat: Irabazi genuen azkena.

Talde bat: All Blacks.

Errugbi jokalaria bat: Sonny Bill Williams.

Amets bat: Profesionalen partidu bat ikustera joatea, munduan zehar. Irlandara edo Zeelanda Berrira, adibidez.

Bizi izateko leku bat: Egin nahi ditudan gauza guztiak egiteko aukera dudanez dozein lekutan.

Musika talde bat: Arkada Social.

Abesti bat: Arkada Socialen *Taberna* sartuta.



Ihintz Urkia errugbi partidua amaitu eta gero.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Bilogeladun 70 metro koadroko etxebizitza salgai Martokuan. Igogailua eta trasteleku handiarekin. Berritua. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 635 20 08 16

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 603 29 94 29 edo 634 07 99 70

Arrasate. Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko genuke errentan, prezio merkean. 634 14 36 65

Arrasate. Pertsona batendako etxebizitza behar dut errentan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 685 63 66 83

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dut errentan hartzeko. 659 90 85 13

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa da. Hilean 500 euro baino gutxiago ordain ditzaket. 696 84 19 51

Debagoiena. Etxebizitza behar dugu errentan. Bi logelarekin nahikoa dugu. 632 77 35 38

Errentan hartu. Arrasateko neska bat naiz eta etxebizitza errentan hartuko nuke. Gehienez 400 euro ordain ditzaket. 678 49 60 23 (Leire)

Oñati edo Bergara. Oñatin ikasten dugun lau gazte gara eta irailetik abendura arte etxebizitza hartuko genuke errentan Oñatin edo Bergaran. 687 80 37 56

Oñati. Bikote gazte bat gara eta etxe bilagabiltza errentan. Arduratsuak. 639 00 35 57

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan erdigunean, sukalde, egongela eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Logelak sarraila dauka eta wifi ere badago. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 603 14 28 89

Arrasate. Bikote batek logela hartuko luke errentan. 685 22 54 01

Arrasate. Logela ematen da errentan Biteri etorbidean, sukalde erabiltzeko aukerarekin. 618 82 02 41

Arrasate. Unibertsitateko gertu. San Andresen, etxebizitza osatzeko jende bila nabil. Hiru logela daude eta momentuz pertsona bakarra dago. 631 46 56 98

Bergara. Pertsona baten bila ari gara etxebizitza osatzeko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 685 72 47 59

Logela bila. Emakume eskaldun batek Gipuzkoan logela bat behar du errentan hartzeko. Gehienez 200 euro. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 631 41 38 92

Oñati. Etxebizitza osatzeko etxekide bila. Orain gutxi eraberritako etxebizitza da. Erdigunean dago. Logela zabala. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 658 86 98 38 (Mikel)

2. GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garaje itxia saldu edo errentan ematen da Bizkaia etorbideko garajeen erakinean. Lehenengo solairuan dago. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 627 26 94 29 (Dolores)

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

ARRASATE
Ile-apaindegia
ematen da errentan.
650 54 69 12

41. ESKAINTZAK

Oñati
Sukalde laguntzailea
behar da, astean lau
egunetarako.
664 35 75 07

Arrasate. Emakume bat behar dugu egunean bi orduz pertsona nagusi bati lagundu eta etxeko lanak egiteko. 689 55 00 72

Bergara. Pertsona bat behar dugu 8:00etatik 9:00etara bi ume zaintzeko. 646 22 84 21

402. ESKAERAK

Arrasate, Bergara eta Oñati. Gizonezko erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

Arrasate. Emakume gertu emakume nagusiak pasean laguntzeko edota ume bat zaintzeko. 695 58 88 63,

Arrasate. Mutila gertu txakurra kalera ateratzeko. 615 50 54 18

Arrasate. Nagusiak zaintzen lan egiteko orduka. Goizetan zein arratsaldetan, astelehenerik ostiralera bitartean. Baita garbiketarako egiten ere. 622 24 86 64

Bergara. Haur Hezkuntzako gradua amaitu berri duen neska eskalduna, goizez zein arratsaldez haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna bai zaintzan zein klase partikularretan. Eskerrik asko. 697 80 89 24 edo 943 76 02 27

Bergara. Kaixo! Irakasle ikasketak dituen neska eskalduna naiz eta haurrak zaintzeko prest nago. Goizez zein arratsaldez. Esperientziaduna. 659 29 14 63

Bergara. Kaixo! Magisteritza ikasketak dituen neska bat naiz. Irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest nago. Oso gustuko ditut eta bost urte daramatzat adin desberdinetako haurrak zaintzen. 695 73 58 19

Bergara. Magisteritzako ikasketak dituen neska eskalduna haurrak zaintzeko prest. Goizez zein arratsaldez. Esperientziaduna. 659 29 14 63

Debagoiena. Mutil arduratsua, esperientziaduna, lanerako gertu: orduka zaintza lanak egin, zerbitzari, dendarri edota garraioari. Autora daukat. 632 21 30 64

Debagoiena. Prest nago garbiketarako, umeak zaintzeko, adinekoak zaintzeko eta abarretarako. 685 64 85 64

Debagoiena. 9:00etatik 16:00ak bitartean orduka lan egiteko nuke, nagusi edo umeak zaintzen, garbiketarako, mandatuak egiten eta abarretarako. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 634 26 10 92

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEFENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan, Garajea Saldu/Errentan, Lokala Saldu/Errentan, Irakaskuntza eman, Motorra Saldu/Alokatu, Animaliak/Saldu, Denetarik/Saldu, - Profesionalen moduluak.

ALMACENES ARRASATE

Administraria behar da.

Gutxienez urtebeteko esperientzia eskatzen da.

Baloratuko da *Logic Control* menperatzea.

Bidali CV: arrasate@almacenesarrasate.com

